

A	SARRERA ETA LEGE ESPARRUA	1
A.1	APLIKATU BEHARREKO LEGERIA	3
A.1.1	HAPOnen EDUKIA.....	10
A.1.2	HAPOnen IZAPIDETZA ETA ONARPENA	15
A.1.3	HAPOnen EREMUA ETA ETORKIZUNA	17
A.2	HAPOnen AURRERAPEN DOKUMENTUAREN EGITURA ETA EDUKIAK	18
A.3	HAPOnen BERRIKUSPENAREN	19
B	HAPOa BERRIKUSTEKO ABIAPUNTUA	22
B.1	HIRIAREN BILAKAERA HISTORIKOA	22
B.2	GIZARTE-DESBERDINTASUNAK DITUEN GIZARTE ZAHARTUA	24
B.3	NATURA-INGURUNEA ETA PAISAIA	26
B.4	ETXEBIZITZA	27
B.5	ESPAZIO PUBLIKOA.....	29
B.5.1	ESPAZIO LIBREAK	29
B.5.2	OINEZKOEN ARDATZAK	29
B.5.3	BIDEGORRIAK.....	30
B.5.4	MUGIKORTASUN MOTORIZATUA.....	30
B.5.5	APARKALEKUA	31
B.5.6	TRENBIDE SAREA	31
B.6	EKIPAMENDUAK.....	32
B.7	JARDUERA EKONOMIKOAK.....	33
B.8	HIRI-GARAPEN BERRIAK	35
B.9	LURRALDE-ESPARRU BERRIA	36
C	PLANA IDAZTEKO HELBURU OROKORRAK	37
C.1	LURRALDEA BABESTEKO ETA HOBETZEKO BIDERANTZ: INGURUNE NATURALA ETA PAISAIA.....	37
C.2	PLANIFIKATUTAKO AZTARNAN ESKU-HARTZEKO BIDERANTZ	41
C.3	KULTURA-ONDAREAREN BALIOA NABARMENTZEKO BIDERANTZ.....	44
C.4	ALDAKETA KLIMATIKOARI MOLDATUTAKO HIRI JASANGARRI BATERANTZ	46
C.5	LURRALDEAREN OREKA EKONOMIKO BATERANTZ.....	50
C.6	HIRI ATSEGINAGO ETA ERAKARGARRIAGO BATERANTZ	53
D	HAPO BERRIKUSTEKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK	56
E	HIRI-EREDU BERRI BATERANTZ	96
E.1	INGURUNE NATURALA	96

E.2	JARDUERA EKONOMIKOAK.....	105
E.3	BIZITEGI ERABILERA.....	107
E.4	ZUZKIDURA-SAREA: EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.....	110
E.4.1	ESPAZIO LIBREAK.....	110
E.4.2	EKIPAMENDUAK.....	113
E.5	LURRALDE AZPIEGITURAK.....	115
E.5.1	MUGIKORTASUN EREDUA.....	115
E.5.2	HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK.....	118
E.6	JASANGARRITASUNA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA.....	121
E.7	KULTURA ETA INDUSTRIA ONDAREA.....	125
E.8	HIRIGINTZA ARAUDIA.....	127
E.8.1	ARAUDIA.....	127
E.8.2	KUDEAKETA.....	129
F	I.ERANSKINA BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUAREN JUSTIFIKAZIOA.....	132
G	II. ERANSKINA. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA.....	1
H	PLANOAK.....	1

A SARRERA ETA LEGE ESPARRUA

Indarrean dagoen Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) 2006/12/12an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiak, zenbait baldintzarekin, eta bere araudia 2006ko abenduaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zen, 242. zenbakian. Baldintzapeko onarpen horren ondorioz, zenbait zuzenketa egin behar izan ziren, eta, ondorioz, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (GHI-103/03-P03) agiri bategina egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007/12/18an onartua eta 2008ko urtarrilaren 22ko GAO n argitaratua (15. zk.).

Indarrean dagoen planaren indarraldia amaitu ondoren, Eibarko Udalak hainbat azterlan agindu zituen plana berrikustea beharrezkoa ote zen zehazteko, besteak beste:

- **Eibarko diagnostikoa**, LKS INGENIERÍA S. COOP. enpresaren **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra** egiteko (2018). Zehaztu zuen, idatzi zenetik denbora asko igaro den arren, indarrean dagoen HAPOk garapen-maila txikia izan duela, batez ere onartu eta denbora gutxira sortutako krisi ekonomikoaren ondorioz.
- LKS INGENIERÍA S. COOP. enpresaren Eibarko **Plan Estrategikoa, 2025**. urtera begira (2016). Ondorioztatu zuen Eibarko Udalak gaur egun hiri-estrategiaren arloan ezartzen dituen helburuak eta indarrean dagoen HAPOren oinarri izan zirenak oso desberdinak direla.

Eibarko Udalak, azterlan horien ondorioetan oinarrituta, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) berrikustea erabaki zuen.

Eibarko Udalak **TRION PLANES Y SERVICIOS S.L.P.** enpresari esleitu zaion **Eibarko Plan Orokorra berrikusteko agiriaren Aurrerapenaren laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa** lizitaziora atara ditu.

Laguntza horri hasiera eman zaio Herritarren Partaidetzarako Programa idaztean. Programa horrek HAPO berrikusteko prozesu osoa lagunduko du. Tresna hori herritarrek eta elkarteek HAPO egiteko prozesuan parte hartzeko duten eskubidea betetzen dela bermatzeko garatu da.

Eibarko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2020ko uztailaren 24an, **HAPOren berrikuspenera formulatzeko espedientea hastea eta Herritarren Partaidetzarako Programa** onartzea erabaki du. Programa 2020ko abuztuaren 10eko 150. zenbakidun GAO n argitaratu da.

Eibarko Udalak parte hartzen duten administrazio-organo eta administrazio publiko guztien lankidetzeta eta informazioa eskatu ondoren, ahalik eta lanik eta emaitzarik onena ahalbidetuko duten datu, txosten eta ekimen guztiak eskuragarri egon daitezzen, idazketa-taldeak Aurrerapen agiri honetan gauzatzen diren lanei ekingo die.

HAPOren berrikuspenera formulatzen hasi aurretik egindako aurretiazko azterlanetan oinarrituta. Dokumentu honen bidez, aurretiazko azterlan horiei buruzko informaziorik garrantzitsuena bildu eta eguneratu nahi da, eta plan berria



idazteari begira egungo esparruaren barruan dauden hirigintza-alderdi berriak sartu nahi dira, bai kontuan hartu beharreko udalaz gaindiko antolamendu-tresnei dagozkien alderdiak, bai azterketa sakonagoa merezi duten Eibarko berezko alderdiak, hiri-eredu berria definitzeko garaian izan dezaketen inplikazioagatik.

Abiapuntuko informazio hori guztia indartzeko, herritarren ekarpenak jaso nahi izan dira, herritarrek parte hartzeko egindako ekintzen bidez jasotakoak, eta, bereziki, hiriko elkarte adierazgarrienek egindakoak. Horretarako, dokumentu hau idaztearekin batera, **Herritarren Partaidetzaren Laburpena** izeneko dokumentu bat egin da.

Beraz, aurrediagnostikoko agiritik eta herritarrek herritarren partaidetzarako programaren barruan garatutako mahai sektorialen bidez egindako ekarpenetatik abiatuta, Eibarko HAPOren Aurrerapen agiri hau egin da, planaren berrikuspenaren bidez ezarri beharreko hiri ereduak definitzeko.

A.1 APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena indarreko plana idatzi zenean esparru legala indarrean zegoen planaren une oso ezberdina zen. Arau-berritasunen artean, honako hauek nabarmentzen dira: **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea**; urriaren 30eko **7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina** onartzen duena (2015eko urriaren 31ko EAO, 261. zk.) estatu-esparruan, eta urriaren 24ko **1492/2011 Errege Dekretua, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua** onartzen duena (2011ko azaroaren 27ko EAO).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak bost aldaketa ditu, eta horien artean aipatzekoa da azaroaren 28ko 11/2008 Legea, Erkidegoak hirigintza-ekintzaren gainbalioan parte hartzeari buruzkoa (abenduarien 12ko EHAA, 238. zk.), era berean, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak aldatua (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk.), udal-partaidetza hori eraikigarritasun haztatuaren edo haren gehikuntzaren %15ean zehazten duena, eta apirilaren 23ko 7/2012 Legea ere bai, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzekoa. Ikuskapenei, jardueren kontrolari eta lizentziei dagokienez, obra edo jarduera jakin batzuk egiteko beharrezkoa den aurretiazko jakinarazpenaren prozedura sartuta.

Era berean, bereziki kontuan hartu behar da plana indarrean sartu ondoren onartutako **araudi sektorial** guztia: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena, **uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren** bidez behin betiko onartua; **21/2013 Legea, abenduaren 9koa** (abenduarien 11ko EAO, 296. zk.), **ingurumen-ebaluazio estrategikoa** arautzen duena; **213/2012 Dekretua**, urriaren 16koa, kutsadura akustikoari buruzkoa (2012ko azaroaren 16ko EHAA, 222. zk.); **6/2019 Legea**, maiatzaren 3koa **Euskal Ondareari buruzkoa** (maiatzaren 29ko EAO, 128. zk.); **3/2015 Legea**, ekainaren 18koa, **Euskadiko Etxebizitzari buruzkoa** (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk.); **1/2006 Foru Dekretu Arauemailea**, ekainaren 6koa, **Gipuzkoako Errepide** eta **Bideen Foru Arauaren Testu Bategina** onartzen duena (2006ko ekainaren 21eko GAO).

Egungo egoera, batez ere, EAEn aplikatu daitezkeen **lurralde- eta hirigintza-araudi** honek markatzen du:

- **7/2015 Legegintzako Errege Dekretua**, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onartzen duena (urriaren 31ko EAO, 261. zk.), haren azken xedapenetako bigarrenetik ondorioztatzen diren baldintzetan, bai eta hura garatzeko araudia ere (**1492/2011 Errege Dekretua**, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioei buruzko Erregelamendua onartzen duena – EAO, 270. zk.
- **2/2006 Legea**, ekainaren 30koa, **Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa**.
- **4/1990 Legea**, maiatzaren 31koa, Lurralde Antolamendua arautzen duena, eta **46/2020 Dekretua**, martxoaren 24koa, **lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen**.

- Konstituzioaren aurreko Estatuko legeria osagarria, ordezkotzat aplikatu daitezkeenak (Besteak beste, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretua (1978, 1965 RCL), Plangintza Erregelamendua onartzen duena; abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua (1979, 285 RCL), Hirigintza Kudeatzeko Erregelamendua onartzen duena; 2187/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa (1978, 1986 RCL), Hirigintza Diziplinari buruzko Erregelamendua onartzen duena, eta 635/1964 Dekretua, martxoaren 5koa (1964, 690 RCL), Orubeen Nahitaezko Eraikuntzari eta Udal Erregistroari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Kalderik gabe, ez dira ahaztu behar lurralde- eta hirigintza-antolamenduko xedapenekin zuzenean lotuta dauden **Euskal Autonomia Erkidegoko beste arau** batzuk:

- **123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Hirigintzako Estandarrei buruzkoa** (uztailak 23ko EHAA, 143. Zk.), ekainak 30eko 2/2006 Legea garatuz.
- **105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa**, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten **premiatzko neurriei** buruzkoa (2008ko ekainaren 23ko EHAA, 118.ZK.).
- **3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena** (uztailak 13ko EHAA, 166.zk.).
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, **Babes Publikoko Etxebizitzen Araubide Juridikoari eta Etxebizitza eta Lurzoruaren arloko Finantza Neurriei buruzkoa** (EHAA, 59. zk., 2008ko martxoaren 28koa). Dekretu horren 36. artikuluan eta hurrengoetan, adibidez, etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeko lurzoruaren arloko jarduketak arautzen dira.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren **2010eko azaroaren 3ko Agindua** (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.), lurzoruaren balorazioan eragina duten babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren **2010eko martxoaren 29ko Agindua** (2010eko maiatzaren 26ko EHAA, 98. zk.), EAEko udal-administrazioek desjabetzekoak ez diren jarduketa isolatuen ondoriozko birkokatzeari buruzkoa.

Plan Orokor bat egiteari dagokionez **beste erregulazio sektorial** batzuen eragina oso garrantzitsua da. Jarraian, hirigintza-plangintzari eragiten dioten aipamen labur bat egingo dugu:


- Konstituzioaren 45. artikulutik eratorritako **ingurumen-erregulazioa**. Irailaren 24ko 96/61/EE **Zuzentarautik datorren kutsaduraren prebentzio** eta kontrol integratua, uztailaren 1eko 16/2002 Legeari jarraiki Estatuari helarazia (2002ko uztailaren 2ko BAO, 157. zk.). Gaur egun, Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrolari buruzko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak (2016ko abenduaren 31ko BOE, 316. zk.) ordeztzen du, INGURUMEN BAIMEN INTEGRATUA sortuta, eta ekainaren 25eko 4/2015 Legearen bidez arautzen da

Euskal Autonomia Erkidegoan ere (2015eko uztailaren 2ko EHAA, 123. zk.), eta hirigintza-prozesuan eragiten du, hiri-kalitatearen adierazpenaren kasuan.

- Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen bidez (BOE, 181. zk., 2011ko uztailaren 29koa) **hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautzen dira**, eta bertan zehazten da (36. artikulua) lurzoruaren titularrak lurzoruaren deskontaminazioari dagokionez duen betebeharra; izan ere, aurreikusten da deskontaminazio-kostuei dagokienez jabeari ezin izango zaiola eskatu lurzoruaren erabilerak eragindako kutsadura-mailen gaintik. Jakina, erregulazio honek lurzoruaren balioan eta ustezko hirigintza-jarduketaren baten bideragarritasunean ere eragiten du.
- **Zarataren aurkako babesaren arloko erregulazioa**, Espainiako legeriak erregulazio espezifikorik ia ez zuena (abenduaren 22ko 38/1972 Legea, giro atmosferikoa babesteari buruzkoa; 1961eko jardura gogaikarri, osasungaitz eta arriskutsuen erregelamendua, 1961eko abenduaren 7ko 292. EAO on argitaratua, eta arau-urritasun bat tokiko ordenantzen bidez), azaroaren 17ko 37/2003 Legea arte (2003ko azaroaren 18ko EAO, 276. zk.) Zaratar buruz (2002/49/EE Zuzentarauaren transposizioa), azaroaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuek garatua (2005eko abenduaren 17ko EAO, 301. zk.) eta urriaren 19ko 1367/2007 Legea arte (2007ko urriaren 23ko EAO, 254. zk., eta zonen gaineko azken mailako plangintza). Zortasun Akustikoko, Babes Akustiko Bereziko eta Egoera Akustiko Bereziko Zonalde horiek, Zaraten Mapekin batera, plan eta neurri zuzentzaileak hartzea erraztu beharko dute, hala nola iturri akustikorako ordutegi-murrizketak, hura nahitaez lekualdatzea eta ibilgailuen trafikoa debekatzea edo mugatzea. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, **EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua** aldarrikatu du (2012ko azaroaren 16ko EHAA, 222. zk.), zeinak, beste zehaztapen batzuen artean, zonakatzearen eta zortasun akustikoaren tipologia garatzen baitu, isurketa-foku berrietarako mugak ezarriz. Eibarko **Udalak Eibarko udalerriko Zarata eta Diagnostiko akustikoaren Mapa** dauka, 2011ko urtarrilaren 14an onartuak, 2009ko azaroaren 27ko datuak erabiliz. Partzialki eguneratu ahal izan dira 213/2012 Dekretuan jasotako Gipuzkoako Errepideen Foru Sareko Zarata Mapekin (2012ko azaroaren 16ko EHAA, 222. zk.) eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezkeen informazioarekin, 2017ko ekainean neurtutako AP-8 autobidearen eta trenbide-ardatz handien afekzioari buruzkoa.
- **Baliabide naturalen babesa**, hala nola **uraren** kasua (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24ko 176. zenbakiko EAO on argitaratua, eta Konstituzio Auzitegiaren epaien luze-luze baten ondoren behin eta berriz egindako aldaketak), muga handiak behar baititu lurzoruaren erabileran, plangintzak aintzat hartu beharreko zortasun- eta polizia-eremuak finkatuta.



Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru inbentariatuaren mapa.



Eibarko bide-zirkulazioaren zarataren mapa, gaez (2008).

Aire atmosferikoa osasungarritasunerako ezinbesteko ondasuna da, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean arautua (2007ko abenduaren 16ko EAO, 275. zk.), eta arlo horretako esku-hartze publikoa indartu eta indartzen duena.

Mendietako basoak eta lurzorua (Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea, 2003ko azaroaren 22ko 280 zenbakidun EAOn argitaratua) eta arlo horretako foru-eskumen tradizionala, gaur egun Gipuzkoako Mendiei buruzko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauaren bidez arautua (2006ko urriaren 26ko GAO).

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak arautzen dituen **naturgune babestuak** (maiatzaren 19ko EHAA, 92. zk.).

- **Kultura-ondare higiezinaren babesa Euskal Kultura Ondareari buruzko** maiatzaren 9ko 6/2019 Legean dago araututa. Lege horrek eguneratu egiten ditu Eusko Legebiltzarraren 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legea (abuztuaren 6ko EHAA, 157. zk.), eta, besteak beste, ustezko arkeologia-guneak zehazteko urriaren 8ko 234/1996 Dekretua (205. zenbakiko EHAA), Interes arkeologikoko ondasunak lekualdatzeko, entregatzeko eta gordailutzeko baldintzei buruzko urriaren 5eko 341/1999 Dekretua (201. zenbakiko EHAA), Kultura Intereseko Ondasunen Erregistroari eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorriari buruzko urriaren 5eko 342/1999 Dekretua (203. zenbakiko EHAA), eta, batez ere, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua, Kultura Intereseko Ondasunen aurre-egoeraren deklarazioari buruzkoa, bai eta gerora egindako jardueren eta Ondasun horiek eraisteko ebazpenei buruzkoa ere. 7/1990 Legeak indarrean jarraitzen du dokumentu-ondareari (III. tituluko VI. kapitulua) eta artxibo-zerbitzuei (V. tituluko I. kapitulua) dagokienez. 6/2019 Legeari kontrajartzen ez zaizkion edukietan ere dekretuek indarrean jarraitzen dute.
- **Etxebizitza babestua eta zuzkidura-bizitokiak:** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, une historiko jakin baten ondorioz, bereziki kezkatzen zuen etxebizitza erabilgarrien eskuragarritasuna behartsuenentzat, eta ahalegin handia egin zuen etxebizitza babestuen estandarrak handitzeko (80. artikulua eta zortzigarren xedapen gehigarria), aurreko 17/1994 Legearekin alderatuta, zeinak arlo horretako lehen estandarrak ezarri baitzituen, eta babes-kategoria berriak sortzeko, hala nola erregulazio autonomikoko edo udal-araubideko etxebizitza tasatuak. Halaber, zuzkidura-bizitokiak (16. eta 81. artikulua) sortzea, bereziki behartsuak diren kolektiboek aldi baterako edo aldi baterako babesa emateko espazio bizigarriak diren aldetik. Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.) araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiaren ezaugarriak jasotzen ditu. Euskadiko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak (uztailaren 13ko EHAA, 166. zk.) alokairuko etxebizitza babestuaren aldeko apustu argi eta irmoa egiten du.
- **Hezkuntza** hirigintza-plangintzak jaso eta aurreikusitako behar dituen beste diziplina eta zerbitzu publikoetako bat da. Ikastetxe publiko eta pribatuak (itunpekoak izan edo ez), haur-hezkuntzari (haurreskolak), derrigorrezko lehen hezkuntzari (16 urtera artekoak), batxilergoari eta unibertsitate-irakaskuntzari dagokienez, hirian edo herrian espazioak behar dituzte, bai hiri-ingurunean, bai haren inguruan (garrantzitsua da *ikasleek hiri-inguruneetara egin beharreko joan-etorriak minimizatzea* – Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektuko 53. artikulua – eta Hirigintza Planaren beraren zatia).




Figura 8: Red hidrográfika del municipio de Eibar.

Eibarko udalerriko sare hidrografikoa



Zuzkidura-bizitokiak Eibarren

Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Plangintzako Erregelamenduak (1978ko irailaren 15eko eta 16ko EAO, 221. eta 222. zenbakiak, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan baieztatutakoaren arabera osagarri gisa aplikatzekoa) jada ezartzen zituen lurzoru-estandar espezifikoak egoitza-plan partzialek nahitaez bete behar zituzten ikastetxeetarako (10. artikulua).

Kontuan hartu behar dira lehendik dauden ikastetxeak zabaltzeko zailtasunak; hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak, bigarren xedapen gehigarrian, “eskola-ekipamendu publikorako lurzorua erreserbatzea” ezartzen du, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 26ko 106/2007 Dekretuan (uztailaren 10eko EHAA, 132. zk.) ikusten denez, askotan udalaz gaindiko instalazioak daude Debabarreneko barrutiaren barruan: Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Mutriku).


- **Osasuna** funtsezko beste zerbitzu bat da. Euskadiko Osasun Zerbitzuek Euskadiko Osasunari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean (uztailaren 21eko EHAA, 138. zk.) eta haren erregelamendu-osagarrian dute oinarritzko araua. Horren bidez, Euskadiko osasun-sistema sortu zen, OSAKIDETZA, zuzenbide publikoko erakunde pribatu gisa.

Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren ikuspegitik, osasun-zerbitzuek lurraldean sakabanatutako zentroak edo establezimenduak behar dituzte, leku bakoitzeko biztanleriaren premien arabera eta tokiko, eskualdeko edo probintziako eskala egokiaren arabera, zerbitzuen aniztasunaren eta espezializazioaren arabera. Familia-medikuntzatik hasi eta espezializazio eta ikerketara bitarteko zerbitzuak dira, oso egitura konplexuekin, eta profesional kualifikatu askok parte hartzen dute horietan.

- Mugikortasunaren (jasangarria izan) eta garapen ekonomiko eta sozialaren ikuspegitik saihestezina den eta lurraldean eragin nabarmena duen beste elementu bat (azpiegitura, zerbitzu publikoarekin batera) garraioa da, eta haren azpiegitura egitura orokor eta organikotzat jo izan du beti Hirigintzak (1978ko Hirigintza Plangintzaren Erregelamenduaren 25. artikulua). Aipatzekoak dira uztailaren 30eko **16/1987 Legea** (1987ko uztailaren 31ko EAO, 182. zk.). Konstituzio Auzitegiaren 118/1986 Epaiak berrikusi zuen lege horren konstituzionaltasuna, artikulua batzuk baliogabetu baitzituen, eta xedetzat ditu bai bidaiarien eta salgaien garraioa, bai haien jarduera osagarriak, bai trolebus, teleferiko edo trakzioa kable bidez egiten den bestelako garraiobideak. Baita irailaren 29ko **38/2015 Legea** ere (irailaren 30eko EAO, 234. zk.), batez ere trenbide-azpiegiturari, haren plangintzari eta eraikuntzari erreparatzen diena, Estatuaren eskumeneko interes orokorreko sareari dagokionean. EAEk Trenbide Lurraldearen Arloko Plana du, eta, bertan, Abiadura Handiko Trenerako lurzorua erreserbatzeaz gain, autonomia-erkidegoaren eskumeneko barne-lineen plangintza ezartzen da, Gernikako Autonomia Estatuaren arabera.



Armeria eskola eta Unibertsitatea



Hospital de Subagudos de Eibar

Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea (2003ko uztailaren 8ko 162. EAO), besteak beste, aireportuak eta aerodromoak planifikatzeko eta eraikitzeako kontrolaz eta baimenaz, aeronautikako ikuskapenaz eta horri lotutako gainerako zerbitzuez arduratzen da. Bilboko aireportuari dagozkion **zortasun aeronautikoak** martxoaren 11ko 370/2011 Errege Dekretuan daude jasota (martxoaren 31ko EAO, 77. zk.).

Baina komunikazio- eta garraio-azpiegitura bat badago, hirigintzako antolamenduan eta plangintzan zuzenago eta nabarmenago eragiten duena, zalantzarik gabe, lurraldean dauden **errepideak** eta bide-sare amaigabea da. Lurralde historikoetako foru-organoen eskumen eksklusiboa, lurralde horietako lurraldeetatik igarotzen diren interes orokorreko sareak (Europa barnekoak) ere lurralde horiek kudeatzen baitituzte. Horrenbestez, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileak (GAO, 2006ko ekainaren 21ekoa) arautzen du. Araudi honek, beste garraio-azpiegitura batzuei (trenbideak, aireportuak) zor zaien araudiarekin gertatzen den bezala, berekin dakar, beharrezko plangintzaz gain, mugakide diren jabetzetan **murrizketa** garrantzitsuak ezartzea (**zortasunak eta afekzio-lineak**), eta hori zalantzarik gabe, plangintzan islatzen da.

- **Segurtasuna eta defentsa.** Hirigintza-legerian ohikoa izan denez, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren Legearen Testu Bategina (urriaren 31ko EAO, 261. zk.), Defentsa Nazionalari (Estatukoa) lotutako lurretan, eraikinetan edo instalazioetan eragina duten lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak Estatuko Administrazio Orokorraren txosten loteslearen mende jartzeaz gain (Bigarren Xedapen Gehigarria), **era berean, prozedura berezia aurreikusten du** (eta horren barruan salbuespeneko bidea, Defentsa Ministerioari eragiten dionean), **Estatuko Administrazio Orokorrak sustatutako egintzak dagokion udalak kontrolatzeko** (Hamargarren Xedapen Gehigarria), **egintza horiek udalaren esku-hartze horren mende daudenean** (interes orokorreko obra handiak ez lirateke egongo).

Hain zuzen ere, **Guardia Zibilaren kuartela Eibarko udalerrian egoteak kontuan hartzen ditu aipatu berri ditugun ohar horiek.** Otsailaren 10eko 689/1978 Errege Dekretuak (1978ko apirilaren 14ko EAO, 89. zk.) onartutako Defentsa Nazionalerako Intereseko Eremu eta Instalazioei buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan bereizten diren bost taldeetako lehen taldearen barruan dagoen instalazioa da, eta, aldi berean, Defentsa Nazionalerako Intereseko Guneak arautzen dituen martxoaren 12ko 8/1975 Legea garatzeko eman zen (1975eko martxoaren 14ko EAO, 63. zk.). Horrek esan nahi du haren araubide juridikoa 689/1978 Errege Dekretuaren A Azpiatalean (lehen taldeko instalazioak) aurreikusitakoa dela (9. artikulutik 14.era bitartekoak eta 29. artikulutik 31. artikulura aurreikusitako xedapen komunak).

Bestalde, Lurraldearen Antolamenduari buruzko legeriak hainbat tresna onartu ditu, planari berari eragingo diotenak. Tresna horiek Informazio Memorian deskribatu dira, planean eragina duten beste dokumentu batzuekin batera, eta horietako asko herri edo eskualde mailan egin dira.

Garrantziagatik aipatzen dira, jarraian, lurraldea antolatzeko tresna aipagarrienak:



Saihesbide berriko tartea eta Amañarekin lotura berria




Guardia Zibilaren kuartela

- Euskal Autonomia Erkidegoko **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak** (LAG), uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren arabera behin betiko onartu zirenak. Indargabetu egiten du Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua (otsailaren 12ko EHAA, 29. zk.), Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuaren arabera aldatu zena bizitegi-kuantifikazioari dagokionez (2016ko otsailaren 8ko EHAA, 25. zk.).

LAG hauek 1997ko lehen LAGak berrikusten dituzte, eta horien garapenak hainbat lurralde-Plan Partzial eta Lurralde-Plan Sektorial ekarri zituen. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da behin betiko onartutako eta indarrean dauden Lurralde Plan Partzialetatik Eibarko udalerriri eragiten diona **Debabarreneko Eremu Funtzionaleko LPP** dela (abenduaren 4ko 86/2005 Dekretua).

Gainera, **Lurralde Plan Sektorial** batzuk ere behin betiko onartu dira, eta horietako batzuek eragin zuzena dute Eibarko udalerrian. Hona hemen adibide batzuk:

- Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPS.
- Gipuzkoako Errepide Plana.
- Energia Eolikoaren Plana.
- EAEko Trenbide Sarearen LPS.
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LPS.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPS.



Lurralde Antolamenduko Gidalerroak

A.1.1 HAPOnen EDUKIA

Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) jaso beharko duen gutxieneko edukia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezartzen du nagusiki. Edukitzat hartzen denari dagokionez, egokia da **substantiboa** (2/2006 Legearen 61. artikulua) eta **dokumentu-edukia** (2/2006 Legearen 62. artikulua) bereiztea. Jarraian, legeak biei buruz ezartzen dituen eskakizunak zehazten dira:

EDUKI SUSTANTIBOA

Gutxienez, **udal-mugartearen egiturazko antolamendu osoa formalizatuko** da (55. artikulua), eta planak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua ere bai.

Egiturazko antolamendua planeamendu orokorraren figura beraren bidez baino ezin da aldatu, eta “hiri-bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia adierazten du, hirigintza-garapenaren sekuentzia logikoa zehaztuz, urbanizazio berri orok izan behar duen udal-hiri-bilbean sartu ahal izateko bete behar diren baldintza objektibo zehatzak ezarriz, eta, horrela, jarduketa integratuetarako lehentasunen oinarritzko ordena definituz, eta jarduketa horiek programaziorako bete beharreko eskakizunen oinarritzko ordena” ere bai.

2/2006 Legearen 53. artikulua araberak, Plan Orokorraren edukia definitu behar duen egiturazko hirigintza-antolamendu horrek honako zehaztapen hauek izango ditu nahitaez:

1. Orokorki:

- a) Hiri-bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia udalerrri osoan.
- b) Lurzorua udalerrri osoan hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea, lurzoru urbanizagarrian lurzoru sektorizatua eta lurzoru sektorizatugabea bereiziz.
- c) Kalifikazio orokorra, lurzoru guztia zonatan zatituta; gainera, erabilera publikoko eremuak eta erabilera pribatuko eremuak bereiziko dira.
- d) Garapen-plangintza egiteko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak finkatzea.
- e) Ingurumena babesteko, natura zaintzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak babesteko jarraibideak, bereziki kultura-ondareari buruzkoak.
- f) Hirigintza-garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia bermatuko dituen sistema orokorren sarea zehaztea, erabilera kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionaltasuna bermatuz, eta, hala badagokio, horiek egikaritze-eremuetan atxikitzea edo sartzea, horiek lortzeko eta, antolamendu-eremu jakin bat edo batzuk

garatzeko funtzionalki beharrezkoak diren kasuetan, egikaritzeari eta kostua bere gain hartzeari dagokionez ere.

- g) Babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzaren gutxieneko estandarrak eta zenbatekoak eta zuzkidura-bizitokitarako erreserbak betetzen direla bermatzeko beharrezko zehaztapenak.
- h) Lurzoruaren, eremuen eta sektoreen sailkapenaren espazio-eremuen mugaketa xehetasunez berraztertzea ahalbidetzen duten irizpideak, egiturazko antolamendua aldatu gabe, errealitate fisikoari egokitzeko eta plan orokorraren helburuak errespetatzeko parametro eta egoera objektiboak finkatuz.

2. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan, gainera:

- a) Bere perimetroa mugatzea.
- b) Hiri-lurzoruan, plan berezira igortzen diren antolamenduko eremuak zehaztea, eta lurzoru urbanizagarrian, berriz, plan partzialera igortzen diren antolamenduko sektoreak.
- c) Hirigintza-eraikigarritasuna, erabilera nagusia eta aurreikusten diren erabilera bateragarriak finkatzea, azken horiei dagokien hirigintza-eraikigarritasunaren gehieneko ehuneko adierazita.
- d) Tokiko sistemen oinarriko ezaugarriak eta urbanizazioaren gutxieneko baldintzak definitzea, lurzoru urbanizagarriko, lehendik dauden azpiegiturak lotzea eta indartzea barne.

3. Sektorizatugabeko lurzoru urbanizagarria:

- a) Sektoreak mugatzeko gutxieneko irizpideak, eta, hala badagokio, egin daitezkeen jardueren gehieneko edo gutxieneko magnitudeak.
- b) Egungo edo aurreikusitako azpiegiturekiko eta sistema orokorren sarearekiko loturak.
- c) Bateriaezinak edo debekatuak diren erabilerak eta baimendu edo ezar daitezkeen erabilerak esleitzea.
- d) Dagokionean, lurzoru-ondare publikorako lurzoru-erreserbak mugatzea.

4. Lurzoru Urbanizaezina:

- a) Lurzoru urbanizaezina antolatzea, bertako kategoria bakoitzean onartutako eta debekatutako erabilerak eta eraikuntzak aurreikusiz.

- b) Landaguneak mugatzea, eta horiek plangintza bereziaren bidez antolatzeko irizpideak ezartzea.
- c) Landaguneak mugatzea, plangintza bereziaren bidez antolatzeko irizpideak ezarriz.
- d) Lurzoru urbanizaezinean ezarri beharreko zuzkidura eta azpiegitura publikoak zehaztea, oinarritzko parametroak adierazita.
- e) Dagokionean, lurzoru-ondare publikorako lurzoru-erreserbak mugatzea.

Orain arte deskribatutako edukiak bat datoz planaren behin betiko dokumentuari eska dakizkiokeen gutxienekoekin; beraz, HAPOn dokumentua egiteko fasetik sartu beharko dira, hasieran onesteko. Hala ere, Aurrerapenak eduki substantibo txikiagoa behar du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 87. artikulua honako hau ezartzen du Aurrerapen Dokumenturako:

Aurrerapen-dokumentuan zehaztuko dira ezarri beharreko antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak, plana idazteko orientabide gisa balioko dutenak, plana lehen aldiz egin edo berrikusi nahi bada ere.

DOKUMENTU-EDUKIA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 62. artikuluan eta planak aplikatzeko gainerako arauetan xedatutakoa oinarri hartuta, plana gutxienez honako dokumentu hauetan formalizatuko da:

- a) **Informazio- eta justifikazio-memoria**, plangintza-ahala erabiltzeko irizpen-elementuak biltzen dituen informazio guztia jasoko duena. Era berean, memoria horrek berariaz aipatuko du erabakiak hartzeko alternatibak formulatzen direnetik aukeratzen diren arte jarraitutako prozesua, prozesu horretan herritarren parte-hartze gisa egindako alegazio, iradokizun eta erreklamazioen azterketa kontuan hartuta. Prozesu horretan, bi sexuen presentzia orekatua erraztu edo sustatuko da, Plangintzako Aholku Batzordearen nahitaezko txostena barne, hala badagokio, baita hartutako erabakien justifikazioa ere.
- b) **Ingurumenaren jasagarritasunari buruzko txostena**, hasieratik garapen jasagarriaren printzipiotik hartutako antolamendua arrazoitu beharko duena. Ingurumen-jasagarritasunari buruzko txosten horrek antolamenduaren xede den eremuko arrisku naturalen mapa bat izango du. Horrez gain, lurzoru horiek planean jasotako aurreikuspenetarako duten harrera-ahalmenari buruzko azterlana ere egingo da. Azterlan horrek txosten hauek hartuko ditu kontuan, aginduzkoak direnean eta prozeduraren ondorengo fase batean eman behar ez direnean soilik, legeria erregulatzailerekin bat etorriz:

1. Administrazio hidraulikoaren txostena, eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoei eta jabari publiko hidraulikoaren babesari buruzkoa, sektoreko araudiaren arabera nahitaezkoa denean.
 2. Kostaldeen administrazioaren txostena, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketari eta babesari buruzkoa, hala badagokio.
 3. Errepideetan eta lehendik dauden gainerako azpiegituretan eskumena duten administrazioen txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa. Txostenak hirigintza-jarduketak zerbitzu-ahalmenean duen eragina aztertuko du.
- c) **Informazio-planoak, egiturazko antolamendukoak eta antolamendu xehatukoak, hala badagokio.**
- d) **Hirigintza-araudia**, eta, hala badagokio, eraikuntza- eta urbanizazio-ordenantzak eta katalogoak.
- e) **Hirigintza-jarduketaren bideragarritasun** ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlana.
- f) **Jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria**. Bertan, bereziki haztatuko da hirigintza-jarduketak zelako eragina izango duen beharrezko azpiegiturak ezartzeak eta mantentzeak edo ondoriozko zerbitzuak abian jartzeak eta emateak eragindako Ogasun Publikoetan, bai eta zein inpaktu izango duen jarduera horrek ekoizpen-erabileretarako lurzoruan eta lurzoru-egokitzapenean, urbanizatu beharreko lurzorua kendu ondoren.
- g) **Hirigintza-eraikigarritasunaren gehieneko eta gutxieneko estandarrak** bete izanaren justifikazioa, eta biztanleriaren bizitegi-hazkundearen gehieneko kopurua errespetatu izanaren justifikazioa ere bai, etxebizitza-kopuruan adierazita, lurralde-antolamenduko tresnetan adierazita, eta, oro har, hirigintza-plangintza lurralde-plangintzara egokitu izanaren justifikazioa.

Edukia bat dator Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko **105/2008 Dekretuaren**, 2/2006 Legea garatzeko **premiatzko neurriei** buruzkoaren, 31. artikuluko zehaztapenekin. Ingurumen-jasangarritasunari buruzko dokumentazioari dagokionez, abenduaren 9ko **21/2013 Legean** (2013ko abenduaren 11ko EAO, 296. zk.) aurreikusitako **Planaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa** bete beharko da, zeinaren bidez «ingurumen-adierazpen estrategikoa» delakoa ematen baita.

Osagarri gisa, berariaz aipatu behar da honako **txosten** hauek nahitaez sartu behar direla hiri-antolamenduko plan orokor guztietan:

- **HAPOn Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa**, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikulua eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua aplikatzeagatik (2019ko azaroaren 22an argitaratu zen), plan eta proiektuen *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera* (49-57 artikulua).

- **Generoaren araberako HAPOren eraginaren ebaluazioa**, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatuz.

Planaren behin betiko dokumentuari eska dakioken gutxieneko eduki hori HAPOren dokumentua egiteko fasetik sartu beharko da, hasieran onesteko. Hala ere, legeak ez du gutxieneko dokumentu-edukirik ezartzen Aurrerapen faserako.

Dokumentu-edukiari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 87. artikulua honako hau ezartzen du Aurrerapen Dokumenturako:

Aurrerapenak, hirigintza-dokumentuaz gain, **Hasierako Agiri Estrategikoa (HAE)** ere jasoko du, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari Ebaluazio Estrategikoa hasteko eskaera izapidetzeko balioko duena.

A.1.2 HAPOren IZAPIDETZA ETA ONARPENA

Plan Orokorra izapidetzeko eta onartzeko prozedura, funtsean, **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90. artikuluan** jasota dago, baina ez da ahaztu behar abenduaren 9ko **21/2013 Legean** aurreikusitako ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion prozedura (paraleloa eta batua), eta martxoaren 24ko **46/2020 Dekretuan xedatutakoa** ere (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena).

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 44. artikuluen arabera (otsailaren 27ko 3/1998 Legea - EHAA, 59. zk.), Eibarren kasuan, ingurumen-adierazpen estrategikoa Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-organoaren eskumenekoa da, Plan Orokorra behin betiko onartzea Udalarari berari baitagokio, eta ez Gipuzkoako Foru Aldundiari, zazpi mila biztanle baino gehiago baititu (2/2006 Legearen 91. artikulua eta Hirigintza Legea).


21/2013 Legearen arabera, **ingurumen-ebaluazio estrategikoaren** izapideak (17. artikulua eta hurrengoak) honela laburbiltzen dira:

- a) Hasiera eskaera. Hasierako Agiri Estrategikoa.
- b) Aurretiazko kontsultak eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea.
- c) Ingurumen-azterketa estrategikoa egitea.
- d) Jendaurreko informazioa eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsultak.
- e) Espedientearen azterketa tekniko.
- f) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.

Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari egindako Ebaluazio Estrategikoaren Hasierako Eskabidearekin batera Hasierako Agiri Estrategikoa (HAE) aurkeztuko da, 46/2020 Dekretuak jasotzen duen bezala, planaren Aurrerapenarekin batera egingo dena.

Plan Orokorra egiteko eta onartzeko prozedura, 2/2006 Legearen 90. artikuluen arabera, urrats hauetan laburbil daiteke:

1. **Plan orokorra egiteko erabakia** eta gaien eskumena duten administrazio publiko guztiei informazioa eskatzea. Aldi berean, herritarrek **parte hartzeko programa** onartu da (2/2006 Legearen 108. artikulua), eta, hala badagokio, horren berri eman zaio Plangintzako Aholku Batzordeari.
2. Aurrerapena egin ondoren, jendaurrean jarri da iradokizun eta alternatibetarako (gutxienez bi hilabete, iragarkiekin eta inguruko udaletara bidalita). Aurrerapena inguruko udalei bidaliko zaie, jakinaren gainean egon daitezen.



3. Hala badagokio, Udalbatzak irizpideak eta helburuak onartuko ditu, hasierako onespina eman zaion plan orokorraren proiektua idazteko oinarri izango direnak. Aldi berean, balioetsi behar da ingurumen-organoak aurretiazko kontsultak egingo dituela eta “Ingurumen-Azterlan Estrategikoaren Irismen-Dokumentua” igorriko duela.
4. Ingurumen-ebaluazioaren Irismen-Dokumentua ikusita, udalak “**Ingurumen-Azterketa Estrategikoa**” egingo du hasierako onspen-dokumentua idaztearekin batera.
5. Plan Orokorraren proiektua egin ondoren, udalak, egoki baderitzo, **hasierako onespina** emango du, eta dokumentu biak jendaurrean jarriko ditu, hirigintzakoa eta ingurumenekoa, gutxienez 45 egun balioduneko epean, gutxi gorabehera bi hilabetez (iragarkiekin), eta, era berean, administrazio sektorial guztiei jakinaraziko die, aginduzko txostenak egin ditzaten (hargatik eragotzi gabe ingurumen-kontsultaren izapidean jasotakoak).
6. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitza ikusita, udalak **Plan Orokorraren** dokumentua behin-behinean onartuko du, eta ingurumen-organoari bidaliko dio, “**Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa**” egin dezan (bi hilabete), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari ere bai, txostena hiru hilabeteko epean egin dezan. Jarduketa horiek antolamenduan funtsezko aldaketak eragiten badituzte, jendaurreko informazioko aldi berri bati ekin beharko zaio.
7. Aurrekoa egiaztatu ondoren, Udalbatzak Plan Orokorra **behin betiko onartu** ahal izango du (2/2006 Legearen 91. artikulua), hirigintza-arauak nahitaez argitaratuta. Normalean, behin betiko onarpen hori ondorengo testu bategina behar izaten duten baldintzekin (eta zuzenketekin) egiten da.

Aurrerapena onartzeko izapideei dagokienez, dagokion hirigintza-planaren idazketa prestatzeko barneko administrazio-ondorioak izango ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 87. artikuluan xedatutakoaren arabera.

A.1.3 HAPOren EREMUA ETA ETORKIZUNA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera, HAPO arau-izaerako tresna da, eta **Eibarko udalerrri osoa du aplikazio-eremu gisa.**

Indarrean dagoen HAPOk, bere xedapen orokorren 1.1.02 artikuluan, honela definitzen du bere “eremua”:

“Plan Orokor honen aplikazio-eremua Eibarko udalerrian dagoen lurralde osora hedatzen da”.


HAPOren proposamenen **denbora-horizonteari dagokionez**, ohikoa da planen indarraldi mugagabea, besteak beste apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 45. artikulua jasotzen duena (ekainaren 16ko EAO, 144. zk. eta ekainaren 17ko 145. zk.). Dekretu horren bidez, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen, eta oraindik ere 2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2. Legearen ordezkotzat aplikatzen da.

1976ko araudi honek hirigintza-plangintza aldatzeko eta berrikusteko aukera jasotzen zuena, eta plangintza orokorrari dagokionez, Plana garatzeko lau urteko bi etapako programazioa izango zuen jarduketa-programa bat izateko beharra ezartzen zuen, jarduera eta inbertsio publikoak eta pribatuak koordinatze aldera (12. artikulua). Beraz, indarraldi mugagabea izan arren, zortzi urteko programazioa zekarren, lau urteko bi etapatan.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezabatu egin du Plangintzako Udal Arau Subsidiarioen figura, baita lau urteko bi etapak ere. 89.6 artikuluan ezartzen denez, **“hirigintza-planen antolamenduari buruzko zehaztapenek indarrean jarraituko dute berrikuspenera edo aldaketara indarrean jarri arte”**. Beraz, “indarraldi mugagabe” hau berretsi egiten da. Hala ere, Plan Orokorra (udalerrri osoko antolamendu integraleko tresna bakarra) eta, zehazkiago, haren berezko egiturazko antolamenduari (53.1.d artikulua), besteak beste, **garapen-plangintza egiteko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak finkatzea eskatzen zaio**. Gainera, gainerako artikuluetan zenbait aurreikuspen aurkituko ditugu, urbanizazio-obra egiteko epeei eta obra horren lagapenari buruzkoak (154. artikulua); lurrak desjabetzeko epeei buruzkoak (185. artikulua); eraikitzeko betebeharra betetzeko epeei buruzkoak (189. artikulua), eta baita eraikitzeko lizentzien zehaztapeneri buruzkoak ere.

Mugagabeko indarraldia, hala ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 103.4 artikuluan dago zehaztuta. Artikulu horrek debekatu egiten du Plan Orokorren berezko zehaztapenak edo elementuak aldatzea, **“epeak amaitu ondoren edo planean bertan berrikusteko aurreikusitako kasuak edo inguruabarrak gertatu ondoren, betiere plan horretako lanak hastea erabaki ez bada”**. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Gelak debeku horren berri eman du, eta bertan behera utzi ditu unean uneko aldaketak (EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 62/2011 Epaia, urtarrilaren 27koa, 1949/2008 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan; 47/2011 Epaia, 48/2009 errekurtsioan; 372/2015 Epaia, 108/2014 errekurtsioan).

Laburbilduz, **Plan Orokorreko zehaztapenen denbora-horizonteak horietarako ezartzen diren epe zehatzak izango ditu, indarraldi mugagabeari kalterik egin gabe.**



Udalerrri-muga

A.2 HAPOren AURRERAPEN DOKUMENTUAREN EGITURA ETA EDUKIAK

HAPOren berrikuspenaren aurrerapen-dokumentuak hiru dokumentu-multzo ditu:

1. **EIBARKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA**, hirigintza dokumentua.
2. **HASIERAKO AGIRI ESTRATEGIKOA**, ingurumen dokumentua. Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera izapidetzeko balioko du.
3. Herritarren **PARTAIDETZAREN LABURPENA**, Eibarko HAPOren berrikuspenaren aurre-diagnostikoaren eta aurrerapenaren faseei dagokienez egindako ekintza parte-hartzaileen emaitzen laburpen gisa eratu.

Hirigintzako dokumentuari dagokionez, dokumentu nagusi bat du, **EIBARKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA** izenekoa. Aurrerapen-dokumentuaren **Justifikazio-Memoria** osatzen du, eta, era berean, **antolamendurako Proposamenak eta Alternatibak** biltzen ditu. Dokumentu honen egitura sei kapitulutan dago ezarrita:

- A. SARRERA ETA LEGE-ESPARRUA
- B. PLANA BERRIKUSTEKO ABIAPUNTUA
- C. HELBURU OROKORRAK ETA ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK
- D. HAPo BERRIKUSTEKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK
- E. HIRI-EREDU BERRI BATERANTZ
- F. I. ERANSKINA BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUAREN JUSTIFIKAZIOA
- G. II. ERANSKINA HIZKUNTZA INPAKTUAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Dokumentua arintze aldera, zenbait atal kendu dira, erantsitako dokumentu gisa:

A.3 HAPOren BERRIKUSPENAREN

Gogoratu behar da Eibarko Plan Orokorra **2006ko abenduaren 22an** sartu zela indarrean, HAPOren Testu Bateginaren bidez zuzendu ziren terminoetan izan ezik, **2008ko urtarrilaren 22an** sartu baitzen indarrean 15. zenbakidun GAOn argitaratuz.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2009ko ekainaren 9ko erabakiaren bidez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 104.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2009ko otsailaren 24an emandako epaia betetzea xedatzen du Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an aurkeztutako 208/07 administrazioarekiko auzi-errekurtsori dagokionez.

Erabakiak Txontako antolamendua baliogabetzen du, eta, zehazki, hiri-lurzoru gisa alde aurretik lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako 16.745 m² eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako 51.308 m². Bilkura berean, **A.I. 125 Txonta Jarduera Integratuari dagokion mugaketa baliogabetzat jotzea erabaki zen**, 2008ko otsailaren 22an Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bategina onartu zuen Diputatuen Kontseiluaren 2007ko abenduaren 18ko Erabakiaren aurka jarritako hiru berraztertze-errekurtsori erantzunez.

Igaro den denboran, plana sei aldiz aldatu da puntualki, bai antolamenduz kanpoko eraikin batzuen irisgarritasuna hobetzeko edo haien araubide juridikoa aldatzeko helburuekin egokitzapenak egiteko, plangintzarekin bat ez baitatuz, bai azpiegitura eta ekipamendu berriak sortzeko eta antolatzeko, hala nola garbigunea eta beilatokia, edo Errebalen eraldaketa ahalbidetzeko.

Udalerrria	Eibar		
Indarrean dagoen planeamendua	PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA		2006/12/22
Tramitazioan dagoen planeamendua	PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA REV.	Hasierako akordioa	2020/07/24

Hirigintza espedientea	Azken Tramitazioa	Data	Araudiaren Argitalpena
HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA	Behin-betiko onarpena	2008/01/22	2008/01/22
MODIFICACIÓN 1ª DEL PGOU	Behin-betiko onarpena	2012/01/09	2012/01/09
MODIFICACIÓN 2ª DEL PGOU EN LA AI 118 ESTAZIÑO Y CREACION DE NUEVOS S.G. DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO	Behin-betiko onarpena	2012/10/23	2012/11/30
MODIFICACIÓN 3ª DEL PGOU PARA UNA NUEVA INFRAESTRUCTURA: GARBIGUNE	Behin-betiko onarpena	2013/10/22	2013/10/22
MODIFICACIÓN 4ª DEL PGOU EN EL ÁREA DE TXONTA	Behin-betiko onarpena	2015/04/09	
MODIFICACIÓN Nº 6 DEL PGOU REFERENTE A LA SUPRESIÓN DE LA A.I. 137.01 ERREBAL Y LA CREACIÓN DEL NUEVO SISTEMA GENERAL DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO CULTURAL	Hasierako onarpena	2015/04/10	
HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERR.	Hasierako akordioa	2020/07/24	

Eibarko HAPOren aldaketak

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 102. artikulua aplikatuz, hirigintza-planak berrikusi egingo dira, betiere, **plan horietan ezarritako epeetan, eta plan horiek horretarako aurreikusitako kasuak edo inguruabarrak gertatzen direnean**, edo zehaztapan lotesleak dituzten lurralde-antolamenduko tresnek hala eskatzen dutenean.

Indarrean dagoen HAPOren 1.2.04 artikuluan ezartzen denez, Plan Orokor honen edukia “berrikusi” beharko da honako kasu hauetan:

- *Biztanleriaren, errentaren edo enpleguaren aurreikuspenetan aldaketa nabarmenak egitea, Planaren lurralde-eremuaren barruan.*
- *Aurreikuspenen betetze-maila handia, planifikatutako etxebizitza berrien %75i “eraikuntza-lizentzia” eman zaielako edo “Jarduera Ekonomikoen Erabilerako” zonetan aurreikusitako aprobetxamenduaren %75 okupatu delako.*
- *Hasiera batean aurreikusi ez diren eta beste lurralde-eredua hartzea eskatzen duten gerora sortutako inguruabarrak agertzea.*

Hala eta guztiz ere, Udalak komenigarritzat joko du 8 urteko epean berrikustea, aurreko atalean adierazitako inguruabarretako bat gertatu delako, edo helburu berriak agertu direlako edo daudenak berriro bideratu direlako, Plana bera gauzatu bitartean.

12 urte igaro dira 2008ko testu bategina onartu zenetik, eta, beraz, planaren indarraldia, zortzi urtekoa, amaitu dela esan daiteke. Planaren aurreikuspenen betetze-maila txikia izan den arren, honako hau nabarmentzen da.

- HAPOk biztanleriari, errentari eta enpleguari buruz egindako aurreikuspenak ez dira betetzen ari. Egungo egoera, krisi ekonomikoak biztanleriaren geldialdia eta errenta eta enplegu baldintza okerragoak ekarri ditu.
- Hasieran aurreikusi ez ziren eta beste lurralde-eredua hartzea eskatzen zuten gerora sortutako inguruabarrak agertu dira: krisia bera eta beste administrazio batzuen aurreikuspenik eza, erabakigarriak izan baitziren hiri-eredua ezartzeko orduan, adibidez, trenbide-saihesbide bat eraikitzeko.

Eibarko Udalak 2025eko Eibarko Plan Estrategikoan jasotako hainbat helburu landu ditu, eta uste du indarrean dagoen planak ezarritako hiri-ereduarekin ez dela bat etorriko.

Azaldutako guztiagatik, egokitzen da **Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikustea**.

Nabarmentzekoa da, gainera, **Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokituta**. Horregatik, berrikuspena beharrezkoa eta egokia da, eta **lege-arauak berak hamabost urteko denbora-muga ezartzen du**, 2/2006 Legea indarrean jartzen denetik kontatzen hasita, aurreko epearen luzapenarekin bat etorritz. Epea urriaren 2ko 2/2014 Legearen arabera onartu zen



Aurreikusitako jarduera ekonomikoen eremuen garapen-maila.



Aurreikusitako bizitegiko eremuen garapen-maila.

(2014ko martxoaren 7ko EHAA, 190. zk.), eta lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen du.

Egungo egoera asko aldatu da indarrean dagoen planak sortu zuenarekin alderatuta, planak berak tresna funtzional izateari utzi baitio, eta berrikusi egin behar da, premia berrietara eta lege- eta lurralde-esparru berrira egokitzeko; izan ere, eredu ez hain garatzaileen eta iraunkorragoen alde egiten du, eta, horietan, lurraldea klima-aldaketaren aurrean inklusibotasuna edo erresilientzia bezalako alderdiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute.

Hiria eta lurraldea ikusteko modu berri horretatik, garai honetara egokitutako plana egin nahi da. Horretarako, garrantzitsua da, ikuspegi berri honetatik, plana berrikusteko abiapuntua aztertzea.

B HAPOa BERRIKUSTEKO ABIAPUNTUA

B.1 HIRIAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Villanueva de San Andrés hiribilduko armagintzaren gorakadaren ondorioz (1.346an sortu zen eta Eibarko hiribildua bezala ezagutzen da), 1.750. urtean 1.500 biztanle izatetik 15.000 izatera igaro zen Errepublika iritsi zenean.

1940ko hamarkadatik aurrera, industriaren hedapen-aldia hasi zen, eta immigrazioa erakartzeko gune bihurtu zen. 1945 eta 1975 bitartean 13.823 biztanle gehiago izan zituen, 40.000 biztanle izatera iritsiz.

1973an hasi zen industria-krisi larriaren ondorioz, fabrika askok atek itxi zituzten, eta beste batzuk beste udalerrri batzuetan kokatu ziren. Ondorioz, biztanleriak behera egin zuen, Eibar-Ermua hiri-jarraitutasunaren populazio-dentsitatea murrizteko politiketan oinarrituta, eta horrek biztanleak pixkanaka galtzea ekarri du, XXI. mendearen hasieran 30.000 biztanletik behera kokatuz.



ERDI-AROKO HIRIGUNEA
XI MENDEA

CASCO MEDIEVAL
SIGLO XI




ALBIETAKO EREMUA
XVII, XVIII ETA XIX MENDEAK

EXTENSION POR ARRABALES
XVII, XVIII ETA XIX MENDEAK



HIRIERDIAREN DESPLAZUA
XX MENDEKO LEHEN HERENA

DESPLAZAMIENTO DEL CENTRO
PRIMER TERCIO DEL SIGLO XX



BERRERA IKUNTZA ETA ZABALKUNTZA
XX MENDEKO BIGARREN HERENA

RECONSTRUCCION Y EXPANSION
SEGUNDO TERCIO DEL SIGLO XX

B.2 GIZARTE-DESBERDINTASUNAK DITUEN GIZARTE ZAHARTUA

Eibar biztanleria zahartua izateagatik nabarmentzen da; izan ere, 65 urtetik gorako biztanleak inguruko lurraldekoak baino ehuneko handiagoa izateaz gain, 75 urtetik gorako biztanleria asko dago, eta horien artean emakumeen proportzioa gizonena baino askoz handiagoa da.


Biztanleriaren zahartzea zonen arabera desberdina da. Hiriaren erdialdeko biztanleria lurraldeko batez bestekoa baino zaharragoa bada ere, honako hauek nabarmentzen dira auzo zahartu gisa: dorreak eta Amañako ekialdea; Isasiko hegoaldean dagoen eremua, Argatxako Lorategien eta Juan Gisasolaren artean; Fermin Kalbeton eta TxaltxaZelai kaleen arteko eremua, Ifar kaleraino; eta Urkizuko dorreen ingurua.

Eibarko orografia dela eta, haran estua eta malda oso gogorren gainean igotzen da bi hegaletatik. Hori dela eta, erdialdearen eta auzo periferikoen arteko lotura zaila da, gehienak erdialdea baino kota askoz ere handiagoak baitira. Desnibel hauek irisgarritasun-arazo larriak dakartzate, eta, ahal izan den neurrian, konpondu egin dira, arrapala eta eskailera mekanikoak eta hiri-igogailuak ezarriz. Horri esker, Eibar hiri bizigarriagoa eta gizatiaragoa bihurtu da. Hala ere, zentroaren eta auzoen arteko loturak, askotan lotura puntualtzat hartzen dira, eta Eibar lotura gabeko hiritzat hartzea dakartzate, errotuluen bidez elkarri lotutako auzoen batuketatzat.

Deskonexioak irisgarritasun-arazoez ez ezik, hautemandako beste alderdi batzuek ere markatzen dituzte, hala nola genero-ikuspegitik segurtasun-faltak. Hala, emakume askok ziurgabetzat jotzen dituzte erdigunetik auzoetarako ibilbideak, eta, ondorioz, distantziei dagokienez benetan aurkitzen dutena baino urrunago sentitzen dituzte. Arazoa hiriko eremuren batean konpontzea lortu da, hiria berroneratzeko operazio integralen bidez, Ego Gainen gertatu den bezala. **Alfaren lekualdaketak, ibaiaren aurkikuntzak, oinezkoentzako ardatz seguru eta atsegin baten sorrerak, Amaña auzorako sarbidean eta trenbidearen gaineko pasealekuan jarraitutasuna izan duenak**, auzoa bera erdigunera hurbildu du nabarmen, irisgarritasunari buruzko gaiak ez ezik, genero-ikuspegitik hautemandako beste arazo batzuk ere gaindituz, hala nola segurtasuna, eta oinezkoen mugikortasuna eta ingurune eta ohitura osasungarriagoak sustatuz. Horren guztiaren ondorioz, Amaña erdigunetik bereizten zuten distantzia fisiko eta sozialak gainditu dira, auzoaren bizi-kalitatea hobetu eta hirira hurbildu baita.

Izan ere, **arrakala sozialak daude hiriko zonen artean, eta urteen poderioz handituz joan dira**. Indarrean zegoen HAPOk desberdintasun horiek murriztu nahi zituen, baina ez da posible izan, planaren indarraldiarekin bat datorren krisi-egoera orokorra kontuan hartuta espero zitekeen bezala.

Baliabide gehien dituen biztanleria udalerrriaren gero eta azalera txikiagoan kontzentratzen da, batez ere hirigunean, eta, era berean, udalerrriaren barruan eremu kalteberen kopurua handitzen doa.



Eibarko Hiri Debekatuaren Mapa



Gabezia sozio-ekonomikoaren mapa MEDEA 2011



B.3 NATURA-INGURUNEA ETA PAISAIA

Eibarko natura-ingurunea baso-sistemaz (zabalena) eta nekazaritzako eta abeltzaintzako sistemaz (azken urteotan oso murriztua izan dena) osatuta dago funtsean. Eibarrek ez du Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legeak babes bereziko lurzorutzat aitortzen dituen lurzorurik, baina HAPOn babes-eremu zabalak jasotzen ditu, paisaia- eta jolas-interesa dutelako; horien artean, Urko tontorrak, Kalamua mendigunea eta Arrateko ingurunea nabarmentzen dira, eta SGEL gisa kalifikatutako lurzoru-eremu handiak ere bai.

Ibai-ibilguen sare zabala du, nahiz eta hiri-presioak eragin handia izan. Zaturio erreka eta Urko ibaiaren fauna-interesa nabarmentzekoa da, azken hau EAEko azpiegitura berdearen bilbe urdinaren zati baita.

Ingurune naturalean kontuan hartu beharreko eraginei dagokienez, aipagarriak dira higadura, arrisku natural gisa, eta zarata, batez ere autobidetik, saihebidetik eta trenbide-saretik datorrena.


Arriskuan dauden flora- eta fauna-espezieak daude. Konektagarritasun ekologikoari dagokionez, ez dago iragazkortasun-arazorik inguru horretako espezieen joan-etorrietarako; hala ere, Eibarko Ego ibaiaren ibarrean kontzentratutako garraio-azpiegiturek eta nukleoak osatutako hiri-jarraitutasuna gatazka larria da lurraldearen konektagarritasun ekologikorako.

Paisaiari dagokionez, paisaia naturaltzat hartuta, hiri-paisaiatik bereizita, nagusiki nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak osatzen du. **Hainbat inpaktu jasaten ditu, batez ere hiri-presioaren ondorioz, hala nola hiriaren ertzetako eraikuntza-intentsitatea eta azpiegiturak** (autobidea, saihebideta eta trenbidea), baina baita baso-erabilera ere, bai intereseko landarediaren urritasunagatik, bai mozketengatik.

Lurzoru urbanizaezinaren arauketa HAPO berrian lurralde-plangintzara egokitu beharko da, batez ere LAGek, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSak eta Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSak osatzen baitute, eta, aldi berean, mugakide diren udalerrietako lurzoru urbanizaezinarekin bateragarria izan beharko du. Ez da hautematen bateraezintasun garrantzitsurik, Markina-Xemeinekin muga egiten duten eremuetako lurzoruen babesaren arloko desadostasun txikiren bat, adibidez.

Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak eta LAGek ezarritako baldintzatzaile gainjarriak erabiliko dira; horien artean, berrikuntza gisa, klima-aldaketarekin lotutako arriskuei dagozkienak eta azpiegitura berdeei dagozkienak sartuko dira.

Egungo HAPO lurzoru urbanizaezineko erabilerekin oso zorrotza da. HAPO berrikusteari begira, nekazaritzako ustiategien errentagarritasunari lagunduko dioten nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera osagarriak eta dibertsifikaziokoak (turismoa, nekazaritzako elikagaien eraldaketa-zentroak, etab.) garatzea ahalbidetu daitekeen baloratzea proposatzen da. Jarduerak bateragarriak dira lurzoru urbanizaezinean egiten diren erabilerekin.



Clase agrologica	Descripción	Superficie (ha)	Superficie (%)
IV	Tierras en lomas suaves y laderas de pendiente inferior al 20%, en el límite de los terrenos laborables	2,17	0,09
VI	Tierras en laderas de pendientes del 20-35%, con limitaciones severas y restringiéndose su uso a mantener una vegetación permanente, herbácea o leñosa	398,3	16,24
VII	Tierras con pendientes superiores al 35% y muy fuertes restricciones cuyo uso está limitado al aprovechamiento forestal	1863,29	75,97
VIII	Tierras de muy escaso o nulo valor agronómico, restringiéndose su uso al urbanístico, conservativo, paisajístico.	189,01	7,71

*Klase agrologikoak Eibarko udalerrian
Iturria: Eibarko Ondare Naturalaren inbentarioa*

B.4 ETXEBIZITZA

Eraikitako bizitegi-parkea zaharra da eta egoera txarrean dago. Bizitegi-eraikin askok irisgarritasun- eta energia-eraginkortasun-arazoak dituzte.

Eibarrek bizitegi-parkearen zati handia berroneratu behar du, Arragueta nabarmenduta. Azken urteotan, Mogel auzokoa da hiria berroneratzeko egin den jarduketara garrantzitsu bakarra.

Etxebizitza huts asko dago udalerrri osoan sakabanatuta. Etxebizitzaren batez besteko prezioa inguruko udalerrrikoen antzekoa da; hala ere, badira hiriko zenbait eremu, hala nola Txonta, Matsaria, Barrena, Murrategi, eta horietan etxebizitza librea erregimen orokorreko etxebizitza babestua (BOE) baino merkeagoa da, ez bakarrik bizitegi-parkearen antzintasunagatik eta egoera txarrean egoteagatik, baizik eta eremu horien degradazioagatik eta/edo zuzkidura eta espazio libreen eskasiagatik; azken batean, hiri-kalitatearen gabeziagatik.

Indarrean dagoen HAPOk proposatzen zuen bizitegi-eremuen garapen-maila oso txikia izan da. Hiriko eremu periferikoetan etxebizitza babestuak egiteko jarduerak garatu dira batez ere.

Ez dago dentsitate txikiko etxebizitza-eskaintzarik, ezta pertsona bakarreko etxebizitza nahikorik ere, eta etxebizitza-azalera txikia da biztanle-kopuruarekiko.

Bizitegi-kuantifikazioa:

Plana berrikusteari begira, LAGak kalkulatzeko metodoaren bidez kalkulatu da Eibarrerako gehieneko bizitegi-hazkundera 1.357 etxebizitzakoa izan behar dela, gaur egun dauden aldean.

Plan berrirako ahalbidetzen den gehieneko hazkunde-muga gorabehera, LPPak Eibarrerako 705 eta 1.488 etxebizitza arteko hazkundera planteatzen zuen, eta, azken urteetako hazkunde errearen erritmoa aplikatuta, plan berriaren indarraldirako 675 etxebizitza berri beharko lirakeela kalkulatu genezake.

Indarrean dagoen planaren aurreikuspenei dagokienez, 859 etxebizitza geratzen dira eraiki gabe, 1.361 Txontako azken antolamendua kontuan hartuz gero. Beraz, egungo antolamenduari eutsiz gero, ez genuke etxebizitza berririk planteatu beharko datozen urteetako bizitegi-beharrei erantzuteko.



Arragueta kalea



Mogel auzoa

Etxebizitzari dagokionez LPPren jarraibideak:

LPPak planteatzen ditu: etxebizitza hutsak murriztea, barne-erreformako eta hiri-birmoldaketako zaharberritzeak egitea eta etxebizitza-eskaintza dibertsifikatzea benetako eskariari aurre egiteko, zentroan apartamentu txikien ehunekoa handituz eta dentsitate txikiko tipologiak barne.

Etxebizitza babestua:

HAPOn proposatutako etxebizitza babestuaren erdia gutxi gorabehera garatu da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko estandarrak indarrean dagoen planekoak baino handiagoak dira. Gaur egun, Etxebideren datuen azken eguneraketaren arabera, Eibarren 1.130 etxebizitza babestu daude, eta horietatik 899 Eibarren erroldatuta dauden pertsoneri dagozkie, alokairu-eskaerak nagusi izanik.

Zuzkidura-bizitokiak:

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legetik aurrera sortu zen zuzkidura-bizitokiaren irudia, Eibarren nahitaez bete beharrekoa. Bizitegi-sabaiaren 100 m²-ko gehikuntza bakoitzeko edo etxebizitza berri bakoitzeko 1,5-2,5m² erreserbatu beharko ditu, eta hortik kalkulatu da, LAGak ahalbidetzen dituzten etxebizitza berrien gehieneko antolamendua proposatuz gero, 70 zuzkidura-bizitoki inguru kalkulatu beharko liratekeela. Dagoeneko udalerrian 47 zuzkidura-bizitoki daude.

B.5 ESPAZIO PUBLIKOA

B.5.1 ESPAZIO LIBREAK

Hirian espazio libreen defizit larria dago, eta HAPOk ez zuen lortu legezko estandarrekin estaliko zuen antolamendurik. Hori konpentsatzeko, lurzoru urbanizaezinean Espazio Libreen Sistema Orokorreko azalera handiak mugatu ziren.

Lurzoru Urbanizaezinean mugatutako azalerak oso handiak dira, eta udalerrriaren beharrak asko gainditzen dituzte; beraz, mugaketa birlandatu daiteke.

Hiri-bilbeari dagokionez, oso plaza gutxi daude espazio librearen ikuspegitik diseinatuta.

B.5.2 OINEZKOEN ARDATZAK

Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, hiri-bilbearen barruan bi jarduketa nagusi garatu dira: Ego Gain ibai-pasealekua eta trenbidearen gaineko pasealekua. Biek hiriaren mendebalderako bi ekarpen handi egiten dituzte; alde batetik, Amañaren eta Eibarko erdialdearen arteko lotura errazten dute, bertako biztanleen mugikortasun-modua eraldatuz (oinetzkoen ibilbideak ugaritzen dira eta ibilgailu pribatuaren erabilera murrizten da), eta, bestetik, kalitatezko espazio libreak dira, aisialdiko funtzioak betez.

Eraldaketa-operazio hauek eragin handia dute mugikortasun-sistema iraunkorragoa ezartzean. Zona eraldatzeko, Amañako geralekua berritu da, eta nabarmen hobetu dira irisgarritasuna eta intermodalitatea, hirian integratzea eta, oro har, zerbitzuak ematea.

Ekialdeko eta erdialdeko eremuak ez du oinezkoentzako ardatzik, nahiz eta indarreko HAPOk proposatzen zuen trenbidearen estaldura osoa eraiki, erdialdea/ekialdea lotu gabe geratuko litzateke. Oinezkoen mendebaldeko ardatza, gauzatutzat jo daitekeena, Eibarko erdialdean etena da, eta mendebaldeko muturra ez dago konponduta. Eibarko erdialdean/mendebaldean merkataritza-bizitza handiko oinezkoentzako gunea dago, Toribio Etxebarria kalea, baina ez dago behar bezala lotuta trenbidearen gaineko pasealekuarekin.

Indarrean dagoen HAPOk ikastetxerako zituen oinezkoentzako erabilera-irizpideei dagokienez, azkenik, erdigune lasaia eratu da, eta zenbait aurrerapen egin dira oinezkoen eremuan, baina oso mugatuak. Auzoetan “eremu lasai” batzuk ere sortu dira.

Eibar eta inguruko udalerrien arteko oinezkoentzako lotuneari dagokionez, nabarmentzekoa da duela gutxi Eibar eta Elgoibar lotzen dituen oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekua osatu dela, Azitain-Maltzaga tartearrekin.

Lurzoru Urbanizaezinean mugatutako azalerak oso handiak dira, eta udalerrriaren beharrak asko gainditzen dituzte; beraz, mugaketa birlandatu daiteke.

Bi jarduketa nagusiak: Ego Gain ibai-pasealekuak eta trenbidearen gaineko pasealekuak eragin handia dute mugikortasun-sistema iraunkorragoa ezartzean.

B.5.3 BIDEGORRIAK

Nahiz eta Eibarrek hiria zeharkatuko duen bidegorri-sarerik ez izan, hiri-bilbearen barruan aurrera egin da; izan ere, bidegorri bat sartu da eraiki den trenbidearen gaineko pasealekuaren zatian, eta Eibar alboko udalerriekin lotzen duen zatian ere bai, Maltzaga eta Azitain lotzen dituen oinezkoentzako pasealekua/bidegorria egin berri baita.

Bidegorriaren hiri-zatirako hainbat trazadura-proposamen daude, udalaz gaindiko plangintzatik eta eskualde-azterketetatik datozenak; hala ere, oraindik ez dago trazadura erabakigarririk. Dagoeneko aurreikusita dauden ekialdeko eta mendebaldeko loturak errespetatuko dituen hiri-sarea proposatu beharko da, lehena Maltzaga-Azitain tartearrekin, bigarrena Zaldibarko bidegorri proiektuarekin.

B.5.4 MUGIKORTASUN MOTORIZATUA

Saihesbidea eraikitzea funtsezkoa izan zen mugikortasuna hobetzeko, zirkulazio asko murriztu baitzuen. Eraikuntza Legarreko irteera zaharraren eta Zaldibarko biribilgunearen arteko tartearrekin eta Amaña, Matsaria eta Asua Errekako konexio berriekin amaitu da.

Hala ere, geure buruari galde diezaiokegu ea plana benetan erabiltzen ari garen edo, plana berrikusteari begira, zenbait aldaketa egin ditzakegun, Eibarrerako planteatutako mugikortasun-ereduaren konfigurazioan zeregin erabakigarria izan dezan.

Era berean, aipatzea merezi duten beste hobekuntza batzuk egin dira bide-sarean, hala nola Torrekuako lotunea birmoldatzea eta Barrengua eraldatzea, eremu horri irudi atseginagoa ematea lortu baitute.

Garatu ez diren planeko aurreikuspenei dagokienez, hainbat proposamen mantentzea komenigarria da, hala nola Matsariako industrialdera Markinarantz irteera ematen duen tunela, edo Bidebarrieta/Urkizurekin paraleloan Fundidoresen hasi eta Iparragirreren amaitzen den bidea, egungo bide-eraztun nagusirako by-pass gisa.

Hiriko bide-sareari dagokionez, oinezkoentzako bideengan duten eragina garrantzitsua da, ibilgailuen trafikoaren fluxuak aldatzen baitira, eta horrek berekin beste kale batzuk egokitzea dakar, trafikoa xurgatzeko gai izan daitezen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu garrantzitsua dela plangintzak bateragarri egitea azpiegiturak lotzeko eremuetan, hala nola Maltzagan (Elgoibar eta Soraluzerekin) eta Eibar eta Ermua lotzen dituen errepidean, Zaldibarekiko loturan.



Bidegorria trenbidearen gaineko pasealekuan

B.5.5 APARKALEKUA

Aparkalekua Eibarko arazo handienetakotzat jo da, bi arrazoirengatik. Batez ere, eta hausnar daitekeen gaia izanik, ibilgailu pribatuak garrantzi handia du udalerraren egungo mugikortasun-ereduan, eta, ondorioz, hirigunean aparkatzeko plazak behar dira, bai aparkaleku birakarien eraikinetan, bai lur gaineko aparkalekuetan eta/edo kaleetan bertan.

Mugikortasunaren eredia aldatuz gero, ibilgailu pribatua gutxiago erabiliko litzateke udalerrri barruko ibilbideetan, eta, beraz, nabarmen murriztuko litzateke txandakako aparkalekuen beharra.

Modu estrategikoan kokatutako disuasio-aparkalekuak jarriz gero, bai saihebidetaren inguruan, bai garraio publikoari dagokionez, intermodalitatea sustatuz, murriztu egingo litzateke udalerrrien arteko ibilbideetan aparkatzeko beharra.

Aparkaleku-beharrari eragiten dion bigarren alderdia bizitegi-eraikinetako beheko solairuetan eta sotoetan garajerik eta aparkaleku-plazarik ez egotea da, bizitegi-parke gehiena zaharra baita eta ez baitu sotorik. Bizilagunen beharrari erantzuteko, udalerrri osoan banatutako aparkaleku-eraikinak planteatzen ziren; aztertu behar da lehendik ere ba ote dagoen erabilera hori har zezakeen eraikinik, osorik edo zati batean, garaje-eraikinak eraikitzeke lurzoru berririk okupatu behar izan gabe.

B.5.6 TRENBIDE SAREA

Eibartik igarotzen den trenbide-sarean hobekuntza nabarmenak egin dira, hala nola Ardanzako, Amañako eta Azitaingo geralekuak berritzea edo geltokian egindako hobekuntzak, batez ere irisgarritasunari eta segurtasunari dagokienez.

Hala ere, ez dira bete indarrean dagoen HAPOn aurreikuspenak, antolamenduaren elementu egituratzaileenetako bati dagokionez: hiri-bilbetik igarotzean trenbide-saihebidetaren eraikitzea.

Gure buruari galde diezaiokegu horrelako aurreikuspena izaten jarraitzea egokia den, baita Azitaingo Elizatik gertu geraleku berria eraikitzea ere, ez baitirudi, a priori, administrazio eskudunaren lehentasunen artean dagoenik. Horren ondorioz, ezin izan dira garatu azpiegitura hori eraikitzearen baldintzapeko proposamen asko, hala nola, Matsaria eta Estaziño lotzea.

Unibertsitateko geralekuaren irisgarritasuna konpontzeko dago, eta eremua antolatzerakoan faktorea kontuan hartu behar da; izan ere, baditu konpondu gabeko beste alderdi batzuk ere, hala nola Amañako bidegorriaren eta Zaldibarren proiektatutako bizikleta-sarearen arteko lotunea, edo trenbidearen gainean eraikitako pasealekuaren mendebaldeko muturraren gailurra, gaur egun bukatutzat jo ezin daitekeena.

Mugikortasunaren eredia aldatuz gero, ibilgailu pribatua gutxiago erabiliko litzateke udalerrri barruko ibilbideetan, eta, beraz, nabarmen murriztuko litzateke txandakako aparkalekuen beharra.



Euskotren Bilbo- Donostia Linea

B.6 EKIPAMENDUAK

Ekipamendu berriak sortu dira eta planaren indarraldian egon den bitartean lehendik zeuden ekipamendu batzuk hobetu dira. Udalaz gaindiko mailan, nabarmentzekoak dira Azpiakutuen Ospitalea eraikitzea eta Ipuruako Zelaiaren inguruan egindako hobekuntzak, eta Portalea eraikinaren barruan Armagintza Industriaren Museoa sortzea ere bai.

Udal mailan, Errebal garatzen ari da, udal merkatua kultur instalazioekin batera integratzen duen operazio gisa. Kokapenagatik eta gauzatzen ari den proiektuaren antolaketagatik, hiriaren egituraren estrategikoa den ekipamendua izango da; izan ere, horren arabera, eraikina hiriko eremuen arteko lotura da, kota desberdinetan.

Toki-mailara, Orbea frontoia birmoldatu da auzoko kirol-zentro bihurtzeko.

Hiriak zituen ekipamenduetako batzuk, ordea, jarduera bertan behera utzi dute edo erabilera aldatu dute. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: zezen-plaza, gaur egun erabilera anitzeko gunea dena; Alfa Ikastola, eraistea aurreikusten dena; eta oraindik ezarri ez diren erabilerak esleitu zaizkien beste ekipamendu-eraikin batzuk, hala nola Torrekuako anbulatorioa, Ipuruako merkatu zaharra eta epaitegi zaharra.

Era berean, Udalak dagoeneko erositako zuzkidura-lurzati batzuetan oraindik ez dira garatu aurreikusitako ekipamenduak, hala nola Matsariako industrialdean.

Bestalde, indarrean dagoen HAPOren arabera, ez da lanpostu-uzterik edo lekualdatzerik izan, Guardia Zibilaren kuartela edo Lantegi Eskola kasu.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokionez, epe ertainean udalaz gaindiko ekipamenduak (suhiltzaile-etxea eta transferentzia-geltokia) beste udalerrri batzuetara eramatea aipatu behar da.

Hutsik dauden ekipamendu-eraikinek eta hutsik dauden zuzkidura-lurzatiek planaren berrikuspenean izan dezaketen zeregina kontuan hartu behar da.

Ekipamenduari dagokionez LPPren jarraibideak

LPPren arabera, beharrezkoa zen Ingeniaritza Eskola zabaltzea, hirigunea berreskuratzea, kultura ondarea-ekipamendu gisa birgaituz, eta kultura-jarduerak udalerrriaren potentzialtasunarekin lotutako gaietan oinarritzea, hala nola armagintzan.



Zezen-plaza

B.7 JARDUERA EKONOMIKOAK

Eibarrek armagintzarekin oso lotura estua du. 1940ko hamarkadatik aurrera industria-hedapena izan zuen; enpresek beren produktuak dibertsifikatu zituzten, armak bizikletekin, automobilerako piezekin edo josteko makinekin trukatu. Baina 1973an hasi zen industria-krisi larriaren ondorioz, fabrika askok ateak itxi zituzten, eta beste batzuk beste udalerrri batzuetan kokatu ziren, instalazioak eraikitzeke lurzoru hobeen bila.

Industria-pisua tertziarioaren alde galdu da; beraz, Eibarrek gaur egun, historikoki udalerrri industrialala izan arren, oso pisu txikia du industriaren eta energiaren sektoreetan, eta zerbitzuen sektorea neurritzat kanpo nagusitzen da. Lehen sektoreak ia ez du eraginik udalerriko ekonomian.

Eibarko langabezia-tasa inguruko lurraldekoa baino handiagoa da. Enpleguari dagokionez, zerbitzuen sektoreak hartu duen pisua kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke enplegu-baldintzak okertu egin direla, soldata okerragoak eta ezegonkortasun handiagoa izan direla. Industria-sektoreko enplegu-galeraren ondorioz, gainera, pabiloi huts ugari eta industria-aurriak sortu dira.

Indarrean dagoen HAPOren garapenak Erisono Parke Teknologikoa sortzea eragin du, Eibarren teknologia-enpresak kokatzeko espazioa sortuz.

Industriari dagokionez, jarduera ekonomikoetarako lurzoruak jarri dira industrialdeetan, eta Administrazioak SPRILUREn bidez antolatu ditu lurzoruak; hala ere, ez dira garatu indarrean dagoen HAPOk mugatutako industria-eremuak. Industrialdeei dagokienez, esan behar da oso egoera desberdinean daudela. Azitain eta Erisono egoera onean daude, Otaola erregularra eta Matsaria, Iburerreka eta Asua Erreka egoera txarrean.

Iburerrekak oso arazo espezifikokoak ditu: Zaldibar eta Elgeta udalerriekin partekatutako poligonoa da, eta Zaldibarrek pisu handia du, garatzen ari ez den Plan Partzial baten ondoriozko antolamenduarekin. Bateragarritze-plan baten beharra planteatzen da, eremua konpontzeko.

Industria-erabilerak hiri-bilbetik ateratzeak arazo berri bat sortu du: industria-eraikin zaharkitu hutsez betetako hiri-bilbea, birgaitu eta berrerabili ez direnez gaur egun hiri-kohesioa hausten dutenak.

Bestalde, industria-ondare guzti hau hutsik egotea hirigintza egiteko modu berri bat planteatzeko aukera gisa har daiteke. Eraikin huts horiek berrerabiltzeak hainbat aukera sortuko lituzke, HAPOren berrikuspenean proposamenak egiteko.

Industria-pisua tertziarioaren alde galdu da.

Industria-sektoreko enplegu-galeraren ondorioz, gainera, pabiloi huts ugari eta industria-aurriak sortu dira.

Herriko merkataritzak kaleari bizia ematen dio, hiria leku atsegina eta seguruagoa bihurtzen du.

Merkataritzari dagokionez, saltokietan hobekuntzak egin dira eta supermerkatu berriak ezarri dira; hala ere, tokiko merkataritzak nolabaiteko atzerakada izan du. Herriko merkataritzak bizia ematen dio kaleari, hiria leku atsegina eta seguruagoa bihurtzen du. Eibar oso leku egokia da tokiko merkataritza garatzeko, dentsitate handia baitu. Fluxudun ibilbideak merkataritza-jarduerarako euskarri egokiak dira, ostalaritza barne.

Azkenik, udalariaren egoera estrategikoa aprobetxatuz, HAPOk turismoaren papera indartu lezake, konektagarritasuna eta irisgarritasuna hobetuz, ondare-baliabideei balioa emanez eta helmugako harrera hobetuz.

Eibarrek lan-ildoen alde egiteko gaitasuna du, hala nola kultura-turismoa, natura-turismoa, gastronomia, kirol-ekitaldi bereziak edo sormena, teknologia eta ibilbide profesionalak.

Eibarrek lan-ildoen alde egiteko gaitasuna du, hala nola kultura-turismoa, natura-turismoa, gastronomia, kirol-ekitaldi bereziak edo sormena, teknologia eta ibilbide profesionalak.

Jarduera ekonomikoei dagokionez, LPPren jarraibideak

Jarduera ekonomikoei dagokienez, LPPak proposatzen du zaharkitutako lurzoru hutsak berrerabiltzea eta lehengoratztea (Asua Erreka, Txonta, Arane, Matsaria, Ibargain, Barrenengua eta Iburerreka), existitzen diren industrialdeak pilatzea, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza publikoa sortzea eta etxebizitzarekin bateraezinak diren jarduerak Goitondo industrialdera eramatea.

B.8 HIRI-GARAPEN BERRIAK

Azken urteotan gauzatu diren hiri-garapenak batez ere eremu periferikoetako etxebizitza publikoen eraikuntzan oinarritu dira, eta horrek aldirietako auzo horietan biztanleria handitzea dakar. Era horretan, eraginpeko auzoetako bizitegi-parkea hobetu egiten dela interpretatu daiteke, batez besteko antzintasuna jaitsi egiten delako; hala ere, ondorio hori engainagarria da, ezin izan baita eraikitako parkea hobetu bertan jardun ez bada (Mogel auzoa, esaterako). Egoera txarrean dauden eraikinetan bizitzen jarraitzen duten familien kopurua ez da murriztu.

Hala ere, hiriaren egiturari dagokionez, maila globalean eremu periferikoetako bizitegi-hazkunde hauek eragin negatiboa izan dute, izan ere, irisgarritasun- eta deskonexio-arazoak nabarmentzen dira, arazoak pairatzen dituzten biztanleak ugaritu egiten baitira.

Hiriguneari dagokionez, baieztatu daiteke ez dela konpondu. Hiri-bilbean zeuden industria-erabilerak atera dira, hiriko bizitzari eta inguruko bizitegi-eraikinetako bizilagunei eragindako eragozpenak eteteko asmoz. Hala ere, eraikin hauek ez dira birgaitu, ezta berrerabili ere; gaur egun, erabilerarik gabeko eraikinak dira, hiri-hutsuneak direnak eta hiriaren kohesioa hausten dutenak, kalea hustuz eta segurtasunik ezaren nolabaiteko pertzepzioa sortuz.

Eraikinak hutsik daudenez, mantentze falta nabarmena dago horien gainean, eta horrek eraikitako ondarea bera eta ingurunea hondatzea dakar. Dagoeneko gertatzen ari da, abandonatutako industria-eraikinak ez ezik, bizitegi-eraikinak ere espazio horiek bazterrekoak bihurtzen ari direla. Hiriko gune batzuk bereziki degradatuta daude; ez soilik industria-eraikinak dituzten auzoak, hala nola Txonta edo Matsaria, baizik eta bizitegi-guneak, Arragueta kasu.

Eta abandonatutako eraikin askoren egoera txarrarekin batera, espazio publikorik eza dago. Hiria oso trinkoa da, espazio falta dela eta, historikoki ahalik eta aprobeixamendurik handiena bilatu du, txoko bakoitza bizitegi-erabilerekin eta jarduera ekonomikoekin okupatuz, baita ibaiaren gainetik aurrera eginez ere. Ez da leku nahikorik utzi, parkeak eta plazak falta dira, kaleak estuegiak dira eta eraikitako hiritik inguruko ingurune naturalera ihes egitea besterik ez dago, aisialdirako guneak bilatuz.

Ingurune naturalaz inguratutik, ia ez da ikusten hiriaren erdigunetik; haranaren estutasunetik, mendi-hegalen malkartsutik; kaleen estutasunetik, eraikinen altueratik. Badirudi natura-ingurunearen zorabioa hiri-egiturara bertara eramane dela.

Hiri-bilbearen jarraitutasunaren galera, auzoen artean eragin desberdina duena, eraikitako ondarearen egoera txarra, hiriaren zati handi batean sakabanatuta dauden eremu degradatuak eta espazio publikorik eza bateratzen badira, eta sentazio hori areagotu egiten bada ingurune naturalarekiko hurbiltasun-pertzepziorik ez dagoelako, Eibarrek nolabaiteko gainbeheraren sentazioa transmiti dezake, eta zalantzan jar dezake bizitzeko eta jarduera berriak ezartzeko gune gisa sor dezakeen interesa. Inertzia horretatik irteteko, hiri-bilbea konpondu behar da.



*Arraguetan eroritako bizitegi-eraikuntzaren irudia.
Iturria: Gipuzkoako albisteak (Ertzaintza)*

B.9 LURRALDE-ESPARRU BERRIA

HAPOn berrikuspena garatuko den esparrua oso desberdina da indarrean dagoen plana garatu zenetik. Azken urteetan onartu diren arau-aldaketa eta lurralde-plangintzako figura berri guztiak alde batera utzita, Europako eta munduko hiri-agendaren eta EAEn beraren mugari garrantzitsuenak hartu behar dira kontuan; izan ere, esparru berri bat zehazten dute, helburu eta lehentasun berriekin, eta hirigintza tresna gizatiarra eta inklusiboagoa bihurtzen dute.

Nazio Batuek garapen jasangarriko 17 helburu ezarri zituzten, bai Euskadiko Hiri Agenda *Bultzatu 2050*, HAPO berriaren helburuak lantzeko abiapuntu gisa balio izan duena, bai LAG berriak, garapen jasangarriko helburuetan oinarritzen direla.


LAGek jasangarritasun-irizpidetzat jotzen dituzte, lurzorua okupazioa mugatuz, azpiegitura berdearen kontzeptua integratuz eta lurralde-antolamenduan eta hirigintzan bertan zeharkako gaiak ezartzeko berrikuntza sartuz, besteak beste, irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, euskara eta osasuna.

Zeharkako alderdi horiek txertatuz, honako helburu hauek lortu nahi dira: kalitatezko espazio publikoak, seguruak, irisgarriak eta atseginak, hirian gozatzeko eta integratzeko moduko espazio libreak, bizitza eta jardura sozial eta komertziala duten kaleak, gure eguneroko bizitzan mugitzeko modua berrikustea eta etxebizitzaren eta ingurumen-kalitatearen kalitatea hobetzea (zarata, emisioak, etab.).

Esparru global honen barruan, Eibarren eragina duten hainbat irizpide eta jarraibide ezartzen dituzten figurak garatu dira, hiri-eredu berria definitzeko erabakigarriak izan daitezkeenak:

- **LAGek: Debarrenako eraldaketa-ardatza.**
Pixkanaka Ermua eta Deba arteko N-634 errepidea eta Maltzagatik Bergararaino GI-627 errepidea bulebar oihartzun bihurtzea planteatzen da, berroneratze- eta birgaitze-jarduketak lehenestea, perimetro urbanizatuaren barruan dauden okupatu gabeko lurzorua berrerabiltzea eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sarea hobetzea ere bai, hiri-garapenak, landa-eremuak, hiri-inguruko parkeak eta aisialdi-eremuak elkarrekin lotuko dituen.
- **Eibarko Eremu Funtzionaleko LPP – Debarrena.**
Eibarrek eskualde-buru izatea proposatu du, bere hirigunea eraberritzea eta hiri-kalitatea hobetzea, baita Eibar-Ermua jarraituaren etxebizitza- eta lan-gune bakarra izatea ere.

bultzatu
2050



C PLANA IDAZTEKO HELBURU OROKORRAK

"Lehenengo hiriak moldatzen ditugu eta gero haiek gu moldatzen gaituzte"
Jan Gehl

Plana idazteko helburu orokorrak zehazten dira, eta proposamenak helburu horiekin lerrokatzeko, horietako bakoitzerako jarduera-ildo batzuk ezartzen dira.

C.1 LURRALDEA BABESTEIA ETA HOBETZEA: INGURUNE NATURALA ETA PAISAIA

"Ama hizkuntza dagoenez gauzak izendatzen irakasten dizuna, amaren paisaia dago, eta horrekin mundua ikusten ikasten duzu. Gero hizkuntza eta paisaia gehiago ezagutzen dituzu eta politagoak izan daitezke, baina bat bera ere ez zaizu hobea iruditzen."
Julio Llamazares


Lurraldea babesteko eta hobetzeko, honako jarduera-ildo hauek ezarri dira:

- **Ingurumen-balio edo interes handieneko elementu naturalak eta paisaiak babestea eta hobetzea**

Plan orokorrek, jarduerak garatzeko aukera ematen dutenez, ezinbestean lurraldea, natura-ingurunea eta paisaia aldatzen dituzte. Eibarrek kokaleku natural interesgarriak ditu, eta horien adibide dira Urko gailurrak, Arrate ingurua, Eibarko Dikea eta Urko ibaia.

Ingurumen-interes edo -balio handieneko paisaien babesa sustatzeko, paisaia horien narriadura prebenitzeko eta degradazio-prozesuan daudenak hobetzeko, kontserbatu beharreko eremuak mugatu ahal izango dira, erabilerak mugatzeko.

Elementu natural babestuei buruzko informazioa eguneratuta edukitzea, babestu eta degradazioa aurreikusten du. Natura-ingurunera sartzeko puntuak ezartzea eta zirkulatzeko eremuak zehaztea, ingurunearekin erlazio positiboa izateko eta ingurunearen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko.



Baso-jarduera duen lurzorua

- **Konektagarritasun Ekologikoa hobetzea**

Eibarrek ez du **eremu babestu gisa** ezarritako eremurik (babes-figura propioak dituzten espazioak), ezta korridore ekologikorik ere (garrantzi bereziko naturguneak lotzen dituzten lurralde-eremuak), **Azpiegitura Berdearen Euskal Sarearen** barruan (eremu naturalen eta erdinaturalen sarea, modu estrategikoan planifikatua), Urko ibaia izan ezik, **sare urdinekoa** baita (ur-ibilguak, ertzak eta babes gisa kategorizatutako hurbileko inguruneak). Baina Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarean definitutako Funtzionalitate Ekologikorako Intereseko Guneak (FEIG) baditu.

ZIFE ez gain, Aurrerapenean, balio handiagoko paisaia-eremuak mugatzea bilatuko da, tokiko konektagarritasun ekologikoari eusten laguntzen dutenak, eta hori indartzen saiatzea, udalerriko naturguneak inguruneekin nolabait lotzen jarraitu ahal izan dezaten, fluxu eta prozesu ekologikoak bultzatuz. Balio interesgarriak dituzten espazioak dira, eta babestu eta indartu egin behar dira, beren jarduera nagusiaren arabera ezaugarri propioak dituzten lurzoruetan biodibertsitatea sustatuz.

Era berean, hiritik hurbil espazioak izateagatik maiz nahiko presio jasaten dute eta indartu egin behar dira. Horregatik, hiri-lurzoruan, ibaiaren inguruko eremuak birnaturalizatzearen aldeko apustua egin behar da, hala nola, Azitain. Gainera, argi-kutsadura saihesteko neurriak proposatu behar dira, habitata eta biodibertsitatea hobetzen laguntzen duten ekintzak.

- **Lurzoru orokor gehiago ez okupatzea**

Lurzorua baliabide urria da eta ez berriztagarria da; beraz, lurzorua zentzuz erabiltzea eta hiriaren hedapena kontrolatzea beharrezkoa da. Jarduketa-ildo honen helburua da natura-ingurunea kontserbatzea eta lurzoru urbanizaezina babestea, balio naturalak dituelako. Balioetsi egin behar da zein den gaur egungo hiriak etorkizuneko premien aurrean duen harreragaitasuna, eta kontuan hartu behar da, era berean, zeintzuk izan behar diren natura-ingurunearen beharrak; horretarako, neurriak hartu behar dira udalak natura-balioak kontserbatzeko duen gaitasunaren barruan, eta ingurumen-abantailak ere bai, giza jarduera intentsiboaren inpaktuen aurrean.

Salbuespenezko kasuetan izan ezik, hala nola hiriaren ertzetan, hiri-ingurunearen eta ingurune naturalaren arteko trantsizio-erabilera berriak dituzten eremu puntualak okupatu ahal izango dira.

- **Lurzoru Urbanizaezineko espazio libreen zuzkidurak Eibarko beharretara egokitzea**

Indarrean dagoen HAPOk espazio libreen zuzkidura-azalera handia planteatzen du Lurzoru Urbanizaezinean. Planteamendu horren bokazioa natura-ingurunea babestera bideratuta egon arren, haren erregulazioak nabarmen baldintzatzen du lurzoruaren erabilera Nekazaritzaren eta Basogintzaren ikuspegitik, eta ez die erantzuten interes publikoko lurzoru-zuzkiduren premiei, argi eta garbi gairadimentsionatutako azalera delako.

Zuzkidurak doitzea eta landa-ingurunearen berezko jarduerekin bateragarri egitea beharrezkoa da, lurzoru horien zati bat nekazaritza- eta baso-jarduerak dituzten lurzoru guztietara gehitzeko aukera emanez, nahiz eta bere garaian esleitu zitzaizkien ingurumen-balioen mesederako zuhurtzia propioekin.

Kontua ez da lurzoru horien babesa ezabatzea, baizik eta egokitu behar zaien erregulazio-formula aldatzea.

Hiritik hurbilen dauden espazioak indartu behar dira, maizago hiritik jasaten baitute presioa. Horregatik, hiri-lurzoruan, ibaiaren inguruko eremuak birnaturalizatzearen aldeko apustua egin behar da.

Lurzorua baliabide urria eta berriztaezina da, eta, beraz, zentzuz erabili behar da.

Beraz, sistema orokorraren izaerari eutsi beharko liokete, bakar-bakarrik, kokatuta dauden ingurunean, batez ere Arrateko eremuan, doitutako eskaerei benetan erantzuten dietenek.

- **Lurzoru Urbanizaezineko jardueren erregulazioa berrikustea.**

Lehen sektoreko jarduerak paisaia definitzeko eta osatzeko tresna nagusia dira. Lehen sektoreko jarduera ekonomikoei eustea errazteko eta, aldi berean, paisaia babesteko, lurzoru urbanizaezinaren barruko jarduerak arautzea da helburua. Natura-ingurunearen berezko jarduerak arautzen dituzten kategoriak eguneratu egingo dira LAG berrietan finkatzen den erreferentzia-esparru berrira egokitzeko, eta balio bereziko eremuetan berariazko babes-baldintzatzaileak erantsiko zaizkie.

Horrela, lehen sektorearen jarduera orekatu nahi da, hala zehazten den lurzoruetan balio bereziak zainduz, eta eraikuntza-baldintzak finkatuz dimentsioei eta materialei dagokienez, jarduerak erregulatuz paisaian duten eraginaren arabera, etab.

- **Baso-erabilerak arautzea (batez ere ingurumena bereziki babestu eta hobetzeko eremuetan)**

Ingurune naturaleko zur-baliabideak, baso-ustiapenaren bidez, natura-ingurunearen orekaren eta arrazoizko erabilera egokiaren azpian dagoen egoeraren ikuspegitik planteatu behar dira.

Baso autoktonoak berreskuratzea eta Kantauri Ekialdeko paisaian berezkoak diren espezieak landatzea bilatuko da, lehen aipatutako natura- edo paisaia-intereseko eremuetan autoktonoak ez diren espezieen basoak ustiatzeko eremuak mugatuz, bai harrera-lurzoruaren baldintzengatik, bai paisaiaren interes nabarmeneko eremuetan eta haren kultura-izaeran duten inpaktuagatik.

- **Eremu degradatuak, ibilguak eta ibaiertzak berreskuratzea sustatzea**

Hiriaren mugakide eta periferiko diren natura-ingurunekei zonetan hainbat jarduketan eragina jasaten dute, hala nola azpiegiturak (errepideak, zerbitzu-sareak, etab.), bizitegi-hazkundearen edo industriaren ondoriozko ezpondak, bereziki, ibaien inguruneak ere. Hiri-ingurunean, ibaien eta erreken ibilguak eta ibaiertzak degradatuta daude, eta paisaia- eta ingurumen-balioa kentzen diote hiri-espazioari, protagonismo berezia eman baitiezaiekete. Hobetzeko eta, horrela, biodibertsitatea bultzatzeko, ibaietako espazioa itzultzeko eta hiri-tarteak hobetzeko neurriak sartzea bilatuko da. Era berean, ibaien eta ibilguen ingurunea degradatu dezaketean prozesuak agertzea saihestu behar da.

Urko ibaia EAeko azpiegitura berdeen bilbe urdinekoa da, eta, beraz, haren ibilgua eta ibaiertzak lehengoratzea lehentasunezkoa da.

Baso autoktonoak berreskuratzea eta Kantauri ekialdeko paisaian berezkoak diren espezieak landatzea sustatuko da.

Urko ibaia EAeko azpiegitura berdeen bilbe urdinekoa da, eta, beraz, haren ibilgua eta ibaiertzak lehengoratzea lehentasunezkoa da.

- **Ingurune Naturala hirira hurbiltzea**

Hiriaren ertzetan nabarmentzen da gehien inguratzen duen paisaiarekiko integraziorik eza. Hiria errematatzeko modu berriak behar dira, muga gehigarriak, neurri zuzentzaileak eta trantsizio-erabilera berriak ezarriz.

Hiri-lurzoruaren muga dauden espazioak landa-ingurunearekiko tarteko espazio gisa planteatuko dira, eta horiek integrazteko balioko dute. Hiriaren eta saihebidearen arteko espazioak trantsizio-espazio bihur daitezke, natura hirira hurbilduko luketenak, eta alderantziz, hiria landa-ingurunera.

C.2 PLANIFIKATUTAKO AZTARNAN ESKU-HARTZEA

*" Bizi-hiria ibilbidea egitera gonbidatzen duen hiria da."
Jan Gehl*

Indarrean dagoen HAPOk bizitegi- eta industria-erabilerarako lurzorua handitzea planteatu zuen, biztanleria-hazkundearen aurreikuspenak betetzen ari ez direnez, beharrezkoa da indarreko planean zehaztutako oinatz planifikatuan, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian esku hartzea, udalerraren behar berrietara eta Eibarrerako bilatzen den hiri-eredu berrira egokitu dadin.

Helburu horren ondoriozko jarduera-ildoak dira:

- **Lurzoru gehiago ez okupatzea eta garatu gabeko eremu periferikoetan eraikuntza-tipologiak eta -dentsitateak berrikustea**

Dentsitate handia eta hutsik dauden eraikinen kopuru handia direla eta, HAPOn planteatzen diren proposamenek indarrean dagoen HAPOn dagoeneko okupatuta edo planifikatuta dagoen lurzorua baino gehiago ez okupatzera eta dagoena aprobetxatzera joko dute. Etorkizuneko etxebizitza-eskaerei, horien kalitate-irizpideei eta etxebizitza horiek ezartzen diren espazio publikoari dagokienez antzemandako joeren ondorioz, hiria diseinatzeko eredu berriak formulatu dira. Irtenbide berriak egungo hiri-espazioaren barruko esku-hartzeetara bideratzea proposatzen da, gaur egun erabiltzen ez diren edo gaizki aprobetxatuta dauden eta hiriarentzat aukera berriak ekar ditzaketen lurzorua eraldatuz eta berreskuratuz.

Garatu gabeko eremuetan eraikuntza-dentsitateak berrikustea lortu nahi den beste helburuetako bat da; izan ere, beharrezkoak ez diren hazkundeak saihesten ditu, gero hiriko gainerako eremuetan integratzea zaila izan baitezakete.

- **Hiria harrotuz dagoen espazio publikoa handitzea**

Eibar hiri trinkoa da, eta harrotu beharra dauka. Hori lortzeko, hiri-bilbearen barruan espazio publikoa handitzea eta dagoena leheneratzea, kalitatekoak, seguruak, inklusiboak eta pertsona gehiagok erabili ahal izateko moduan integratuak izan daitezen ezinbestekoa da.

Espazio publikoak diseinu berriaren printzipio sortzailea izan behar du, herritarren arteko harremanen euskarri gisa eta hiria, mugimenduak, zerbitzuak, ekipamenduak eta abar antolatzeko bitarteko gisa.

- **Etxebizitza eskuragarri eta duinen beharrei eman beharreko erantzuna planifikatzea, etxebizitza berriak birgaitze- eta berronertze-prozesuekin konbinatuz**



Ubitxa

Eibarko etxebizitzaren azterketatik ondorioztatzen da Eibarko bizitegi-parkearen %7,40 hutsik dagoela eta bertako etxebizitza-kopuru handi bat oso kontserbazio-egoera txarrean dagoela.

Bizitegi-parkea berritu nahi da, horrela hiriak herritarren beharretara egokitutako alternatibak eskain ditzan, batez ere gazteenak, hurbileko ingurunea birgaitzea eta leheneratzea lehenetsiz, etxebizitza berrien garapen puntualekin osatuz. Birgaitze-jarduketan erantzun orekatuak, kasu batzuetan, eta ordezkapenek, beste batzuetan, hirian ondo integratutako eremuak leheneratzea eskainiko du, erdigunetik edo beste udalerrri batzuetatik urrunago dauden eremuetara biztanleak mugitzea saihestuz.

Malgutasuna hiria biztanleen beharrez aldakorretara egokitu ahal izateko erabakigarria da.

- **Hirian esku-hartzea sustatzea, hiria berroneratzeko eragiketen bidez**

Hirietan eremu degradatuak egoteak hiria zatitzea eta desagitea eragiten du, jendeak gunek horiek erabiltzeari utzi eta bertan behera uzteko joera du, seguru eta erakargarri ikusten ez dituelako, eta, azkenean, gizartean gatazkatsuak diren leku bihurtu daitezke.

Eibarrek eremu oso degradatuak ditu, birsortzea behar dutenak. Honen bidez, hiri-kohesio handiagoa lortu nahi da, hiria etengabeko bilbe gisa uler dadin, egituratuta, hiri-hutsunerik gabe, hiriaren gainerakoarekin ondo lotutako auzoekin, isolatuta ez hautemateko moduan. Kontua ez da eraikuntzako esku-hartzeetara mugatzea, espazio publikoa lantzea baizik, erakargarriagoa eta atseginagoa izan dadin.

- **Hiri-bilbean erabileren mistotasuna sustatzea**

Hobekien funtzionatzen duten hiriak erabilera-aniztasuna konbinatzen dutenak dira, mugikortasun-beharrak murriztuz eta hurbileko joan-etorriak sustatuz.

Ondorengo helburu hauek lortu nahi dira: erabileren arteko distantzia murriztea, eraikinetako erabilera osagarrien nahasketa erraztea, espazio publikoak eta ekipamenduak hurbiltzea, merkataritza txikien eta bulegoen moduko jardueren garapena bultzatzea, hiri-ekonomia sustatzea eta, horrela, hiria bizirik mantentzea, eta biztanleek urrutiago dauden lekuetara joan behar ez izatea, garraio motorduna erabiliz.

- **Hiri-bilbean landaredia eta berdeguneak handitzea, beste jarduera batzuekin osatuz, hala nola jolas-baratzeekin**

Naturarekin kontaktua izateak osasuna hobetzen laguntzen duela egiaztatuta dago, bai fisikoa bai mentala, estresa eta antsietatea gutxitzen ditu, eta, horregatik, ingurune hurbiletan berdeguneak izan behar dira, herritarrek naturarako sarbidea izan dezaten.

Berdeguneek jarduera fisikoa eta interakzio soziala sustatzen dituzte, eta zenbait kolektiboren ongizate emozionalean alderdi hori erabakigarria da, hala nola adinekoren eta haurren ongizatean.

Etorkizuneko etxebizitza-eskaerei, horien kalitate-irizpideei eta etxebizitza horiek ezartzen diren espazio publikoari dagokienez antzemandako joeren ondorioz, hiria diseinatzeko eredu berriak formulatu dira.

Helburu hauek lortu nahi dira: erabileren arteko distantzia murriztea, eraikinetako erabilera osagarrien nahasketa erraztea, espazio publikoak eta ekipamenduak hurbiltzea.

Kaleetan landaredia egoteak eta berdeguneak handitzeak hiri-mikroklima hobetzen du, erosotasun termikoari laguntzen dio eta kutsadura murrizten du.

Eibarrek plaza edo lorategi gutxi ditu, eta plangintzan parke berriak sortzea aurreikusten da inguruko eremuetan, hala nola Sakun, Barrena, Asua Erreka eta Azitainen, besteak beste, hiriaren eta ingurune naturalaren arteko integrazio-fronte bat eratuz, jarduera osagarriak ahalbidetuz, hala nola jolas-baratzeak eta beste jolas-jarduera batzuk. Jarduketa horiek interesgarriak diren arren eta urteetan zehar aurrera egin duten arren, jarduketa-ildo gisa hiri-bilbean berdeguneak handitzea planteatzen da, kaleetako eta espazio publikoetako landarediarekin tratamendu atseginagoa izan dezaten.

- **Hiri-bilbean azpiegitura berdeak eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea.**

Zerbitzuak mantentzeko eta indartzeko, eta, horrekin batera, naturak hiriari ematen dizkion onurak sustatzeko, azpiegitura berdeak sustatu nahi dira, hau da, hiriaren alderdi zehatzen funtzionamenduaren zerbitzura jarritako elementu naturalen multzoa, indarrean dagoen planean definitutako hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren barruan daudenak aintzat hartuta. Beraz, kontua ez da espazio berdeak edo naturalizatuak sortzea bakarrik, baizik eta haien artean erlazionatzen saiatzea, sare edo azpiegitura koherentea eratuz. Azpiegitura mota honek funtzio erabakigarria betetzen du hirietan, lurzoruaren higadura eta uholdeak saihesten ditu, jariatzeak kontrolatzen ditu, bero-uhartearen efektua arintzen du, CO₂ hustubide gisa balio du, eta horren adibide dira hiri-inguruko parkeak eta hiri-parkeekin duten lotura, plazak lotzen dituzten oinezkoen ibilbideak, ibaiaren ondoko pasealekuak eta abar barne.

- **Auzoak espazio publiko eta ekipamendu nahikoz hornitzea, zentroarekiko mendekotasuna murrizteko.**

Eremu periferikoetan kokatutako auzoak oso erakargarriak dira beren ikuspegiengatik eta argitasunarengatik, baina ez dute ekipamendu egokirik, eta, beraz, hiriaren erdigunearekiko mendekotasun handia dute; gainera, irisgarritasun-arazo asko dituzte. Arazo horien artean, azpimarratzekoa da ez dutela toki mailan espazio publiko nahikorik. Auzo horiek nolabaiteko autosufizientzia izatea bilatu beharko da, eta bertako biztanleek beren ingurune hurbilean aisialdi-beharrak ase ahal izatea.

Naturarekin kontaktua izateak osasuna hobetzen laguntzen duela egiaztatuta dago, bai fisikoa bai mentala, estresa eta antsietatea gutxitzen ditu, eta, horregatik, ingurune hurbiletan berdeguneak izan behar dira, herritarrek naturarako sarbidea izan dezaten.

Kontua ez da soilik berdeguneak edo naturalizatuak sortzea, baizik eta haien artean erlazionatzen saiatzea, sare edo azpiegitura koherente bat eratuz.

C.3 KULTURA-ONDAREAREN BALIOA NABARMENTZEA

*"Kultura zaindu nahi badugu, kultura sortzen jarraitu behar dugu".
Johan Hizinga*

Eibarrek kultura-ondasun deklaraturako ondarea du: Isasiko Dorrea, Zamakola Lantegi-etxea, udaletxea, San Andres eliza, Unzueta jauregia, Kutunegieta Goengoa eta Erdikoa bezalako baserriak, ondare arkeologikoa: Arrateko Andre Mariaren tenplua eta ostatua, hainbat basiliza, baserri eta errota. Eraikin industrial baliotsuak ere baditu, baina horietako askok ez dute merezi duten aintzatespena.

Norberaren ondarea ezagutzeak eta baloratzeak nortasuna eta kide izatearen zentzua indartzen ditu, eta horregatik Eibarko iraganeko balio historiko eta kulturalak bizirik mantentzea garrantzitsua da. Plangintzaren berrikuspenean ezinbesteko eginkizuna da udalerrinari, hiriarri edo auzo bati izaera berezia ematen dioten elementuak eta espazioak identifikatzea eta nabarmentzea.

Eibarko kultura-ondareari balioa emateko honako jarduerak planteatzen dira:

- **Industria-historiari balioa ematea, hiri-bilbean eraikin industrial bereziak berreskuratuz**

Eibarren industria-ondareak duen balioa ukazina da, beti izan du ezaugarri nagusia hiri industrial izatea, nazio mailan industria-gune izatera iritsi zen. Gaur egun, hirugarren sektoreak indarra hartu du; hala ere, ezin da Eibar bere historia industrialetik bereizi.

Industria-eraikinak hiriko elementu bereizgarriak dira, hiriaren irudia eta esentzia definitzen dute, horietako asko abandonatuta daude eta etengabe hondatzen ari dira, industria-ondarea gal ez dadin; beharrezkoa da garrantzitsuenak identifikatzea, berreskuratzea sustatzea, bizitza berri bat ematea, hirian berriro leku nagusi bat izan dezaten eta, horrela, memoria historikoaren zati bat gal ez dezan eta nortasunari euts diezaion.

- **Hiriko espazio bereizgarriak babestea, hiri-paisaia garrantzitsu baten aldeko apustu gisa**

Paisaiak funtzionaltasunaren arabera sailkatzen dira: naturalak, landatarrak eta hirikoak. Hiri-paisaian elementu antropikoak dira nagusi, abiotikoak eta biotikoak baino; paisaia honek balio berezia du, interes kultural eta historikoa duelako. Hiri-paisaia baliotsua zaindu nahi da, hala nola Untzaga plaza, Urkizu plaza, San Andres eliza eta Ibarkurutze plaza, besteak beste. Degradazio-prozesuan dauden hiri-kalitatea hobetzea, hiri-bilbean integratzeko beste aukera bat emanez.



*Bizikletak iragzteko makinak Norma fabrian.
Iturria: Eibarko Udal artxiboa*

- **Kultura-Ondarearen katalogoa berrikustea**

Eibar hirirako balio handiko eraikinak edo horien zati bat galduz joatea saihesteko eta babesteko, katalogoa berrikustea eta bertan interesgarritzat jotzen diren elementu berriak sar daitezen sustatzea planteatzen da, bere garaian egokitzat jo ez zelako edo egungo ikuspegiarekin egokitzat jotzen delako. Jarduera-ildo hori indartu egin da partaidetza-jardunaldietan eta industria-ondareari buruzko beste azterlan batzuetan antzemandako gero eta interes handiagoak eraginda.

- **Auzoen nortasuna azpimarratzea**

Planaren helburua ezin da ikusizko alderdietara eta alderdi artistikoetara mugatu; pertzepziozkoak zentzu zabalean hartu behar ditu, pertzepzio horretan sortzen diren prozesuak kontuan hartuta, hala nola ingurumenekoak, gizartekoak eta hirigintzakoak.

Eibarko auzoek berezitasun desberdinak dituzte, alderdi positiboak nabarmentzea bilatzen da, horiek indartzeko eta, horrela, kide izatearen zentzua bultzatzeko.

- **Arratek eskualde-mailan duen zeregina indartzea eta landa-inguruneke beste elementu batzuk sartzea.**

Arrate Eibarren interesgune nagusia da, bai kulturaren, aisialdiaren eta turismoaren aldetik, baina udalerrriak baseliza eta baserri baliotsuak ere baditu landa-ingurunean. Horietako batzuk kultura-ondasun gisa katalogatuta daude, eta Arrateren balioa eta aintzatespena ez duten arren, interesgarria da haien eginkizuna indartzea eta gozamenarekin eta babesarekin lotzea, multzo integratzaile batean lotuz. Horiek guztiak paisaia-intereseko eremuei gehituta, zaindu beharreko sarea eskaintzen dute, ingurumen-, gizarte- eta kultura-ekarpen handia egiten baitute.

Eraikin industrialak hiriko elementu bereizgarriak dira, hiriaren irudia eta esentzia definitzen dute, horietako asko abandonatuta daude eta etengabe hondatzen ari dira.

C.4 ALDAKETA KLIMATIKORA HOBETU EGOKITUKO DEN HIRI JASANGARRIGOA LORTZEA

*" Zure etxetik gertuko espazio publikoaren m2 bat etxetik urrun 10m2 baino hobea da."
Jan Gehl*

Hirietan eta hirietako bizi-kalitatean eragina izan dezakete klima-aldaketak eragiten dituen inpaktuek. Inpaktu horiek ur-zerbitzuetan izan dezakete eragina, ur-baliabideen murrizketaren ondorioz, kultura-ondarean; izan ere, maila freatikoaren gorabeherak eragina izan dezakete eraikinen egituretan, pertsonen osasunean, eta, ondorioz, bero-boladen iraupenak gora egin dezake, eta, gainera, kalte handiagoa eragiten du airearen kutsaduran; higadura handiagoa eragiten duenez, materialei kalte egiten dienez, uraldi eta uholde ohikoenak kalte handiak eta giza galera handiak eragiten dituzte batzuetan, lurralde-ereduaren definizioan egin beharreko eraldaketa eta egokitzapenaren adibide dira.

Era berean, giza jarduerak eta baliabideak ustiatzeko moduak ingurumenari eragiten diote, klima-aldaketa bizkortuz. Hirien garapena gizarteak eskatzen duen eraldaketa-prozesuari gehitu behar zaio.

Hiri-eredu jasangarrienak jarduerak trinkotzearen eta nahastearen aldeko apustua egiten dutenak badira ere, eta Eibarrek zentzu horretan sobera beteko balu ere, beste helburu batzuk lortu behar dira, hiri-eredu iraunkorrago baterantz bultzatzeko.

Helburu hori betetzeko jarduera-ildoak zehazten dira:

- **Klima-aldaketarekiko erresilienteak diren hiri-espazioak diseinatzea**

Erresilientzia baldintza aldakorrei aurre egiteko etengabe eboluzionatzeko gaitasuna dela ulertuta, hiri-espazioen kasuan, plangintzak erraztu egin dezake espazio horiek egoeraren arabera egokitzea eta funtzio desberdinak integratzea. Tokiko baldintza bioklimatikoetara egokitutako espazio publikoen diseinua bultzatzea (suntsipena, haizea, itzalak), iragazkortasun handiko zoladurarako materialak lehenetsiz eta landaredia nagusituz.

- **Ibilgailu pribatuaren presentzia murriztea hiri-bilbean, beste mugikortasun-modu iraunkorrago batzuen aldean**

Klima-aldaketaren arrazoi nagusietako bat berotegi-efektuko gasen isurketa da. Berotegi-efektuko gasen inbentario nazionalaren txostenak adierazten duenez, Espainian 2019an isurketa-maila handiena izan zuen sektorea garraioa izan zen, isurketa guztien %29rekin, eta horietatik %26,9 errepideko garraioari dagozkie.



Eguzki-panelak. Ipuruako Udal Estadioa

Errepide bidezko garraioak berotegi-efektuko gasen ekoizpenean duen eragin handia dela eta, motordun mugikortasuna murriztea kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia da, hiria klima-aldaketara egokituta egotea bilatzen bada. Lor daiteke hiriko sarbideetan disuasio-aparkalekuak jarriz, erabileren mistotasuna bultzatuz, hiria oinezkoentzat irisgarriagoa eta seguruagoa bihurtuz, etab.

Horri gehitu behar zaio garraio publikoak ibilgailu partikularraren aurrean duen garrantzia, lehenengoak bigarrenari eragiten dion emisio-murrizketari dagokionez. Garraibide kolektiboak indartzea, batez ere trenbidekoak, funtsezkoa da mugikortasun-eredu orekatu baterako.

- **Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna sustatzea, pasealekuak eta bidegorriak sortuz eta hiri-inguruko oinezkoentzako bideak berreskuratuz**

Berotegi-efektuko gasen ekoizpena murrizteko eta, horrela, hiri jasangarriagoa eta ingurumen-kalitate hobegokoa izateko mugikortasun motorduna murriztearen ildotik jarraituz, beste mugikortasun mota batzuk sustatzeko beharra sortu da, hala nola oinezkoak eta bizikletak. Hiri barruan oinezkoen ibilbideak lotuta egotea bilatuko da, hiriko puntu guztiak elkarrengana hurbilduko dituen zirkuitu oso gisa ikus daitezela. Garrantzitsua da sare hori zabaltzea eta hiri-inguruko eremuekin lotzea, ibilbide-motak dibertsifikatuz (sozioekonomikoak eta aisialdikoak).

- **Ekialde-mendebalde oinezkoentzako/bizikletentzako pasealekua osatzea, hiriaren ardatz egituratzaile gisa, eta inguruko udalerriekin lotzea.**

Eibarrek eskualdean duen egoera estrategikoa eta eskualde-papera ezin dugu alde batera utzi. Oinezkoentzako/bizikletentzako barne-sarea garatzea garrantzitsua bada, arrazoi handiagoa du inguruko udalerriekin duen lotura. Ekialde-mendebalde lotura-ardatza amaitu eta osatu egin behar da, auzoen arteko loturaren oinarri izango den bizkarrezur bihurtzeko, baina, aldi berean, udalerriz gaindiko sarean integratu behar da, eskualde-sareari eta Elgoibar eta Ermurako loturei jarraipena emateko.

- **Parke eraikiaren energia-eraginkortasuna hobetu, birgaikuntza jasangarria sustatuz**

Euskadin etxebizitzaren %70 baino gehiago 1980a baino lehen eraiki ziren (Euskadiko Energia Estrategia 2030), Eibarko parke eraikiaren %62,27k 50 urte baino gehiago ditu, eta horrek esan nahi du eraikinen baldintza termikoei buruzko lehen araudia baino lehen eraiki zela eta, beraz, ez dituela energia-eraginkortasuneko gutxieneko baldintzak betetzen.

Eraikinak klima-aldaketarekiko hain kalteberak ez izatea eta horretara egokitzeko erantzun bat izatea lortu nahi da, birgaitzea, mantentzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea sustatuz. Horrek guztiak Eibarko biztanleen kalitate hobea ekarriko du, bai beren etxebizitzetan, bai auzoen mantentze eta balioa handitzean.

Errepideko garraioak berotegi-efektuko gasen ekoizpenean duen eragin handia dela eta, motordun ibilgailuen mugikortasuna murriztea kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia da.

Euskadin etxebizitzaren %70 baino gehiago 1980a baino lehen eraiki ziren (Euskadiko Energia Estrategia 2030), eta Eibarko parke eraikiaren %62,27k 50 urte baino gehiago ditu.

- **Energia berriztagarriak ezartzen laguntzea.**

Euskadiko etxebizitzaren energia-kontsumoa eraikinen kontsumoaren %56 da (2030erako Euskadiko Energia Estrategia), batez ere berokuntzaren ondorioz.

Kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarrien erabilera handitzeko euskal energia-politikarekin bat etorritik, bizitegi-erabilerako eraikinetan energia berriztagarriak ezartzea lortu nahi da. Eibarren energia berriztagarriak erabiltzen dituzten etxebizitzaren ehuneko txikiagoa da hain iraunkorrak ez diren beste energia batzuk erabiltzen dituztenean baino. Etxebizitzara bideratutako eraikinak gehiengoaren diren arren, eraldaketa-prozesua gainerako eraikuntzetan ere aplikatu behar da: industrialak, hirugarren sektorekoak eta administrazioaren eraikinak.

Era berean, hirian kontsumitzen den energiaren zati handi bat argiteria-sareari eta beste baliabide publiko batzuei dagokie, eta alderdi horiek kontuan hartu behar dira kontsumoa murrizteko eta baliabide eraginkorragoak erabiltzeko helburuen barruan.

- **Arkitektura bioklimatiko sustatu**

2021-2030 aldirako Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionalaren ekintza-ildoaren artean dago "eraikuntza-sektorean Klima-Aldaketarekiko Egokitzapena Integratzea", eta bertan planteatzen da eraikuntza erresilienteagoa lortzeko beharra, arkitektura bioklimatikoaren printzipioekin bat datozen konponbideekin.

Arkitektura bioklimatikoaren printzipioek klimara eta ingurumenera egokitutako irtenbideak sustatzen dituzte, energia-kontsumoa murrizten duten sistema pasiboekiko erosotasun termikoa bilatuz. Eraikuntzako eta birgaikuntzako inbertsio publikoak eta pribatuak irizpide bioklimatikoetara egokitzuz gara daitezkeen sustatu nahi da.

- **Klima-aldaketari aurre egiteko neurriak garatzea: lurzoruen iragazkortasuna hobetzea, landaredia eta karbono-hustubideak handitzea**

Giza pertzepzioaren ikuspegitik naturalizatutako berdeguneak izatearen abantailak eta osasunari dagokionez dituen abantailak deskribatu dira lehen, baina klima-aldaketaren ondorioak murrizteko ere garrantzitsua da. Hiriguneetan berdeguneak eta landaredia handitzea funtsezkoa da; eremu horiek klima-erregulatzaile gisa funtzionatzen dute, erosotasun termikoa hobetzen dute, eguzki-erradiazioa kontrolatzen dute, lurzoruen kopurua murrizten dute, haizea kontrolatzen dute, biodibertsitatea handitzen dute, airearen kalitatea hobetzen dute, bero-uharte efektua murrizten dute, karbono-hustubide gisa funtzionatzen dute.

Hirien hazkundeak lurzoruen okupazio handiagoa eragiten du, eta horrek lurzoruen iragazkortasuna murrizten du, azaleko jariatzeari eragiten dio. Hori arintzeko modua hirien hazkundera mugatzea eta horietan lurzoru natural iragazkorra handitzea da.

Bizitegi-erabilerako eraikinetan energia berriztagarriak ezartzea lortu nahi da.

Arkitektura bioklimatikoaren printzipioek klimara eta ingurumenera egokitutako irtenbideak sustatzen dituzte, energia-kontsumoa murrizten duten sistema pasiboekiko erosotasun termikoa bilatuz.

- **Hiria diseinatzea, zarataren aurka borrokatzeko neurriak hartuz (kaleak oinezkoentzat jartzea, elkarrekin bizitzeko eremuak, etab.), batez ere garraio-azpiegiturei lotutako inpaktua.**

Eibar luzetara hiru azpiegiturek zeharkatzen dute: saihesbideak, A8-ak eta trenbideak; horiek ingurumen-zarata handia eragiten dute. Hots-kutsaduraren foku horiei hiriko barne-trafikoa gehitu behar zaie, kale estuek arazoa areagotzen baitute. Akustikoki atsegina den hiria sustatzea bada helburua, non oinezkoa izango den protagonista, autoaren erabilera bigarren maila batean utziz. Lehen azaldu dugun bezala, ingurumenaren ikuspegitik trafikoa murrizteak abantaila asko ditu, baina ez dira gutxietsi behar zarata-maila txikiek hiriko bizitzan eragiten dituzten ondorio positiboak. Mugikortasun motorduna duten eremuen premiari egokitutako eta orekatutako konponbideak bilatu beharko dira, oinezkoentzako espazio eta ibilbide erosoak lortuz. Gehiegizko kutsadura akustikoak espazio horien erabiltzaile potentziala murrizten du eta pertsonen osasunean kalteak eragiten ditu.

Eibar bezalako hiri bateko hiri-giroaren kalitate akustikoa hobetzea ez da erraza, baina saihesbidearen eraikuntzarekin, eta saihesbide hori zarata-iturri berria den arren, hirira sartzeko puntu berriak eskaintzen dizkio hiriari, eta, horri esker, hiri-bilbea oinezkoentzat bihurtzeko beharrezko eraldaketa progresibo hori errazten da.

Gune lasaiak sortzea baloratuko da, trafiko-zarataren hedapena arintzeko, bai eremu espezifikotan, bai pantaila akustiko naturaletan, bai eraikuntza-elementuekin, eta abarretan izan ezik.

- **Ego ibaia udalerritik igarotzean birnaturalizatzea eta ikusaraztea.**

Horri dagokionez udalerrian lehenago egin diren jarduerak eragin positiboa izan dute, paisaiaren kalitatea hobetuz eta biodibertsitatea sustatuz. Oro har ura eta bereziki ibaia egoteak biztanleen bizi-kalitatea hobetzen du, osasuna eta gogoaldartea hobetuz.

Ego ibaiaren inguruan eta Urko eta Abontza ibaien ibilguetan egin daitezkeen esku-hartzeek gain, ibaiertzak hobetzeko prozesuei dagokienez, Ego ibaiaren zati handi bat hiriaren zati handi batean estalita dagoela ikusten duten esku-hartzeak ere positibotzat jotzen dira. Hiria eraldatzeko eta lehengoratzeko prozesuek kontuan izan behar dute, ahal den guztietan, aire zabaleko ibilguak berreskuratzeko aukera, erresilientzia-, ingurumen-kalitate- eta gutxitze-prozesuen ildoan birnaturalizazio-irtenbideak emanek klima-aldaketaren ondorioetarako.

Trafikoa murrizteak abantaila asko ditu ingurumenaren ikuspegitik, lehen azaldu dugun bezala, baina ez dira gutxietsi behar zarata-maila txikiek hiriko bizitzan eragiten dituzten ondorio positiboak.

Hiria eraldatzeko eta lehengoratzeko prozesuek kontuan izan behar dute, ahal den guztietan, aire zabaleko ibilguak berreskuratzeko aukera, birnaturalizazio-konponbideekin.

C.5 LURRALDEAREN OREKA EKONOMIKOA BILATZEA

“Hirietako erabilera anitzen nahasketa intrikatua ez da kaos modu bat. Aitzitik, ordena-forma konplexu eta oso garatua adierazten dute.”

Jane Jacobs

Eibarren ezaugarri nagusia industriar motor ekonomikoa izatea izan da, gaur egun egoerak aldatu egin dira eta Eibarko industriak udalerriko bizitza ekonomikoaren dinamizatzaile papera galdu du. Eraldaketa-prozesu horretan, hiriak bere dinamismoa eta bizitasuna berreskuratu behar ditu, jarduera dibertsifikatuen eta egungo eta etorkizuneko eskaeretara egokitutakoen garapena bultzatuz.

Hiria garapen ekonomikorantz bideratzea helburu duten jarduera-ildo batzuk planteatzen dira, hala nola:

- **Lehen sektoreari lotutako jarduerak garatzeko baldintzak optimizatzea, egungo erabileren erregulazioa berrikusiz.**

Lehen sektoreari lotutako jarduerak, hala nola basogintza eta nekazaritza eta abeltzaintza, funtsezkoak dira landa-ingurunean, eta, beraz, ez da eragotzi behar horien garapena beti muga batzuen barruan araututa egotea, landa-eremuak bertan behera uztea ekarriko lukeelako. Era berean, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera osagarriak eta dibertsifikatzeko jarduerak garatzea ahalbidetuko da, nekazaritzako ustiatzearen errentagarritasunari laguntzeko.

Natura-ingurunearen natura-balioen babesa eta bertako baliabideen ustiapena bateragarri egiteak baldintza berezi batzuk ezar diezazkieke zenbait eremuri, baina, betiere, sektorearen mantentzea zainduz, azken urteetako joera geldiarazteko.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak eta baimendu eta/edo debekatu beharreko erabilerei buruzko baldintzak berrikusi beharko dira, eremu horretan inplikaturako eragile nagusien parte-hartzearekin.

- **Tokiko merkataritza mantentzea eta hobetzea, hiri-ibilbideak sortuz eta indartuz**

Hirugarren sektorea da gaur egun udalerrian pisurik handiena duena, baina establezimendu mota desberdinak bereiztea komeni da. Azken urteotan azalera handien edo tamaina ertainekoen azalera handituz joan da hiriko hainbat tokitan, nahiz eta Otaola aldean presentzia handiagoa izan. Merkataritza mota honek presio handia egiten dio kaleko txikizkako merkataritzari, eta azken hori hiriko gizarte-bizitzako jarduera-talde dinamizatzaileenetako bat da. Era berean, ezin da alde batera utzi bide elektronikoaren bidezko erosketen hazkundea, tokiko merkataritzaren etorkizunean kontuan hartu beharreko elementu gisa ere eratzeko baita.

Kontua da, beraz, hiri-esparru egoki bat ezartzea, sektoreen arteko orekari eutsiko diona, bereziki auzoko merkataritza zainduz, horrek dakartzan ondorio positiboengatik.



*Gurpilen muntatzaileak eta zentratzaileak G.A.C. enpresan.
Iturria: Eibarko Udal artxiboa*

Kalitateko hiri-espazio komertzialak aztertzea eta proposatzea, oinezkoentzat atseginak, irisgarriak, lasaiak eta balizko erabiltzaileengana hurbiltzeko alternatibak dituztenak, bai tokikoak, bai beste udalerrri batzuetakoak. Eibarren trinkotasunak, dentsitate handiarekin, saltoki txikien biziraupena errazten du, baina honek ingurune zaindu eta atsegin baten laguntza behar du. Auzoek erdigunearekin dituzten harremanak ibilbide irisgarrien sare batean oinarritu behar dira, egoiliarren merkataritza-harremanak errazteko.

- **Industrialdeen hiri-kalitatea eta irisgarritasun-baldintzak hobetzea, horien betetzea sustatzeko.**

Industria-jarduera indartzeko, beharrezkoa ikusten da lehendik dauden industrialdeetarako irisgarritasuna hobetzea, osorik okupatuta ez daudenei lehentasuna emanez, eta hurbileko inguruneari orain ez duten gutxieneko hiri-kalitatea ematea ere bai, inguruan instalatu nahi duten enpresentzat erakargarriagoak izan daitezen.

Eibarko industrialde batzuek sarbide oso zailak dituzte, malda handiko lurzoruekin, eta horrek industria-pabiloi berriak ezartzea zaildu egiten du. Gainera, oinezkoentzako irisgarritasunak arazo larriak ditu. Gai horiek guztiek hiriarekin erlazionatzeko modua berriz aztertu behar izatea eskatzen dute, baliabide hori optimizatzeko.

Industrialdeak hobetzeari kontu estrategikoa da, interes eta aberastasun handia ematen baitio udalerrian ekonomiari eta enplegua sortzeari.

- **Zaharkitutako industrialdeak birmoldatzea.**

Industrialdeen zaharkitzea industria-hiri askoren arazoa da, eta horiek birmoldatzea ez da lan erraza, besteak beste, kutsatutako lurzoruen gainean egoten direlako eta horrek erabilera potentzialak mugatzen dituelako, eta zenbait degradazio-egoeran daudelako.

Poligono horiek bertan behera uzteak hiri zatikatzen du, eta, gainera, hiriaren irudiari kalte egiten dio; horregatik, oso garrantzitsua da birmoldaketak duen zailtasuna gorabehera, hura indartzeko ahalegina egitea, horrela bazterreko eremu izateari utz diezaioten eta bizitza berria eman diezaieten, etorkizuneko erronketara egokitzeko zerbitzu berriak erantsiz. Industrialdeak birmoldatzeak ez du esan nahi eraikin guztiak mantendu behar direnik, baldin eta horrela birsortzen badira eta etorkizuneko erreferentzia berri bihurtzen badira.

- **Bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak hiri-bilbean biziberritzea, dagoen industria-ondarean oinarrituta.**

Hurbileko merkataritza sustatzeko ildoari jarraituz, etxebizitza-eraikinetako beheko solairuak etxebizitzekin zerikusia duten merkataritza-jardueretarako erabiltzea bilatzen da, hala nola elikadurarako, farmazietarako eta, aldi berean, ingurumen-kutsadurarik sortzen ez duten jardueretarako. Era berean, industria-eraikinak berrerabiltzea ingurumen-inpaktu txikiko hirugarren sektoreko eta industria-sektoreko jarduera ekonomikoekin erabiltzeko, erabileren nahasketa bultzatuz eta pixkanaka hondatzea saihestuz, Eibarko iragan historikoa zaintzearekin batera. Interesgarria da, halaber, industria-eraikin zaharkitu horietakoren bat ekipamendu gisa erabiltzeko aukera baloratzea.

Hiria eraldatzeko eta lehengoratzeko prozesuek kontuan izan behar dute, ahal den guztietan, aire zabaleko ibilguak berreskuratzeko aukera, birmaturalizazio-konponbideekin.

Industrialdeak hobetzeari ekitea estrategikoa da, interes eta aberastasun handia ematen baitio udalerrian ekonomiari eta enplegua sortzeari.

- **Turismo-sektorea garatzeko baldintzak hobetzea**

Aspaldidanik ari dira lanean udalerrian eta eskualdean dauden interes turistikoko faktoreen potentziala lantzen, haien potentziala tokiko ekonomian txertatzeko. Beren erakargarritasuna gidatu duten elementu interesgarriak edo erakargarriak sustatzea, hain ezagunak ez diren beste batzuk sortzearekin edo berreskuratzearekin batera, hiri-eredua eta haren ingurune naturala definitzeko garatu beharreko helburuak dira.

Zerbitzu eta arreta ona, instalazioen hobekuntza, hiri-espazioa erosketetarako eta aisialdirako ingurune atseginean eraldatzea eta instalazio espezifikoetan nahiz ingurune naturalean garatutako kirol-jarduerak dira eredua hautatzerakoan kontuan hartu beharreko gaien adibideak.

C.6 HIRI ATSEGINAGOA ETA ERAKARGARRIAGOA IZATEA

*"Hiriek mundu guztiari zerbait emateko gaitasuna dute, mundu guztiarentzat sortzen direnean bakarrik."
Jane Jacobs*

Eibar bizitza sozial handia duen hiria da, bertako biztanleek berarekin bat egiten dute eta kide izatearen zentzua dute, egindako mahai tematikoetan ikusi zen bezala. Nahiz eta onartzen duten espazio publikoen kalitatea ona ez izan, asko erabiltzen dituzte, Eibarko biztanleek komunitatean gozaten dute bizitzaz, baina, era berean, kaosa edo desordena sentazioa eragiten duen hiria dela ikusten dute, eta hiri-bilbean berdegune gutxi daudela, eta horrek ez du bisitariarentzat erakargarri egiten.

Helburu honek, hiri atsegina eta erakargarriago baterantz, aurreko bost helburuak zeharka biltzen ditu, lurraldearen, kultura-ondarearen, jasangarritasunaren eta klima-aldaketara egokitzearen, oreka ekonomikoaren eta abarren babesarekin zerikusia baitu. Azken finean, hiriaren pertzepzioari, harreman sozialari eta bizi-kalitateari buruzko alderdiak.

Ondorengo jardun-ildoak ezarri dira:

- **Aspaldiko posizionamendua berreskuratzea eskualdeko beste udalerrri batzuekiko, bere alderdi diferentziala indartuz.**

Lehen aipatu den bezala, Eibarrek industrian izan zuen bere elementu bereizgarria, urteen poderioz hori galduz joan da, gaur egun hiria desberdina da eta bere bilakaeraren zati gisa bere esentzia berria birplanteatu behar da eskualde barruan leku nagusi bat hartzeko, HAPOn planteatutako proposamenak Eibarrek izan nahi duen hiri berriarekin lerrokatuta egongo dira.

- **Hiria berroneratzea, eraikitako parkea birgaituz, industriakoa zein bizitegikoa.**

HAPOn berrikuspenean proposamenak egiteko industria-ondarea birgaitzeak eta egoera txarrean dauden etxebizitzak berroneratzeak hainbat aukera ematen ditu. Eredua jarduera jasangarriagoi dagokie; izan ere, lehendik dauden eraikinen berrerabilpena eraginkorragoa da ingurumenaren ikuspegitik, eraistea eta berreraikitzea baino; integratzaileagoak dira, eraikitako ondarea kontserbatzeak hiriaren nortasuna eta izaera soziokulturala berreskuratzea baitakar; bideragarriagoak dira, birkokatze- eta lekualdatze-kargak eta beste eragin batzuk murrizten dituelako, kudeaketa errazten duelako eta, beraz, jarduera horiek garatzea ahalbidetzen duelako.

Eraikitako parkea mantentzeak eta leheneratzeak hiriko erdigunetik urrun dauden eremuetan etxebizitza berriak garatzeko beharrak geldiarazten ditu, honek mugikortasunari, irisgarritasunari eta gizarte-bizitzaren aberastasunari dagokienez suposatzen duenarekin.



*Isocarro de la Tintorería Margola
Iturria: Eibarko Udal artxiboa*

Bestalde, kontuan hartu behar da industria-partzeletako deskontaminazio-kargak erabakigarriak izan daitezkeela erabilera-aldaketa proposatzen duten jardueren bideragarritasunerako. Beste kasu batzuetan, leheneratzeak eraikinak eraistea ekar dezake, harrotzea eta espazio libreak sortzea errazteko.

Eraikinak eta hiri-inguruneak birgaitzeak eta leheneratzeak erraztu egiten du, aldi berean, etxebizitzaren kalitatea hobetzea, bizigarriago bihurtuz eta jasagarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren irizpide berrietara egokituz.

- **Hirian abandonatutako eraikinek osatzen dituzten hiri-hutsuneak ezabatzea, erabilera eta bizitza emanez, erabilera-mistotasunaren alde eginez.**

Etxebizitzarekin bateragarriak diren erabilerak dituzten eraikin hutsak okupatzeak (tailerrak, hirugarren sektorea eta zuzkidura-erabilerak) Eibarko industria-ondareari eusten laguntzen du, hiri-bilbean erabilerak nahastuz. Eragiketen bideragarritasuna erraztea, arrazoizko denboran garatu ahal izateko beharrezkoa da eta, azkenik, hiriaren kohesioa berreskuratzeko. Hutsik dauden eraikin batzuek nolabaiteko degradazioa eragiten dute ingurunean, eta horrek suposatzen duen segurtasun-pertzepzioa, genero-ikuspegitik nabarmentzeko moduko alderdia da.

Eraikin hauen bizitza-espazio berri bihurtzea ezinbestekoa da hiri-bilbearen kohesioari eusteko, baina, kasu batzuetan, hiriko eremu bat hirigintzaren aldetik berrantolatzeak aukera planteatu beharko da, espazio erakargarri berriak sartzeko aukera emanez.

- **Hiri-ingurunea hobetzea, egungo espazioak neurri eta irisgarritasun-baldintza egokiz hornituz eta hondatuta daudenak berrituz.**

Norbera bizi den lekuak, zalantzarik gabe, osasun fisikoan zein mentalean eragina du, espazio horietara iristea zaila bada, ia ez balego bezala, biztanleriaren zati handi batek, mugikortasun urriko adinekoek edo haur-kotxetxoak dituzten pertsonak, erabili ezin dituztelako, espazio publikoetara sartzeari uzten diote, baldin eta espazio horiek ez badituzte irisgarritasun-neurri eta -baldintza egokiak.

Eibarko hiriaren ezaugarri fisikoek urteetan zehar irisgarritasun-arazoei irtenbideak bilatzera behartu dute. Ildo honetan asko aurreratu da, baina HAPUren berrikuspena anbizio handiagoko aukera da irismen handiagoko alternatibak planteatzeko orduan. Auzoetan parke edo plaza berriak sortzea edo indartzea, auzo bakoitzari nortasun eta autonomia propioa emanez lortu nahi den helburua da.

Eibarko hiriaren ezaugarri fisikoek urteetan zehar irisgarritasun-arazoei irtenbideak bilatzera behartu dute. Ildo honetan asko aurreratu da, baina HAPUren berrikuspena anbizio handiagoko aukera da irismen handiagoko alternatibak planteatzeko orduan.

- **Hiritarrentzat hiririk atsegina egitea, egungo bizitza sozialaren aberastasuna mantenduz.**

Plangintzak hiria modelatu dezake, hiria seguruagoa, osasungarriagoa, atsegina eta erakargarriagoa izan dadin. Hau lortzen da:

- Kaleen eta espazio publikoen erosotasuna hobetuz, landaredia handituz, batez ere hosto erorkorreko zuhaitzen bidez, hilabete beroetan itzala lortzeko, haizeari hesiak eta erosotasun akustikoa ezarriz, hiriko zenbait eremutan ibilgailu astunen trafikoa baztertuz, baimendutako abiadura murriztuz, galtzadetan zoladura xurgatzaileak erabiliz, pantaila akustikoak.
Hirian erosotasun termikoa lortzeko, lehenik eta behin mikroklima, eguzkialdia, haizea eta urtean zehar parke eta plazetan sortzen diren itzalak aztertu behar dira, etab.
- Oinezkoen edo txirrindularien autoaren aurreko mugikortasuna hobetuz, oinezkoen ibilbideak edo mugitzeko modu bigunak egokiro kokatuz, estrategikoki kokatutako disuasio-aparkalekuak kokatuz, hiriko puntu guztietara azkar eta eroso iristeko, bai bertakoentzat, bai erosketentzat, bai zerbitzuentzat.
Horrekin batera, garraio publikoko zerbitzuak edo horietarako irisgarritasuna hobetu beharko dira.
- Guneak hobetuz, puntu beltzak edo gune degradatuak ezabatuz, herritar guztientzat bizimodu lasaia bermatuz, bereziki pertsona kalteberentzat, emakumeentzat, adinekoentzat, etab. Egoitza-eraikinetan erabilera mistoak sustatzea, saltoki txikien iraupena defendatuz, hutsik dauden eraikinak berreskuratuz, hiria gozatzera gonbidatzen duten ekintzak dira.


- **Hiri-espazioak diseinatzea, herritar guztien beharrak kontuan hartuta, batez ere emakumeenak, haurren eta adinekoenak**

Eibar pertsona guztiak seguru sentituko diren hiri bihurtzea, edozein ordutan bere espazio publikoak erabili ahal izango dituzten, non norbera integratuta sentituko den, gizarte-kohesioa sustatuko den kolektibo kalteberen bakardadea prebenitzeko modu gisa, hala nola adinekoen bakardadea, zahartze aktiboa erraztuko duena, aire zabalean jarduerak fisikoak egiteko espazioekin.

D HAPO BERRIKUSTEKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

Aurreko atalean zehaztutako helburu orokorrek eta jarduketa-ildoek osatzen duten esparruan, hiriko eremu bakoitzaren diagnostikoan hautemandako arazoei irtenbidea ematen dieten eta hiri-ereduaren euskarri gisa balio duten jarduera/proposamen batzuk planteatzen dira. Hiri-kirurgiako parte-hartzeak direnez, zonaka egitea erabaki da.

Arazo bakoitzerako, alternatiba desberdinak planteatzen dira, batzuk ala besteak aukeratu, hiri eredu ezberdin bati forma emango zaio, baina betiere helburuekin bat etorritik. Zenbait alderditan, mugikortasun-ereduari buruzkoan adibidez, planteatutako alternatibek ez lukete hiri-eredua aldatuko, guztiak ibilgailu motorizatu partikularren presentzia murriztera, oinezkoa lehenestera eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzera bideratuta baitaude; beste batzuetan, ordea, Ego ibaia udalerritik igarotzean ikusaraztearen kasuan bezala, aukeratutako alternatibak eragin handiagoa izango luke norabide jakin batean. Alternatibak fitxetan jasoko dira, errazago ulertzeko, eskema honetan adierazitako ordenari jarraituz.




LEYENDA

	PEATONAL		EDIFICIO ACTIVIDADES ECONOMICAS
	VIALIDAD RELLENA		PARCELA ACTIVIDADES ECONOMICAS
	BIDEGORRI		EDIFICIO EQUIPAMIENTO PRIVADO
	AREAS VERDES		PARCELA EQUIPAMIENTO PRIVADO
	RÍO		EDIFICIO EQUIPAMIENTO PUBLICO
	APARCAMIENTO		PARCELA EQUIPAMIENTO PUBLICO
	PASEO SOBRE LÍNEA TREN		CUBIERTA TRANSITABLE
	EDIFICIO RESIDENCIAL		



OTAOLA – EGUNGO EGOERA



Hirian esku hartzea sustatzea, hiria berroneratzeko eragiketen bidez



Kultura-ondarearen katalogoa berrikustea.



Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna sustatzea, pasealekuak eta bidegorriak sortuz eta hiri-inguruko oinezkoentzako bideak berreskuratuz.

Ekialde-mendebalde oinezkoentzako/bizikletentzako pasealekua osatzea, hiriaren ardatz egituratzaile gisa, eta inguruko udalerriekin lotzea.

Hiria diseinatzea, zarataren aurka borrokatzeko neurriak kontuan hartuta (kaleak oinezkoentzat jartzea, elkarrekin bizi diren eremuak, etab.), batez ere garraio-azpiegiturei lotutako inpaktua.




Tokiko merkataritza mantentzea eta hobetzea, hiri-ibilbideak sortuz eta indartuz.

Zaharkitutako industrialdeak birmoldatzea.

Bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduerak ekonomikoak hiri-bilbean biziberritzea, industria-ondarean oinarrituta.



OTAOLA - PROPOSAMENA 1



OTAOLA PROPOSAMENA 1

Otaola hirira sartzeko ateetako bat da, gaur egun duen itxurak nolabaiteko kaos sentrazioa transmititzen du; horregatik berrantolatzea proposatzen da.

Berdintsunaren pasealekua eta bidegorria trenaren geralekuan amaitzen dira, eta, jarraipena eman ahal izateko, gasolindegia erdiko espaziora eramatea proposatzen da; horrela, lotura egokia lortzen da tren-geltokiaren eta unibertsitatearen artean.

Ikasleen egoitzaren aurrean espazio librea planteatzen da, Torrekoa kaletik ere sar daitekeena, hau da, haren parean dagoen nabea birkokatzen delako.

Hiriko sarbidea Subakutuen Ospitalearekin oinezkoentzat lotzeko, supermerkatuaren aurrean dagoen pasealekua luzatzen da, bi norabideetan ibaiaren ibilguaren hegoaldeetik. Paseoa Ospitalerako norabidean irekiko litzateke, eta Ospitalearen hegoaldean planteatutako berdegune berriarekin lotuko litzateke.


Paseo honekin, Otaola kalearen ia paraleloan, oinezkoen zirkulazio aukera berria eskaini nahi da Subakutuen Ospitalera iritsi ahal izateko. Baserria dagoen partzelaren iparraldean etxebizitza berria egitea planteatzen da.

Baserriaren eta Subakutuen Ospitalearen artean dauden eraikinak eraitsi egingo dira, eta ingurua berrantolatuko da, hirugarren sektoreko erabilera nahiz aparkalekua izan dezaketen eraikin berriak kokatuz.

Amañako Dorreei dagokionez, Berdintsun pasealekuaren eraikitzearekin batera, dorreen arteko plazak, kota baxuenean, hondar-espazio izatetik auzoarentzat potentzial handia duten espazio izatera igaro dira, pasealekuaren mailan baitaude; horregatik, dorreen beheko solairuen erabilerak arautzea proposatzen da, inguruan bizia berreskuratzeko.



OTAOLA – PROPOSAMENA 2



OTAOLA PROPOSAMENA 2


Otaolarentzako bigarren proposamena ez da aurrekoa bezain anbiziotsua, nahiz eta, aldi berean, gasolina-zerbitzugunea birkokatzea aurreikusten duen; hala ere, oinezkoentzako pasealekuarekin jarraitzea planteatzen da, ibaiaren ibilguaren iparraldetik, zubi berri baten bidez, lehendik dauden jarduera ekonomikoetarako eraikinak mantenduz.

Beraz, gaur egun existitzen dena baino irismen gutxiagoko alternatiba da.

Udal katalogoa berrikustea planteatu da, Zamakola Tailer-etxea, Eusko Jaurlaritzaren kultura-ondasunen katalogoan sartuta dagoena, eta Eibarko Zeramikako tximinia gehituz. Tximinia bi eraikinen artean sartuta dago, eta, beraz, ezinezkoa da nolabaiteko perspektibarekin hautematea. Hala, tximiniari balioa eta protagonismoa emateko, bere inguruko espazioa libre uztea proposatzen da. Horrela, plaza baten aurrean egongo litzateke, eta Ospitaletik, Otaola kaletik eta trenbidearen gaineko pasealekutik hauteman ahal izango litzateke. Babes-proposamena alternatiba guztientzat planteatzen da.



OTAOLA - PROPOSAMENA 3




OTAOLA PROPOSAMENA 3

Proposamen hau hiru proposamenen artean anbiziotsuena da, unibertsitatearen mugakide den Otaola kalearen hegoaldeko aurrealdean hirugarren sektoreko erabilera industrialeko eraikin multzoa planteatzen da, hirugarren sektoreko eraikinak Otaola etorbidearen parean kokatzen dira itxura atseginagoa emateko, eta lursailaren atzealdean industria-eraikinak kokatuko lirateke. Horrekin, gainera, ibilgailuen eta kamioien zirkulazioa lurzatiaren barrualdekoa izatea lortzen da. Aldi berean, industria-eraikin horiek A-8 autobidearen eta behe-kotaren arteko desnibela estaltzeko aukera ematen dute. Gaur egun, 15 metro inguruko horma sendo bat dago, itxura ez oso atsegina duena.

Eibarrerako sarbidearen hiri-osaera hobetzeko, sarreran parke bat egitea proposatu da, unibertsitatea tren-geltokiarekin eta Berdintasunaren pasealekuarekin lotuko lukeena. Bigarren berdegune bat ere proposatu da, ibaiaren aurreko pasealekuaren erremate gisa balio duena. Haren aurrean, eraikin berezia egongo litzateke, hirugarren sektoreko edo hezkuntzako erabilera izango lukeena, eta, bere altueragatik, hiriaren mugarri gisa hautemango da, hiriaren arreta bereganatuz.

Alternatiba honetan, tren-geltokiaren ondoan dagoen gasolindegia kentzea proposatzen da, eta, esku-hartzearen bideragarritasuna errazteko, Zamakola lantegi-etxearen eta supermerkatuaren artean dagoen pabiloi bakarraren ordez bizitegi-erabilerako eraikina jartzea aurreikusten da.



Egungo espazio publikoa handitzea, hiria harrotuz.

Etxebizitza eskuragarri eta duinen beharrei eman beharreko erantzuna planifikatzea, etxebizitza berriak birgaitze- eta berroneratze-prozesuekin konbinatuz.

Hirian esku hartzea sustatzea, hiria berroneratzeko eragiketen bidez.

Auzoak espazio publiko eta ekipamendu nahikoz hornitzea, zentroarekiko mendekotasuna murrizteko.




Ibilgailu pribatuaren presentzia murriztea hiri-bilbean, beste mugikortasun-modu iraunkorrago batzuen aurrean.

Hiria diseinatzea, zarataren aurka borrokatzeko neurriak kontuan hartuta (kaleak oinezkoentzat jartzea, elkarrekin bizi diren eremuak, etab.), batez ere garraio-azpiegiturei lotutako inpaktua.

AMAÑA – EGUNGO EGOERA



AMAÑA - PROPOSAMENA 1



AMAÑA PROPOSAMENA 1

Amañak arazoak ditu espazio libreei edo plazei dagokienez, urriak eta iristeko zailak direlako.

Alde horretatik, Ziriako Agirre kalea “zaku-hondo” batean amaitzen da, eta hori da, hain zuzen ere, auzoko gune estrategiko batean plaza txiki bat kokatzeko aprobetxa litekeen toki horizontal bakarrenetako bat. Gainera, atzean dagoen parke txikira sartzeko aukera emango luke. Kenduko liratekeen aparkaleku-plaza gutxien galera konpentsatuko litzateke, Amaña ikastetxe publikoarekin mugakide den Artegieta kalean aparkaleku-erakin berria aurreikusten baita. Era berean, El Salvador elizaren hegoaldeko eremua berrantolatzea proposatzen da, etxebizitza-bloke bat kokatuz eta espaloiz hornituz.



Egungo egoera



Iradokitako egoera



AMAÑA PROPOSAMENA 2

Aurreko proposamenaren oinarriko printzipioei eutsiz, alternatiba honetan aurreko proposamenean aurreikusitako aparkalekua iparralderago birkokatzea proposatzen da, saihebidetaren irteeratik Karlos Elgezua kalera oinezkoentzako irteera duen sarbide zuzena izateko.


Saihebidetik zuzenean aparkaleku bat eskaintzea izango litzateke helburu nagusia, auzoarekin erdiguneko harremana eskainiz, neurri batean kale horietatik igarotzen diren ibilgailuen joan-etorriak saihestuz.

Aurreko alternatiban aparkaleku gisa aurreikusitako lurzatia bizitegi-erabilerarako hartuko litzateke (babes publikoko etxebizitzak), eta hor kokatuko lirateke aurretik deskribatutako aparkaleku berriak eragingo litzuzkeen etxebizitzak.

AMAÑA – PROPOSAMENA 2



OTAOLA-ARGATXA – EGUNGO EGOERA



Egungo espazio publikoa handitzea, hiria harrotuz. Etxebizitza eskuragarri eta duinen beharrei eman beharreko erantzuna planifikatzea, etxebizitza berriak birgaitze- eta berroneratze-prozesuekin konbinatuz. Hirian esku hartzea sustatzea, hiria berroneratzeko eragiketen bidez.

Hiri-bilbean erabileren mistotasuna sustatzea. Auzoak espazio publiko eta ekipamendu nahikoz hornitzea, zentroarekiko mendekotasuna murrizteko.




Hiria diseinatzea, zarataren aurka borrokatzeko neurriak kontuan hartuta (kaleak oinezkoentzat jartzea, elkarrekin bizi diren eremuak, etab.), batez ere garraio-azpiegiturei lotutako inpaktua.



Tokiko merkataritza mantentzea eta hobetzea, hiri-ibilbideak sortuz eta indartuz.



OTAOLA - ARGATXA – PROPOSAMENA 1



OTAOLA-ARGATXA PROPOSAMENA 1

Otaolako eremua gero eta tertziarizatuago dagoenez, eta eremu horretan kokapen estrategikoa aprobetxatuz etorkizuneko ekipamenduak hartzen joateko, hiria puntu horretara hurbiltzen joateko aukera planteatu da.

- Otaola, erabilerarik gabeko partzela industrialean, ospitalearen ondoan, aparkaleku batekin osatzeko.
- Matsaria, tren-geltokitik hurbil, aparkaleku batekin osa daitekeena. Kontuan izan behar da alternatiba hori posible dela soilik sarbideko industrialdea berrantolatu bada, saihebiderearen sarbidetik Matsaria kaleko sekzioa nahikoa ez delako.



Unibertsitateko geltokia

- Azitain, egungo zerbitzugunearen plataforman, tren-geltokiaren ondoan.

E.5.2 HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK


Oro har, sareek ez dute aldaketarik izan, ezta handitzerik ere; izan ere, lurzoru urbanizatu berrien hedapenari dagokionez hiria ez da hazi; hala ere, salbuespen gisa, telekomunikazio-sarea nabarmendu behar da; izan ere, telekomunikazio-sare horrek garapen handia izan du, horietan izan den aurrerapen teknologikoaren ondorioz. Eta Aurrerapen honetan jasotako hirigintza-antolamenduko proposamenek ere ez dutenez alderdi horretan hazkunderik aurreikusten, ez da beharrezkoa izango sare horiek garatzeko alternatibak planteatzea, hala nola hornidura, saneamendua, gas-banaketa eta abar, eta horiek kasu bakoitzean eskatzen diren beharretara egokitu beharko dira.

Noizean behin, HAPO berrian landu eta aurreikusi behar diren gai batzuk nabarmendu daitezke, lurzoruaren okupazioan funtsezko aldaketarik ez dakarten arren, titulartasun publikoko lurzoruetatik, kaleetatik eta errepideetatik eta ibilguetatik igarotzen baitira. Horien artean, honako hauek:


- Eibarko udalerriko saneamendu-sistema hodian adarkatze-sistema batean oinarrituta dago, bai euri-urak eta ur beltzak bereizteko sareetan, bai sare bateratuetan. Horietako batzuk Ego ibaira isurtzen dira, eta beste batzuk Ur Partzuergoak kudeatzen duen hondakin-uren kolektoreak jasotzen ditu. Kolektore hori Debako kolektore nagusira bideratzen da, eta hark ur horiek Apraitzeko (Elgoibar) hondakin-uren araztegiara garraiatuko ditu. Ur beltzen sare guztiak arian-arian sartu beharko dira araztegiaren, ahal den neurrian, ibai-ibilguak ingurumenaren aldetik lehengoratzeko. Bereziki, garatzeko dauden lanen artean, Goitondo industrialdetik (Mallabia) datozen hondakin-uren arazoa lantzeko zain dago.
- Telekomunikazio-sareari dagokionez, landa-ingurunean hobekuntzak proposatu behar dira, udalerriko eremu guztietan emandako zerbitzuak parekatuz.
- Hainbat hiri-eremutan dagoen uholde-arriskuaren aurrean, arriskua minimizatzen duten irtenbideak bilatu behar dira, irekitako tartekak hobetu, lurperatutako beste batzuk ireki eta abar. Hiri-eremu horiek honako hauek izango lirateke:
 - o Azitain eta Murrategi sarbidea.
 - o N-634 errepidearekin lotutako industrialdeak, errepide nazionalak saihasbidearekin bat egiten duen biribilgunearen ekialdean, AP-8 autobidearen ekialdeko irteeran eta Azitain industrialderako sarbidean.

Bestalde, ondorengo hiriguneek ere uholde-arriskua dute, baina neurri txikiagoan:


- o Ibur-erreka industrialderako (Zaldibarko udalerrian dago) eta Eibarko Unibertsitaterako sarbidea.
- o Ubitxa eta Juan Gisasola kaleak, Isasi eta Unzaga arteko bidegurutzera iritsiz.
- o Txontako kale Nagusia, Urkizu pasealekuraino.




Hornidura-sarea




Saneamendu-sarea




Elektrizitate-sarea



Gas sarea



Telefonia-sarea



Zuntz-optikoa

E.6 JASANGARRITASUNA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Hirigintza-plangintza iraunkorra eta eraginkorra lortzeko, ez da soilik lurzoru berriaren erabilera murriztera bideratu behar, bizitegi- eta industria-lurzoruak birgaitu eta leheneratzeko joera hartuta; aitzitik, hainbat kontzeptu hartu behar dira kontuan, hala nola mugikortasuna, osasun publikoa, zerbitzu-azpiegiturak, etab.

Ildo horretan, hiri-zerbitzuen sareak lehenetsiz, hala nola hornidura, saneamendua, argiteria publikoa, hondakinak eta abar, errepide-azpiegituren gaintik, eta berdeguneetarako sarbide egokia duen biodibertsitate-indize egokiarekin, hiri-ingurune iraunkorragoa eta hiri osasuntsuagoak bultzatuko dira.

Era berean, mugikortasun iraunkorra eta ura eta energia bezalako baliabideen erabileraren eraginkortasuna sustatzea funtsezkoa da hirien garapen iraunkorrerako, akuiferoen gaineko inpaktua, hiri-hondakinen sorrera eta airearen kutsadura minimizatuz.

COP21 Klimari buruzko Parisko Konferentzian ezarritakoa kontuan hartuta, klima-aldaketa saihesteko, honako neurri hauek aurreikusten dira:

- Hondakinak eraginkortasunez kudeatzea, ekonomia zirkularreko ereduak aplikatuz.
- Uraren ziklo integralaren kudeaketa eraginkorra, euri-ura zein hondakin-ura berrerabiliz, eta, aldi berean, lurpeko uren eragina minimizatuz.
- Energiaren kontsumoa aurrezteko estrategiak, energia eraginkortasunez erabiliz, gizartea kontsumo arduratsuan kontzientziatuz, eskaria murriztuz, eraikin berriak eraginkortasun handieneko irizpideekin diseinatu eta eraikiz eta egungo eraikinak birgaituz.
- Energia berriztagarriak inplementatzea sustatzen duten estrategiak, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera eraikin berrietan sortutako energia-ekoizpena txertatuz, eraikinetan energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten sistemak aplikatuz, hala nola sistema geotermikoak, biomasa-sistemak, eguzki-sistema termikoa, fotovoltaikoa, aerotermikoa, eta oso eraginkorrak diren beste teknologia batzuk ere bai, hala nola kogenerazio-sistemak.
- Hiriko CO₂a hartzea sustatzea, basoak eta mendiak basoberrituz, eta degradatutako hiri-lurzoruak lehengoratzea, CO₂ hustubide bihur daitezen.
- Isuriak murriztea eta elikagaietan auto-hornikuntza lortzea, tokiko produktuak eta bertako merkataritzak sustatzen duen kontsumoa indartuz.

Mugikortasun iraunkorra eta ura eta energia bezalako baliabideen erabileraren eraginkortasuna sustatzea funtsezkoa da hirien garapen iraunkorrerako, akuiferoen gaineko inpaktua, hiri-hondakinen sorrera eta airearen kutsadura minimizatuz.

Arestian azaldutakoa kontuan hartuta, hainbat kontzeptu planteatzen dira garapen jasangarriaren ideia horiek etorkizuneko hirigintza-plangintzan integratzeko.

Alde batetik, ureztatze-lanetarako euri-urak erabiliz, ur-kontsumoa murriztuko litzateke, kostu ekonomikoa eta ekologikoa murriztuz. Hori drainatze jasangarri baten bidez lor daiteke, eta bertan euri-ura bilketatik gertu dauden eremuetara bideratuko litzateke. Horrela, uraren aprobetxamenduaz gain, jariatze-denbora handituko litzateke eta hiriko uholde-arriskuko eremuetan metatuko litzatekeen ur-kopurua murriztuko litzateke. Era berean, euri-ura metatu ahal izango litzateke horretarako diseinatutako gordailuetan, ondoren ureztatzeko ur gisa erabiltzeko; horrela, lehen aipatutako helburu berberak lortuko lirateke.

Uraren kontsumoa murrizteko ezarritako fokuarekin jarraituz, zenbait metodo daude edateko uraren erabilera eraginkorragoa egiteko. Ohikoenen artean, tantaka ureztatzea eta iturri hidriko ez-konbentzionalak erabiltzea daude. Iturri horiek eta ohikoak ez dira berdinak, ur birziklatua edo gatzgabetua erabiltzen baitute. Eibar Aixola eta Urkuluko presetatik lortzen den uraz elikatzen da. Presa horiek elkarren artean lotuta daude, eta eskualdea inguratzen duten mendietatik datozen urek hornitzen dituzte. EUAa Otaola hiribidean dago, eta Gipuzkoako Uren Partzuergoak kudeatzen du Aixolako presatik datorren ura arazteko. Iturri ez-konbentzional horiek erabilia, murriztu egingo litzateke erabilitako ur garbiaren kopurua.

Argiteria publikoari dagokionez, argiztapen eraginkorra argi-kutsadura saihestera bideratu behar da, eremu bakoitzerako argiztapen-maila egokia erabiliz eta gehiegizko argiztapena saihestuz. Arrisku bereziko eremuetako argiztapenean arreta jartzea garrantzitsua da, adibidez, ibaian estali gabeko eremuetan edo genero-ikuspegia dela-eta argiztapen handiagoa behar duten eremuetan. Kontsumo txikiko eta mantentze-kostu txikiko argiztapen-sistema aukeratuko da, eta hurbileko sentsoreak instalatu ahal izango dira eremu jakin batzuetan, beharrezkoa ez den energia alferrik ez galtzeko.

Energia elektrikoa lortzeko, sorkuntza-sistema berriztagarriak lehenetsiko dira, hala nola eguzki-energia termikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, eolikoa, mini eolikoa, biomasa, geotermikoa edo bero-ponpa.

Etxebizitza guztiak gas naturalez hornituko direla bermatuz, gas kutsakorren kopurua murriztea lortuko da. Gas naturala galdara indibidualen sistemak baino askoz eraginkorragoak eta seguruagoak diren EUB sistemen funtzionamendurako ere erabili ahal izango da.

Telekomunikazio-antenak instalatu behar direnean, arreta berezia jarriko da bereziki sentikorrek diren eraikinak dituzten eremuak saihesteko, hala nola ikastetxeak, egoitzak, ospitaleak eta abar.

Hondakinen bilketa pneumatikoa egokiena izango da, eta, beraz, egokia litzateke sistema hori hirian nola instalatu aztertzea. Hondakinak tratatzeko plantak, garbiguneak eta zabortegeak honako egoera honetan daude: Eibarren 2020ra arte sortutako hondakinak Zaldibarko Eitzaga auzoko zabortegira eramaten zituzten, baina zabortegi horretan izandako istripu larriaren ondoren Gasteizko Gardelegiko zabortegira eraman zituzten. Udalerriak hiru "garbigune-txiki" ditu, hainbat gunetan banatuta, baita garbigune bat ere Azitaingo industrialdean. Bildutako hiri-hondakinak Zubietako hondakinak tratatzeko instalaziora eramaten dira. Hiri-hondakinak biltzeko eta tratatzeko sistemen kudeaketa hobetuz gero, hondakin



Garbigune Eibar

ez-birziklagarriak edo berrerabilgarriak gutxiago sortuko dira, eta, horrela, hondakin horien garraioak eta errausketak sortutako CO₂ isurketak murriztuko dira.

ENERGIA-ESKARIAREN MURRIZKETA

Ingurumena hobetzeko helburuak lortzeko beste ekintza nagusietako bat energia-eskaria murriztea izango da. Horretarako, energia eta energia-kontsumoa eskatzen duten sektoreak aztertu beharko dira, ondoren ekintza zuzentzaileak proposatzeko:

GARRAIOA

Energia gehien kontsumitzen duen sektoreetako bat da, eta, aldi berean, definizioz autosufizientea izan ezin den sektorea da, energiari sortzen ez duelako. Energia-kontsumoa murrizteko proposatzen diren neurri nagusiak ibilgailu pribatuetan mugikortasuna murriztea eta garraio publikoa (trenbidekoa eta autobusekoa) sustatzea dira, aurrez berariaz jorratutako alderdia.

BIZITEGI SEKTOREA

Aurrekoaren berdina izanik kontsumo-balio handiak dituen sektorea, hobekuntza-maila handia da, eta kontsumoa nabarmen murriztea ahalbidetzen du.

Sektore honen energia-gastu nagusia klimatizazio-eskariarekin lotuta dago. Energia-kontsumoa murrizteko, funtsezkoa izango da eraikinetako itxituren isolamendua hobetzea. Hori eraikin zaharrak berregokituz eta eraikin berriak diseinatuz lortu ahal izango da, eraginkortasun energetikoaren kontzientziarekin. Eraikuntza berriko eraikinei dagokienez, energia-eraginkortasuna energia berriztagarrien sistemak inplementatzera bideratu ahal izango da, hala nola geotermia eta eguzki-energia termikoa nahiz fotovoltaikoa hartzea, energia-kontsumoak murriztuz.

INDUSTRIA SEKTOREA

Sektore hau ere energia berriztagarrien sistemak ezartzeko oso egokia da, autogenerazioa eta mikro-sorkuntza ahalbidetuz eta nabeen azalera handiak aprobetxatuz.

EKIPAMENDUAK ETA HIRUGARREN SEKTOREA

Bizitegi-sektoreko irizpide berak aplikatuko dira, baina ondorengo puntu hauek indartuz:

- Argi naturala hartzeko eta aprobetxatzeko sistemak instalatzea, argi-hodiekin.
- Zoru erradiatzaileko sistemak sabai altuak dituzten eraikinetan.

- Mikrogenerazio- eta trigenerazio-sistemak instalatzea hoteletan eta beste establezimendu batzuetan.

Neurri orokor gisa, honako neurri hauek proposatzen dira energia-kontrolari ekiteko:

- Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna eraikinetan eta udal-zerbitzuak ematean.
- Baterako sorkuntza bultzatzea udal-eraikinetan eta zerbitzuen sektorean.
- Udal-ordenantza idaztea, udalerriko energia-alderdiak arautzeko.
- Udalaren parke mugikorraren eta garraio publikoaren energia- eta ingurumen-portaeraren aldizkako berrikuspena, emisio baxuko edo nuluko ibilgailuak sartzea eta bioerregaien erabilera sustatzea.

Ildo horretan, 2020ko urtarrilean, Eibarko Udalak bat egin zuen “Klima eta Energiarako Alkatetzen Itunarekin”. Ekimen hori 57 herrialdetako 7.000 toki-erakundek baino gehiagok bultzatu dute, eta Europar Batasuneko klimaren eta energiaren arloko neurriak ezartzea helburu duen borondatezko elkarte da.

Udalak, zehazki, Europako helburuak lortzeko konpromisoa hartu zuen: 2030erako berotegi-efektuko gasak %40 murriztea, klima-aldaketaren aurkako ekintzak sustatzea eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak garatzea.

Horretarako, Udala “Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana 2021-2030” idazten ari da. Plan horrek energia-eraginkortasuneko, energia aurrezteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko neurriak bilduko ditu. Udalerriko erresilientzia eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak ere jasoko ditu, eta udaleko sektore guztiei aplikatuko zaizkie.

Hauek izango dira Planean jasoko diren edukiak:

- Udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketen oinarritzko inbentarioa.
- Arrisku eta kalteberatasun klimatikoen ebaluazioa.
- Arintze- eta egokitze- neurrien plana.

E.7 KULTURA ETA INDUSTRIA ONDAREA

Eibarko Udalak kultura-ondarearen katalogo zabala du, bai eraikia, bai eskultura-elementuz, bai hiri-altzariz eta bai paisaia-elementuz osatua, Kultura Ondarearen Katalogoaren barruan indarrean dagoen HAPOn definituak. Horrez gain, Euskadiko Kultura Ondarearen Katalogoaren barruan eraikitako ondarea, ondare arkeologikoa eta ondasun higigarriak ere baditu.

Indarrean dagoen HAPOn definitutako Katalogoa eguneratzen da, Euskadiko Kultura Katalogoan agertzen diren eta gaur egun Katalogoan sartuta ez dauden eraikinekin:

- Zamakola Lantegi-etxea
- Orbe Baserria
- San Martín Obispo Baseliza

Katalogo horretan inbentariatuta ez dagoen arren, Eibarko Zeramikako tximinia udal-katalogoan sartzea ere proposatzen da, industria-iraganaren kultura-balioagatik. Beraz, Katalogoa eguneratzeko prozesua ez da prozesu itxia, baizik eta beste eraikin edo eraikuntza-elementu batzuk sartzeko aukera dago, beharrezko laguntza eta aintzatespen teknikoa dutenak.

Egin beharreko beste prozesuetako bat udal katalogoa Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Lege berrira eguneratzea da, eta horrek honako hau dakar, laburbilduta:

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babesean kultura-ondasun deklaratu diren ondasun higigarri eta higiezin guztiak honako hauek izango dira:

1. Babes bereziko kultura-ondasunak, kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartutakoak
2. Babes ertaineko kultura-ondasunak, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Inbentario Orokorrean sartutakoak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea indarrean sartu aurretik kultura-interesekotzat jotako EAEko lurralde-eremuko ondasun higigarri eta higiezin guztiak babes bereziko kultura-ondasuntzat hartuko dira.

EAEko Kultura Ondarearen Katalogoan, Aurrerapena idazteko unean, Kultura Ondasun Kalifikatu gisa agertzen dira honako hauek:

- Zamakola Lantegi-etxea
- San Andrés eliza
- Udaletxea
- Unzueta Jauregia
- Isasi Dorrea

EAEko Kultura Ondarearen Katalogoan Kultura Ondasun Inbentariatu gisa agertzen dira honako hauek:



Arrateko Amaren Santutegia

- Kutunegieta Goengoa baserriaren borda
- Kutunegieta Erdikoa Baserria
- Zozola Baserria
- Kutunegieta Goengoa Baserria

Katalogoa berrikusteko prozesu honetan, desagertutako eraikinak deskatalogatzea proposatzen da, San Andres pasealekuko 4., 5., 6. eta 7. zenbakietan eta Urkizu kaleko 2. eta 4. zenbakietan daudenak, esaterako. Arragueta Zeharrako 1. zenbakian dagoen eraikinaren babesa kentzea proposatzen da, Kultura Intereseko Elementuen planoan agertzen dena, nahiz eta fitxetan jasota ez egon, eta indarrean dagoen antolamendu-planean bertan jasota ez dagoen. Estaziño kaleko 10., 12. eta 14. zenbakietan dauden eraikinen atzealdeko terrazai dagokienez, deskatalogatu egin nahi dira, Bittor Sarasketa, Estaziño eta Arragueta kaleek osatutako etxadia berrantolatzeke, eta erdiko espazioa espazio publiko gisa aprobetxatzeko liberatuko da.

Historia industrialari balioa eman nahi zaio, hiri-bilbean bereziak diren eraikin industrialak berreskuratuz. Alternatiben artean, baliozko industria-eraikinak mantentzen diren aukerak sartzen dira, eta horiek berrerabiltzea planteatzen da, udalak berroneratzeko eragiketen lagapen gisa eskuratuz. Horrela, funtzio bikoitza lortzen da, industria-ondareari eustea eta hiri-bilbea berroneratzea.

Egokitze-prozesu horretan Alfa Microfusion eta Laspiur eraikinen kasuak azter litezke, eta horietan ekipamendu edo zuzkidura-bizitoki gisa berrerabil litezke.

E.8 HIRIGINTZA ARAUDIA

Aurreko ataletan deskribatutako proposamenen zehaztapenak HAPOren agiriaren Araudian, hau da, HAPOk barne hartzen dituen hiri-prozesu guztiek bete behar dituzten eskubide eta betebeharren multzo xehatua, eta modu errealean garatu ahal izan behar dira kudeaketa deitzen diogunaren bidez.

HAPOren araudia egitea ez dagokio Aurrerapen fase honi, baizik eta Hasierako Onespenaren Agiria idazteari, baina komeni da horri lotutako zenbait kontu gogoraraztea, laguntza gisa, Aurrerapeneko proposamenen antolamendua, erregulazioa eta bideragarritasuna ezartzeko orduan.

E.8.1 ARAUDIA

Plan Orokor berriari sartzen den Araudi berriak hainbat helburu bete behar ditu:

- Indarrean dagoen legeriara egokitzea, estatukoa edo autonomia-erkidegokoa.
- Hirigintzako legeriak jasotzen dituen kontzeptu eta figurei argitasuna eta erraztasuna ematea. Horregatik, figura konplexuak saihestuko dira, eta lortu nahi den helburua lortzeko erraztasun handiena ematen duten irudi sinpleenak eta zuzenenak erabiliko dira (ahal denean). Jakina, Eibarko errealitatea zehatz-mehatz bakarrik ezagututa izan daiteke, eta horretarako ezinbestekoa da Udaleko teknikariek harreman zuzena izatea.
- Ezinbestekoa da testu horrek udalbatzaren kezka, ezagutzak eta nahiak jasotzea eta betetzea.
- Helburu nagusietako bat lurzoruaren kudeaketa publikoa eta pribatua bateragarri egitea da, tresna errazak eta, batez ere, bideragarriak edo posibleak erabiliz. Plangintza bat ere ez da ona haren kudeaketa bideraezina bada, eta, beraz, ezin egin daitezkeen eta gauzatu ezin diren planteamenduetatik ihes egin beharko litzateke.
- Planaren barruan malgutasuna eta txandakatzea erabili beharreko jardun-sistemetan.
- Araudia ezustekorik eta nahi ez diren ondorioz sortuko ez duen araudian eta mekanikan oinarritzearen garrantzia (ekimen pribatuak jardun ezina, jardun publikoaren presioagatik eta baldintzengatik).
- Xehetasun- eta zehaztasun-maila handitzea, Planaren sakontasunak planaren kudeaketaren eta gauzatzearen azkartasuna eta eraginkortasuna bermatzen baitu.
- Indarrean dagoen HAPOren gabezien laburpena izan behar du, HAPOren aurreikuspenena ez gauzatzearen arrazoiak bertatik aterata, eta, era berean, asmatutakoak planteamenduetan jasota.

- Eibarko errealitatea gure herri eta hirien ikuspegi berrira egokitzea, iraunkortasun-irizpideetara egokitutako hiri baten beharrei arreta berezia eskainiz.

HAPOk antolamendu-zehaztapen hauek jaso behar ditu:

- a) Gutxienez, udal-mugarte osoaren egiturazko antolamendua; eta HAPOk hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua.
- b) Aukerako izaerarekin, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta HAPOk hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua; bi kasu horietan, antolamendu xehatuko plangintzaren bidez ordenatu ahal izango da.

62. artikulua arabera (ekainaren 30eko 2/2006 Legea), plan orokorren edukia, gutxienez, honako agiri hauek osatuko dute:

- Informazio- eta justifikazio-memoria, plangintza-ahala erabiltzeko irizpen-elementuak biltzen dituen informazio guztia jasoko duena, eta erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesua, herritarren parte-hartzearen izenean egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa eta hartutako erabakien justifikazioa deskribatuko dituena.
- Ingurumen-inpaktuaren aurreiazko txostena betetzen dela justifikatzen duen memoria. Halaber, garapen jasangarriaren printzipiotik hartutako antolamendua arrazoitu beharko du, lurzoruek planean jasotako aurreikuspenak betetzeko duten harrera-gaitasuna kontuan hartuta.
- Informazio Planoak.
- Egiturazko Antolamendu Planoak.
- Antolamendu Xehatuko Planoak.
- Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa.

Plan orokorretan, halaber, urbanizazio- eta eraikuntza-katalogoak eta -ordenantzak sartu ahal izango dira.

Aurrerapenaren alternatibak baloratu ondoren, egiturazko hirigintza-antolamenduak udal-korporazioak lortu beharreko lurralde-ereduari buruz hartzen dituen erabakietan oinarritu behar du, eta honako eduki orokor hauetan zehaztuko da:

- Hiri-bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia udalerrri osoan.
- Lurzoruaren sailkapena udalerrri osoan: hiri-lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian eta lurzoru urbanizaezinean. Lurzoru urbanizagarrian lurzoru sektorizatu eta sektorizatu gabea bereiziz.
- Kalifikazio orokorra, lurzoru osoa zonatan zatituta, eta, gainera, erabilera publikoko eremuak eta erabilera pribatuko eremuak bereizita.

- Garapen-plangintza egiteko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak finkatzea.
- Ingurumena babesteko, natura zaintzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak babesteko gidalerroak, bereziki kultura-ondareari buruzkoak.
- Hirigintza-garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia bermatuko dituen sistema orokorren sarea zehaztea, erabilera kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionaltasuna bermatuz, eta, hala badagokio, horiek egikaritze-eremuetan atxikitzea edo sartzea, horiek lortzeko eta, antolamendu-eremu jakin bat edo batzuk garatzeko funtzionalki beharrezkoak diren kasuetan, egikaritzeari eta kostua bere gain hartzeari dagokionez ere.
- Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzaren gutxienezko estandarrak eta zenbatekoak eta zuzkidura-bizitokietarako erreserbak betetzen direla bermatzeko beharrezko zehaztapenak.
- Lurzoruaren, eremuen eta sektoreen sailkapenaren espazio-eremuen mugaketa xehetasunez berraztertze aukera emango duten irizpideak, egiturazko antolamendua aldatu gabe, errealitate fisikoari egokitzeko eta plan orokorraren helburuak errespetatzeko parametro eta inguruabar objektiboak finkatuz.

Agindu horietatik aurrera, araudiari forma eman beharko zaio. Kontsultatzeko erraztasunari eta informazioaren argitasunari, legezko figura eta mekanismo posibleetara eta horiek legez identifikatzera erabat egokitzea gehitu behar zaio.

E.8.2 KUDEAKETA

Gure ustez, helburu edo lorpen batzuk lortzera bideratutako eginbideen multzoa osatzen duen kudeaketa plangintzaren zati implizitua da, eta bertan, faktoreen (eskubide-betebeharrak, parte-hartze publikoa-pribatua, oinarritzeko premiak-bigarren mailako alderdiak) arteko oreka zuzena zehaztapenak garatzeko funtsezkoa da. Plangintzak bere kudeaketa-ahalmenaren neurriko neurriak hartu behar ditu, gero gauzatzeko.

Plan Orokorren hirigintza-kudeaketaz ari garenean, zehaztapenak gauzatzeari dagozkion ekintza eta jarduketa guztiak planteatzen ditugu, eta, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera (135. artikulua), honako alderdi hauetan gauzatzen dira:

- Beharrezko antolamendu xehatuko plana egitea eta onartzea, dagokion lurzoru motaren arabera (hirikoa, urbanizagarria edo urbanizaezina). Plan Orokorra berak jaso dezake antolamendu zehatz hori, edo ez, eta hori beti izango du hiri-lurzoru finkatua. Antolamendu xehaturik gabe, Plana kudeatzea eta gauzatzeko zaila izango da, plana betetzeko zuzenean kudeatu behar diren azpiegiturak izan ezik.
- Urbanizatzeko Jarduketa-Programa bat egitea eta onartzea (zuzkidura-jarduketa isolatuetan, zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketetan eta 49. artikulua nahitaezko zat jotzen duen birpartzelazioan izan ezik, administrazio publikoen eskariz).
- Ezinbesteko urbanizazio-proiektua, obra osagarrien proiektua edo zuzkidura publikoena, hala dagokionean.

- Birpartzelatze-proiektua, kasu guztietan, salbu eta jarduketa isolatuen eta halakorik behar ez duten zuzkidura-jarduketan kasuan, jabe bakarreko jarduketa integratuen kasuan, desjabetze-sistema barne, eta zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketan kasuan.

Jardun-eremuek honakoen artean bereizten dira:

- Jarduera isolatuak: Egungo orubeetan, baldin eta hirigintza-antolamenduak urbanizazioa eraikuntzarako egokitzat eta nahikotzat hartu badu; edo eraiki daitezkeen lurzatietan, baldin eta soilik behar badute, urbanizazio-obra osagarriak egitea, eraiki aurretik edo aldi berean, orube izaera eskuratzeko.
- Zuzkidura-jarduketak: Hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik finkatu gabeko hiri-lurzoruan zuzkidura-karga kentzera bideratutakoak
- Jarduketa integratuak: Finkatu gabeko hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan egiten direnak, jarduketa isolatuetan baino urbanizazio-maila handiagoa behar denean, urbanizatzeko jarduketa-programa bakar baten arabera orube bat edo gehiago sortzeko, eta egikaritze-unitate oso baten edo batzuen bidez ekin beharko zaie, erregimen publikoan edo pribatuan.
- Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak: zuzenean egikaritu daitezkeenak eta eragindako lurzorua eta eskubideak desjabetzearen bidez lortu behar direnak, lurzoru, ondasun eta eskubide horiek ez daudelako jarduketa integratuetan sartuta edo atxikita.

Jarduteko Sistemak

Plangintza kudeatzeko beste alderdi garrantzitsu bat proposamen bakoitzari esleitutako sistemak edo mekanismoak definitzea da. Ildo horretan, 2/2006 Legeak egikaritze publikoaren eta egikaritze pribatuaren berezko jarduketa-sistemak bereizten ditu, eta egikaritze-unitate bakoitzerako, udalak askatasun osoz aukeratuko du jarduketa-sistemetako bat.

Egikaritze publikoaren araubidea: egikaritze-jardueraren garapena administrazio jardulearen alde erreserbatzea dakar; araubide honetan, urbanizazio-obrak administrazioak berak egiten ditu, eragindako lurren desjabetzearekin edo desjabetzerik gabe.

- Lankidetzeta-sistema
- Nahitaezko desjabetza- sistema

Egikaritze pribatuaren araubidea: Ekimen pribatuak plangintzaren exekuzioan parte hartzea dakar, administrazio jarduleak ikuskatu eta kontrolatuta. Jarduketa integratu baten xede diren lursailak ez dira orube izango harik eta, dagozkien zerbitzuek benetan hornitu eta zerbitzatzear gain, jarduketaren berezko urbanizazio-obrak eta jarduketaren programazioan ezarritako integrazio- eta lotura-azpiegiturak gauzaturak eta toki-administrazioari entregaturak egotea.

- Administrazio-emakida
- Agente urbanizatzailea
- Ituntze-sistema

Lurzoruen eraikigarritasuna

Lurzoruaren Lege berriak eraikigarritasunaren kontzeptua lantzen du (beraz, lehen aprobetxamendu gisa ezagutzen zena ordeztzen du), honako definizio honi lotuta: “Hirigintza-antolamenduak eremu, sektore edo jarduketa-unitate bakoitzean ezartzen duen irabazizko erabilera eta jardueren azalera osoaren batura, homogeneizatu gabe”:

Lurzoruen eraikigarritasuna jorratzen duen 35. artikulua arabera, hainbat eraikigarritasun mota daude:

Eraikigarritasun fisikoa edo gordina: Hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin baterako ezarritako sabai-azalera osoa, bai sestra gainean, bai sestra azpian, hartuko du. Eraikigarritasun fisikoa (edo gordina) honela adierazi ahal izango da: sabaiko metro karratuen zenbateko osoa, edo sabaiko metro koadroen zenbateko osoa, lurzoruko metro koadro bakoitzeko; bi kasuetan, zehaztu beharreko lurralde-eremuari dagokio.

Hirigintzako eraikigarritasuna edo irabazizko izaera duena: Hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin baterako ezarritako irabazizko erabilera eta jardueri dagokien eraikigarritasun fisikoa da; beraz, eremu horretarako dauden edo aurreikusita dauden zuzkidura publikoen eraikigarritasun fisikoa kanpoan geratzen da.

Eraikigarritasun haztatua edo homogeinizatua edo ekonomikoa: Lurralde-eremu jakin batean, erabilera edo balio bereko erabilera-multzo bakoitzaren hirigintza-eraikigarritasuna eta lurzoru urbanizatuak erabilera edo erabilera-multzo bakoitzerako duen eragin-balioaren eta eremuaren bereizgarri gisa definitzen den erabilerari dagokion eragin-balioaren arteko erlazioa adierazten duten haztapen- edo homogeneizazio-koefizienteak biderkatzearen ondoriozko produktuen batura da. Lehengo ereduak aprobetxamenduaren berdina da, baina HAPOn ez da zehazten, Plan Partzialean baizik). Eraikigarritasun haztatua erabilera bereziko sabai metro koadrotan adierazten da.

Lurralde-eremu jakin bateko batez besteko eraikigarritasuna: Eremuaren eraikigarritasun haztatu osoa eremuaren azalera osoarekin zatitzearen emaitza da. Ondorio horietarako, azalera horretan sartuko dira dagokion lurralde-eremuan dauden edo hari atxikita dauden sistema orokorren sareko zuzkidura publikoetara bideratutako lursailen azalerak, baldin eta hirigintza-antolamenduan finkatuta geratzen badira. Lurralde-eremuan sartutako tokiko zuzkidura-sistemei dagozkien erabilera edo jabari publikoko lurri dagokienez, Legearen 146. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

F I.ERANSKINA BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUAREN JUSTIFIKAZIOA

AURKIBIDEA

1.	BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOAREN METODOLOGIA	134
2.	BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA.....	135
2.1	BIZITEGI BEHARRAK.....	135
2.2	BEHARRAK KALKULATZEKO APLIKAZIO IRIZPIDEAK.....	138
3.	BIZITEGI GAITASUNA	143
3.1	HARROTZE-FAKTOREA (ESP).	143
3.2	AURREIKUSI BEHARREKO BIZITEGI-AHALMENA MURRIZTEA, JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZEN ZATI BAT BERRESKURATU DELAKO: (C2).....	144
3.3	MUGA GEHIGARRIAK.....	145
4.	BIZITEGI-LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA KALKULATZEA	146

Bizitegi-kuantifikazioaren helburuetako bat lurzoruaren artifizializazioa mugatzea da, iraunkortasun-irizpideei jarraituz; halaber, udalerriei plangintzan jaso beharreko bizitegi-ahalmenaren kalkulua erraztea da.

1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek udalerrietako plangintzaren bizitegi-kuantifikazioari buruzko irizpideak eman zituzten, Lurralde Plan Partzialei erreferentzia-esparru bat emanaz. Hala ere, urteak igaro ahala, bizitegi-kuantifikazioa egungo egoerara egokitu behar da. Aldaketa demografikoen, familia-tamainaren bilakaerak, etxebizitza-parkearen eta haren erabileraren bilakaerak eta lurzoruaren artifizializazioak eragindako aldaketek egokitzapena eragin dute.

Lurralde-jasangarritasunaren testuinguruan, non hiri eraikiaren gaineko jarduketak erabateko protagonismoa hartzen duen birgaitze-, leheneratze-, berritze- edo birdentsifikatze-eragiketekin, bizitegi-kuantifikazioak jenderik gabeko etxebizitza berariaz kontuan hartzea eskatzen du, kargan jartzeko eta hirigintza-plangintzak bizitegi-ahalmenaren proposamenean balioesteko. Era berean, beharrezkoa da harrotze-koefizienteak edo koefizienteak murriztea, etxebizitza-premia lurzoru-eskaintza bihurtzen baitute.

Proposatutako bizitegi kuantifikazioa bi irizpide jarraitzen ditu:

1. Hiri-lurzoruaren bizitegi-ahalmenerako baldintzarik ez egotea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean lege ezarritako gehieneko eraikigarritasunek soilik mugatzen baitute ahalmen hori.
2. Bizitegi-kuantifikazioko metodo orokorra aplikatzea lurzoru urbanizagarria sailkatzen duten hirigintza-planei.

HELBURUAK

Bizitegi-kuantifikazioaren arloko lurralde-eredua berrikusteko proposatutako helburuak:

1. Bizitegi-erabilerarako lurzoruaren artifizializazioa mugatzea, lurzoruaren erabileraren arrazionaltasun-irizpideei eta iraunkortasun-irizpideei erantzunez.
2. Udalerriei beren bizitegi-premien eta hirigintza-plangintzaren berrikuspenaren bizitegi-ahalmenaren kalkulua erraztea.
3. Bizitegi-kuantifikaziora hurbiltzeko bi modu ezartzea, hiri-lurzoruaren bizitegi-ahalmenari mugarik ezarri gabe, eta kuantifikazio-metodo orokorra lurzoru urbanizagarria aurreikusten denean soilik aplikatuz.

1. BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOAREN METODOLOGIA

Kuantifikazio-metodo orokor bat formulatu da, eta, kasu bakoitzerako proiektzio espezifikogorik ez dagoenez, EAEko edozein udalerriren bizitegi-kuantifikazioari behar bezala heltzeko aukera ematen du.

Formulazioak kontzeptu generiko batzuk planteatzen ditu, eta horiek indarreko lurralde-ereduaren zuzenketekin osatu beharko dira, lurralde-plan partzialek kasu bakoitzean identifikatuta. Azpimarratzea zuzenketa horiek behar bezala zehaztuta egon beharko dutela magnitudean eta denbora-erritmoan, formulatutako kuantifikazio-metodoak barne hartzen dituen osagai generikoei arazorik gabe gehitu ahal izateko. Gainera, zuzenketa espezifikoek eragindako udalerrien gaineko inpaktu positiboak eta negatiboak identifikatu beharko dituzte, lurralde-ereduan aurkeztutako aldaketen eragin erantsia nulua izan dadin (kasuan kasuko fluxuetarako aurreikusitako lurralde-eremutik kanpoko jatorri edo helmuga bat identifikatzen den kasuetan izan ezik).

Bestalde, metodologia honetan proposatzen diren kasu orokorrak eguneratu egin beharko dira denbora igaro ahala eta informazio berria eskuratu ahala. Interes berezia dute bigarren mailako etxebizitzekin eta jenderik gabeko etxebizitzekin lotutako alderdiek, informazio orokorra ez baita oso fidagarria atal horietan. Fenomeno horiek garrantzi berezia duten udalerriek informazio egokia eman beharko lukete, eta gai horien inguruan aplikatutako kasuak eta koefizienteak justifikatu.

Era berean, ezinbestekoa da iraganeko joerak identifikatzeko erabilitako biztanleria- eta etxebizitza-zifrak homogeneous izatea eta proposatzen den proiektiorako denbora-tarte egokia betetzea, identifikatutako joerek aztertutako aldagaien benetako portaera islatzeko.

Plangintzako eragileen arretak eskatzen duen beste alderdi bat plangintza orotan inplizituak diren denbora-erreferentzien tratamendu egokia da. Kuantifikazioaren denbora-mugak argi eta garbi zehaztea ezinbestekoa da, erabilitako aldagaietarako erreferentzia-datak eta fluxuen eta aldaketa garrantzitsuen urteko erritmoak. Zorroztasun honek proposatutako kuantifikazioaren inplikazioen ikusgarritasuna hobetu egiten du, eta emaitzako planaren ebaluazio gardenagoa ahalbidetzen du, kuantifikazioak argi eta garbi mugatutako denbora-aldi bati dagozkion premien proiektioari dagokionez soilik baitu zentzua.

Bizitegi-kuantifikazioaren metodoa bi urratsetan egituratzen da. Lehen urrats batean, etxebizitza-parkean behar den igoera kalkulatu da, etxebizitza nagusien beharrak, bigarren etxebizitzaren eskaria eta aurrekoekin lotutako jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena kontuan hartuta. Bigarren urrats batean, plangintzaldiaren hasieran bizitegi-ahalmen egokia kalkulatu da, harrotze-faktore egokia aplikatuz aurreko urratsean proiektatutako etxebizitza-gehikuntzari. Lortutako emaitzari kendu egin zaio berreskuratu nahi diren jenderik gabeko etxebizitzaren kopurua, ondoriozko bizitegi-ahalmena murrizteko.

2. BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA

2.1 BIZITEGI BEHARRAK

Bizitegi-premien kuantifikazioak bost batuketa hartzen ditu kontuan, eta lurralde-ereduaren zuzenketen eraginarekin batera, ondoriozko magnitudea osatzen dute.

$$BB = CMT+A1+A2+B1+B2+C1$$

Aurreikusitako sei osagaiak honako hauek dira:

1. Egungo lurralde ereduaren zuzenketak: (CMT).

Udalerrri bakoitzari dagokion berariazko osagaia da, dagokion eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean ezarritako lurralde-orekako estrategiekin lotuta dagoena. Osagai horretan islatzen dira lurralde-plangintzak udalerrri jakin batzuetan ezar ditzakeen hazkunde selektiboak, eta planak egituratzen dituen beste kontzeptu batzuk ere bai, lurralde-erabilgarritasunaren arabera edo Lurralde Planak aurreikusten dituen hiri-birkualifikazioko azpiegitura, ekipamendu eta eragiketetan sortzen diren inplikazioen arabera. Normalean, udalerrri batzuen hazkunde handiagoa beste batzuen hazkunde txikiagoarekin konpentsatu beharko da, osagai horretan inplizitu diren migrazio-fluxu berrietatik kanpoko jatorria aurreikusten denean izan ezik. Osagai hori bat dator «lurralde-ereduaren inplikazioak» izeneko 1997ko LAGek planteatutako 1. osagaiarekin. Ondoriozko bizitegi-ahalmena ikusita, LPPak Eredua (LEO) osagaia egokituko du. Hazkunde Selektiboaren ekintzak ez luke ekarri behar, salbuespenezko aldaketa-egoeretan izan ezik, eredu-osagai bat aplikatzea; izan ere, gainerako osagaietatik datorren bizitegi-gaitasun arruntak udalerrri bakoitzaren dinamismo espezifiko barne hartzen du iragan hurbilean.

LPPak zenbateko negatibotzat jotzen du osagai hori. Hala ere, dokumentu hori 2005ekoa da, Eibarrek biztanleria galdu zuen urtea, eta urte horretatik aurrera bilakaera demografikoa aldatu egin zen, eta biztanleria egonkor samar mantendu zen.

Horregatik osagai nulutzat hartzen da.

Jarraian, osagai horri dagokion testua transkribatuko da Eibarko LPPtik (Debarrena):

Etxebizitza-premien kuantifikazioa, udalerrri bakoitzeko bizitegi-lurzoruaren azaleraren kalkulua errazteko bost faktore edo osagaien azterketan oinarritzen da:

- C1 osagaia (Lurralde Ereduaren Inplikazioak) Lurralde Plan Partzialak definitzen ditu eredu-arrazoiengatik. Lurralde-ereduak etxebizitza-parkearen hazkundera dituen inplikazioak taxutzen dituzten funtsezko hiru elementu edo faktore ezar daitezke.

Hurrengoak dira:

- C.1.1 Hazkunde selektiboa: Lurraldea berronkatzeko estrategietan oinarritzen da, barnealdeko udalerriak kostaldeko udalerrien aldean arintzeko.

Osagai horrek udalerrri bakoitzean izango duen gehikuntza/beherakada ez da gainerako osagaien baturaren %20 baino handiagoa izango.

- C.1.2 Aukerako habitatak: LAGek ez dute habitat alternatiborik proposatzen Eibarko Eredu Funtzionalaren barruan.

- C.1.3 Bigarren etxebizitza: Debako eta Mutrikuo itsasertzeko udalerrietan indartu beharreko fenomenoak, duten potentzialtasunean oinarrituta.

Osagai honen entitatea ondorengoa da:

Deba: 100 etxeb.

Mutriku: 50 etxeb.

Ondoriozko bizitegi-ahalmena programatutako edo sektorizatutako hiri-lurzoruaren eta/edo lurzoru urbanizagarriaren gainean kokatuko da. Gehieneko balioaren gaineratik, bizitegi-ahalmen osagarria programatu gabeko edo sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren gainean kokatuko da.

MUNICIPIO	Com.1.1 Crecim. Select.	Com.1.2 Habitat alt.	Com.1.3 Viv. secund.	Comp.1 MOD. TER.	Comp.2 CREC. DEMO.	Comp.3 VARI. ESTR. FAM.	Comp.4		Comp.5 2* RESID.	Total Comp. 2+3+4+5	8 años		16 años	
							COF. RIGIDEZ				nº	nº	nº	nº
							CR	Comp.4			MIN. viv.	MAX. viv.	MIN. viv.	MAX. viv.
DEBA	75	0	100	175	63	198	0,25	498	114	873	755	1.004	1.004	1.336
MUTRIKU	103	0	50	153	62	153	0,25	421	127	763	667	878	887	1.167
A.T. DEBA- MUTRIKU	178	0	150	328	125	351		919	241	1636	1.423	1.882	1.892	2.503
ELGOIBAR	224	0	0	224	-340	483	0,25	976	0	1119	799	1.287	1.063	1.712
MENDARO	56	0	0	56	-3	71	0,35	213	0	281	217	323	288	430
A.T. DE ELGOIBAR	280	0	0	280	-343	554		1189	0	1400	1.016	1.610	1.351	2.141
EIBAR	-343	0	0	-343	-1161	1341	0,15	1565	0	1745	705	1.488	938	1.979
ERMUA	-220	0	0	-220	-341	606	0,15	848	0	1113	524	948	697	1.261
MALLABIA	28	0	0	28	-6	30	0,35	117	0	141	104	162	138	215
SORALUZE	-73	0	0	-73	-183	186	0,25	367	0	370	132	315	175	419
A.T. DE EIBAR	-608	0	0	-608	-1691	2163		2897	0	3369	1.465	2.913	1.948	3.874
TOTAL A.F.	-150	0	150	0	-1909	3068	2	5005	241	6405	3.903	6.405	5.190	8.519

2. Etxebizitza nagusiaren beharrak, biztanleria egoiliarren aldaketatik: (A1).

Kontuan hartutako lurralde-eremuan bizi den biztanleria aldatzeak (handitzeak edo murrizteak) eragindako etxebizitza nagusiaren premiei dagokie. LAG 1997k planteatutako 2. osagaiaren baliokidea da, «Hazkunde demografikoa» izenekoa.

3. Etxebizitza nagusiaren beharrak familiaren tamaina aldatzeatik: (A2).

Etxebizitza nagusiaren premien aldakuntzari dagokio, kontuan hartutako lurralde-eremuaren batez besteko familia-tamainaren aldakuntzaren arabera. 1997ko LAGen 3. osagaiaren baliokidea da, «Familia-egituraren aldaketa» izenekoa.

Eustaten erroldan 2020/1/1eko batez besteko familia-tamaina aurkitu da, 2,30ekoa.

4. Bigarren etxebizitzaren eskaria, etxebizitza nagusiaren eskaria aldatzeatik: (B1).

Bigarren etxebizitzaren eskariaren aldaketari dagokio, kontuan hartutako lurralde-eremurako etxebizitza nagusien kopuruaren aldaketa zenbatetsiari lotuta (A1 eta A2 osagaiak). Osagai honek adierazten du aurreikusitakoez gain etxebizitza kopuru gehigarri bat eduki behar dela erabilera nagusirako, eta horiek bigarren mailako erabilera eskariak xurgatuko dituela, hasiera batean A1 eta A2 osagaien bidez kalkulaturako eskuragarritasuna bermatzeko. 1997ko LAGetako bigarren etxebizitzaren koefizientearen kontzeptuari eutsi zaio etxebizitza nagusi bakoitzeko jendea bizi den etxebizitzaren ratioa (etxebizitza nagusi gisa edo bigarren etxebizitza gisa) erakusteko, baina osagaia kalkulatzeko modua aldatu da.

Familia-etxebizitzari, etxebizitza nagusiar, bigarren etxebizitzakoari eta hutsik dauden etxeei buruzko azken datuak EUSTATEk 2011n jasotakoak dira. Bigarren etxebizitza zein ehunekotan diren eta etxebizitza nagusiak ez diren familia-etxebizitzak zein ehunekotan dauden hutsik kalkulatzeko hartuko dira erreferentziatzat.

5. Bigarren etxebizitzaren eskaria, bigarren etxebizitzaren koefizientea aldatzeatik: (B2).

Bigarren mailako etxebizitzaren aldakuntza (igoera edo murrizketa) da, kontuan hartutako lurralde-eremuko bigarren mailako etxebizitzaren eta etxebizitza nagusien proportzioan izandako aldaketek eragindakoa, hau da, CVS koefizientearen izandako aldaketek eragindakoa. Koefiziente horren aldaketei buruzko kasu espliziturik ez badago, osagaia nulua izango da. Hala ere, bigarren etxebizitzaren pisuan aldaketak planteatzen badira erabilera nagusiarekin alderatuta, osagai horrek bigarren mailako etxebizitzaren kopuru gehigarria jasoko du (CVSak gora egitea aurreikusten bada) edo bigarren mailako erabilera batetik okupazio nagusi batera igaro daitezkeen etxebizitzaren kopurua (CVSak behera egitea aurreikusten bada). Gai delikatua da, bai eskura dagoen informazio estatistikoa anbigua delako, bai eremu horretan politika alternatiboak egiteko aukera dagoelako; horregatik, osagai hori aplikatzeko orduan hausnarketa sakona eta adostasun zabala egitea gomendatzen da. Hala eginez gero, kasu gehienetan balio negatiboa izango duela aurreikus daiteke, EAEko udalerrri askotan bigarren mailako etxebizitzak etxebizitza nagusi bihurtu direla islatuz, batez ere hiriburuetatik gertu dauden eremuetan.

Faktore hori nulutzat jotzen da, bigarren etxebizitzak ez baitu garrantzi handirik udalerrri barruan.

6. Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena, jendea bizi den etxebizitzaren aldaketarik: (C1).

Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspenari dagokio, kontuan hartutako (A1, A2, B1 eta B2 osagaiak) lurralde-eremurako aurreikusitako aldiari jendea bizi den etxebizitzaren (nagusia edo bigarren mailakoa) aldaketarekin lotuta. B1 osagaiaren antzera, osagai honek erakusten du jendea bizi den etxebizitzaren aurreikuspenaz gain beste etxebizitza-kopuru bat aurreikusi behar dela, beti baitago jenderik gabeko etxebizitza teknikoaren proportzioa, tirabira faktore askoren ondorioz (eskualdatzeko aldiak, birgaitzea, etab.). CVSrekin batera, jenderik gabeko etxebizitzaren koefizientearen kontzeptua sartu da (CVD), etxebizitza bakoitzeko (nagusia edo bigarren mailakoa) ratioa erakusteko (jendea bizi ala ez).

Familia-etxebizitzari, etxebizitza nagusiari, bigarren etxebizitzakoari eta hutsik dauden etxeei buruzko azken datuak EUSTATEk 2011n jasotakoak dira. Bigarren etxebizitza zein ehunekotan diren eta etxebizitza nagusiak ez diren familia-etxebizitzak zein ehunekotan dauden hutsik kalkulatzeko hartuko dira erreferentziatzat.

2.2 BEHARRAK KALKULATZEKO APLIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Biztanleriaren proiektzioa (P).

EAEko biztanleriak ia hiru hamarkada daramatza 2.100.000 biztanle inguruan egonkortuta, 1981etik 2001era bitartean beheranzko joera txiki bat izan du (urteko batez besteko aldakuntza-tasa -%0,1ekoa izan da), 2001-2011 aldiari gorakada txiki bat izan du eta azken bost urteetan (2011-2016) jaitsiera txiki bat izan du. 1. taulak EAEko eta bertako lurralde-eremuetako biztanleriaren bilakaera laburbiltzen du 1981 eta 2016 artean.

Planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpideak onartzeko erabakiaren aurreko urtearen aurreko urtearen aurreko hogeitau urteko aldiari dagozkion datu ofizialetan behatutako biztanleriaren urteko aldakuntza-tasa aplikatuko da. Aldakuntza-tasa negatiboa denean, tasa hori behatutako balioaren erdira murriztuko da, neurketa-errore posibleen eragin negatiboa leuntzeko eta atzeraldi demografikoak aztertutako lurralde-eremuan familia-tamainaren murrizketa nabarmenagoa izan lezakeen eragina simulatzeko.

Aurrerapena onartu zenetik igarotako denbora dela eta, kalkuluan erabilitako datuak zaharkituta daudela jotzen bada, plangintza behin-behinean onartu aurretik eskuragarri zeuden datu ofizialekin eguneratu ahal izango dira.

Eibarko urteko biztanleria (Iturria: EUSTAT)

Urtea	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Biztanleria	28440	28299	28002	27828	27586	27344	27240	27329	27234	27201

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Biztanleria	27198	27299	27207	27213	27204	27158	27134	27138	27246	27474

Eustatek bildutako zentsu-datuen taulatik urte bakoitzerako honako aldaketa demografiko hauek kalkulatzen dira, aurreko urteko biztanleriarekin alderatuta.

Urtea		2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Hazkundera		%-0,50	%-1,05	%-0,62	%-0,87	%-0,88	%-0,38	%+0,33	%-0,35	%-0,12

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Hazkundera	%-0,01	%+0,37	%-0,34	%+0,02	%-0,03	%-0,17	%-0,09	%+0,01	%+0,40	%+0,84

Aurreko tauletatik azken 19 urteetako urteko batez besteko hazkundera (Eustaten biztanleriaren erroldan agertzen diren datuak) -%0,18koa dela ondorioztatzen da. Atal honetan adierazten den bezala, hazkunde-faktorea negatiboa denez, tasa murriztua balioaren erdira aplikatuko da, hau da, -%0,09ra, neurketa-errore posibleen eragin negatiboa leuntzeko eta atzeraldi demografikoak aztertutako lurralde-eremuan familia-tamainaren murrizketa nabarmenagoa izan lezakeen eragina simulatzeko.

Horrela, hurrengo urteetarako proiektzio demografiko hau egiten da, ezagutzen den azken datutik, 2020ari dagokiona.

2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
27474	27449	27425	27400	27375	27351	27326	27301	27277	27252

HAPOn indarraldia 8 urtekoa dela jotzen denez, Eustatek erroldatutako azken datuetatik abiatuta, urte arteko batez besteko hazkundera (%-0,09) aplikatzen dugu, bai 2021eko egungo biztanleria, bai etorkizuneko agertokikoa (%-29) kalkulatzeko. Kalkulatzen da **2.029**rako zenbatetsitako biztanleria **27.252 biztanlekoa** izango dela.

2. Batezbesteko Familia-Tamaina (TMF).

Biztanleriaren bizitegi-premiak formulatzeko aldagai erabakigarria da, elementu honek biztanleria eta etxebizitza nagusia lotzen baititu etxearen unitatearen batez besteko tamainaren bidez, etxebizitza berean bizi diren pertsonatzat hartuta.

Familiaren batez besteko tamaina kalkulatzeko, biztanle guztien kopurua zati jendea bizi den familia-etxebizitza guztien kopurua egin behar da. Eibarko etxebizitzetarako balioa, EUSTATEk 2020ko urtarrilaren 1ean emandako datuen arabera, 2,30ekoa da.

	1981	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Batezbesteko familia-tamaina (pertsona/etxebizitza) Tamaño medio familiar	3,73	3,34	3,07	2,79	2,64	2,53	2,46
Konparaketarako aldia Periodo de comparación	96-01	01-06	06-11	11-16		96-11	01-16
Aldiaren Urteko batezbesteko aldaketa (%) Variación anual media (%) del periodo	-2,91	- 1,76	-1,27	-0,94		-1,98	-1,32

Familia-tamainaren bilakaera EAEn. (Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako datuetan. (errolda eta Biztanleriaren Estatistika)

Biztanleriari eta etxebizitzari buruzko 2016ko behin-behineko datuen arabera, azken hamarkadetan familiaren batez besteko tamainak izandako murrizketan moderazio argia gertatzen ari dela ikusten da (%1,98ko urteko batez besteko murrizketa 1996-2011 aldian eta %1,32koa 2001-2016 aldian). Hori dela eta, eta izandako bilakaera kontuan hartuta, **familia-tamaina aldakorra** (hau da, familia-tamainak unitatearen gainean duen gehiegizko tamaina) %1,2 murrizteko urteko tasa hartzea proposatzen da, udalerraren batez besteko familia-tamainari buruz eskuragarri dagoen azken informazioari aplikatzekoa, udalerrian bertan azken hamar urteetan izandako urteko murrizketa-tasa justifikatuta.

Faktore hau egungo tasan aplikatzearen ondorioz, honako urteko tasa hauek ezarri dira erreferentziako aldiari:

2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
2,30	2,297	2,294	2,292	2,289	2,286	2,283	2,281	2,278	2,275

3. Bigarren bizitetxearen koefizientea (CVS).

Eskuragarri dauden azken datu ofizialen arabera behatutako tasa aplikatuko da. Aplikatu den koefizientea 1,25 (hau da, bigarren etxebizitza bat lau etxebizitza nagusiko) edo gehiago denean justifikatu behar da. Planaren hasieran bigarren etxebizitzaren zati bat bihurtzea planteatzea posible da, eta, horrela, proiektatutako bizitegi-beharrak murriztea, baina beharrezkoa izango da azpian dauden kasuen garrantzia eta bideragarritasuna justifikatzea.

Eibarren ez dago bigarren bizilekuari buruzko informazio fidagarriarik. EUSTATEk 2011n bildutako datuak hartu dira. Datu horien arabera, udalerriko bizitegi-parkea honela banatzen zen familia-etxebizitzetara dagokienez:

Etxeb. familiarra 2011	Etxeb. nagusia 2011	Bigarren etxeb. 2011	Etxeb. hutsik 2011
13.372	11.268	253	1.851
%100	%84,27	%1,89	%13,84

Informazio berrienak (EUSTAT, 2020) dauden familia-etxebizitzaren eta etxebizitza nagusien kopurua baino ez du jasotzen; beraz, etxebizitza nagusi ez diren familia-etxebizitzaren artean bigarren etxebizitzari dagokion ehunekoa kalkulatu ahal izango da, ondoren datu berrienei aplikatzeko.

Etxeb. ez nagusia 2011	Bigarren etxeb 2011	Etxeb. hutsik 2011
2.104	253	1.851
%100	%12,02	%87,98

2020rako ondorengo datuak ondorioztatzen dira, eskuragarri dagoen informaziotik eta bigarren bizitexearen zein hutsik dagoen etxebizitzaren estimaziotik abiatuta.

Etxeb. familiarra 2020	Etxeb. nagusia 2020	Etxeb. ez nagusia 2020	
13.567	11.838	1.729	
		Bigarren etxeb. 2020	Etxeb. hutsik 2020
		%12,02	%87,98
		208	1.521
%100	%87,26	%1,53	%11,21

Eibarko eremu funtzionaleko LPPak esan nahi du Eibarren ez dagoela bigarren bizilekurik, haren eragina ez baita oso esanguratsua.

4. Etxebizitza hutsen koefizientea (CVD).

Hutsik dagoen etxebizitza tekniko bakoitzeko 1,04 eta 1,08 bitarteko tasa aplikatuko da, kontuan hartutako udalerriko biztanleriaren arabera. Beste balio batzuk erabiltzen direnean, beharrezkoa izango da aplikatutako koefizientearen balioa justifikatzea.

Maila Estrato	Udalerriko biztanleria Población del municipio	CVD
1	20.000 biztanle edo gehiago 20.000 habitantes o más	1,04
2	7.000 eta 19.999 biztanleren artean De 7.000 a 19.999 habitantes	1,05
3	3.000 eta 6.999 biztanleren artean De 3.000 a 6.999 habitantes	1,06
4	1.000 eta 2.999 biztanleren artean De 1.000 a 2.999 habitantes	1,07
5	1.000 biztanle baino gutxiago Menos de 1.000 habitantes	1,08

Etxebizitza hutsen koefizientea (CVD) udalerrira tamainaren arabera.

Eibarrentzat, udalerriak 20.000 biztanle baino gehiago ditu, eta erreferentzia koefizientea **1,04** izango da.

3. BIZITEGI GAITASUNA

Udalerriaren bizitegi-beharrak kuantifikatu ondoren, planaren aldirako aurreikusitako beharrian horiek planaren hasieran eskatutako bizitegi-ahalmenaren estimazio bihurtu behar dira, plangintzak aurreikusitako iraupenerako identifikatutako premiak betetzen direla ziurtatzeko.

Hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako bizitegi-eremuetan eraiki daitezkeen etxebizitza berrien guztizko kopuruari esaten zaio udal-plangintza orokor batean aurreikusitako bizitegi-ahalmena, plana behin-behinean onartzen den egunean. Aukeran, landa-guneen edukiera sartu ahal izango da kuantifikazioan, baita Arabako kontzeju guztiei dagokiena ere.

Aurreikusitako beharretara egokitutako bizitegi-ahalmena kalkulatzeko, harrotze-faktorea aplikatzen da, bizitegi-premien zifra plangintzan kalifikatutako lurzoruaren harrera-ahalmen bihur dadin, kalkulaturako premien balizko asetzea bermatze aldera. Lortutako emaitzari kendu egin zaio berreskuratu nahi diren jenderik gabeko etxebizitzaren kopurua, ondoriozko bizitegi-ahalmena murrizteko. Kopuru hori plangintzaren hasieran dagoen bizitegi-parkearen gutxieneko %2aren baliokidea izango da.

$$CR = (NR \times ESP) - C2$$

BB-NR: Bizitegi Beharrak

ESP: Harrotze-faktorea

C2: Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitzak (gutxienez egungo etxebizitza guztien % 2)

3.1 HARROTZE-FAKTOREA (ESP).

Harrotzeko faktorea plangintzaldiaren hasieran identifikatutako bizitegi-ahalmenak Planaren indarraldirako aurreikusitako bizitegi-premien garrantzia nabarmen gainditzeko beharri erantzuten dio. Lasaiera hori planteatzeko arrazoiak bizitegi-lurzoruaren izakinek aurreikusitako kontsumoa nahiko zabal gainditzea eskatzen duten hainbat faktoreen ondorio dira. Faktore garrantzitsuen artean, honako hauek aipa daitezke: hiri-lurzoruari dagokiona bezalako merkatu segmentatu eta bereizi baten marruskadura, planaren exekuzioa edo iraupen eraginkorra funtsean luza dezaketen administrazio-prozedura garrantzitsuen moteltasuna, eta premien proiektioan egon litekeen akatsa, zeinaren eragina bereziki negargarria izan baitaiteke muturreko zurruntasuna duen merkatu batean.

Funtsean, harrotze-faktorea planaren aldirako zenbatetsitako premien beharrezko gehiengoa da, aldi hori amaitzean bizitegi-lurzoruko soberakinak nahikoak izan daitezkeen merkatuak nahi ez den berotzerik jasan ez dezan, eskaintzarik ez dagoelako. Kontzeptu hori argitze aldera, esan daiteke 8 urteko plangintzaldi bati aplikatutako 2,5 urteko harrotze-faktore bat, planaren hasieran, kuantifikazioan aurreikusitako erritmoan bizitegi-eraikuntzako 20 urte betetzeko lurzoru egokia identifikatzearen parekoa dela, eta, ondorioz, plana amaitzeko asmoa du, bizitegi-eraikuntzako 12 urteko hondar-ahalmenari eutsiz. Kopurua nahikoa dela dirudi bizitegi-lurzoruaren merkatuak nahi ez diren itotzeak jasango ez dituela bermatzeko.

Normala denez, Planak aurreikusitakoak baino eskari-maila handiagoak izateak, plangintza modu eraginkorrean gauzatzeko atzerapenak edo plan berria egiteko atzerapenak harrotze-faktoreak teorikoki bermatzen duen segurtasun-marjina murriztu dezakete. Harrotze-faktorerako balio egokia aukeratzea konpromiso bat da, planaren iraupen eraginkorrerako merkatuaren funtzionamendua bermatzeko nahiaren eta bereziki urria den baliabide baten erabileran iraunkortasunaren eta eraginkortasunaren ikuspegitik hiri-hedapenaren erritmoa murriztearen komenigarritasunaren artekoa.

Udallerriaren tamainaren arabera 8 urterako aurreikusitako bizitegi-premiak gehienez 2,2tik 3ra bitarteko harrotze-faktorea aplikatzea proposatzen da. Harrotze-faktorea handitzeko arrazoia, udallerriaren tamaina murriztu ahala, merkatuaren zurruntasun handiagoari zor zaio (arrazoi fisikoengatik zein jabetzaren kontzentrazio handiagoagatik), eta proiektioen fidagarritasun txikiagoari ere bai, kontuan hartutako lurralde-eremuaren dimentsioa murriztu ahala.

Maila Estrato	Udalerriko biztanleria Población del municipio	Harrotze-faktorea gehi. Esponjamiento máx.
1	20.000 biztanle edo gehiago 20.000 habitantes o más	2,2
2	7.000 eta 19.999 biztanleren artean De 7.000 a 19.999 habitantes	2,4
3	3.000 eta 6.999 biztanleren artean De 3.000 a 6.999 habitantes	2,6
4	1.000 eta 2.999 biztanleren artean De 1.000 a 2.999 habitantes	2,8
5	1.000 biztanle baino gutxiago Menos de 1.000 habitantes	3,0

8 urterako egoitza-premiei aplika dakiekeen bizitegi-ahalmenaren harrotze-faktorearen balioa, udallerriaren tamainaren arabera

20.000 biztanletik gorako udalerria denez, **2,2ko harrotze-faktorea** dagokio.

3.2 AURREIKUSI BEHARREKO BIZITEGI-AHALMENA MURRIZTEA, JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZEN ZATI BAT BERRESKURATU DELAKO: (C2).

Helburu gisa berreskuratu nahi diren jenderik gabeko etxebizitzaren kopuruari dagokio, etxebizitza horiek etxebizitza bizidun bihurtzeko; horrela, plangintzan aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena murriztu egingo da. Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitzaren gutxieneko kopurua plangintzaren hasieran udalerrian dagoen etxebizitza-parke osoaren %2 izango da. Era berean, LPPei gehitu beharreko balio gisa, jenderik gabeko etxebizitzaren guttizkoaren %10 iradokitzen zaie, 3. taulako CVDan definitutako izaera teknikoa duen etxebizitza mota horren ehuneko barne.

2020an bizitegi-parkea 13.567 familia-etxebizitzakoa da. Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitzaren gutxieneko kopurua %2 izango da: $13.567 \times 0,02 = 271$ etxebizitza

3.3 MUGA GEHIGARRIAK.

Azkenik, aurreko kuantifikazio-metodologia aplikatuz lortutako emaitzei bi baldintza gehigarri gehitu zaizkie, proposatutako arauen aplikazio mekaniko batetik erator litezkeen muturreko emaitzak saihesteko. Muga horiek, batetik, iragan oso atzerakorra duten udalerriei zuzenduta daude, eta, bestetik, aurreko urteetan aparteko hazkundera izan duten udalerriei.

Lehenengo kasuan, gutxieneko bizitegi-gaitasuna ziurtatu nahi da, sektoreko eragileek nolabaiteko jarduteko gaitasuna izan dezaten, eta ez dezan gehiegi murriztu lurzoru-merkatuaren funtzionamendua uzurtze demografikoko egoera batean. Bigarren kasuan, gehiegizko estrapolazioak saihestea da helburua, estrapolazio horietatik eratorritako jarduerak abiarazten direnean zuzentzea zaila baita. Jakina, indarrean dagoen plangintzaren eguneratzea azkartzea beharrezkoa izango da, baldin eta hedapen azeleratua denboran zehar mantentzen bada eta harrotze-faktoreak bermatu nahi duen lasaiera agortzeko mehatxua egiten badu.

Udalerraren bizitegi-ahalmenaren azken kuantifikazioari ezartzen zaizkion bi muga gehigarriak honako hauek dira:

- 1.- Udalerrri guztientzat, hirigintza-plangintza onartzen den unean dagoen etxebizitza-parkearen %50 bizitegi-ahalmenak ezin izango du gainditu.
- 2.- Udalerrri orok hasierako etxebizitza-parkearen %10eko bizitegi-ahalmena planteatu ahal izango du.

Hortaz, Eibarrek 13.567 pertsona erroldatuta dituenez, 1.357ko etxebizitza berrien hazkunde maximoa egokituko litzaioke.

4. BIZITEGI-LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA KALKULATZEA

BIZITEGI-LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA KALKULATZEA, LURRALDE-ANTOLAMENDUKO JARRAIBIDEEN ARABERA (2021-2029 aldia)		1
Udalerria:	EIBAR	Data:
Eremu funtzionala:	EIBARREKO EF – DEBABARRENA	2021
LURRALDE PLAN PARTZIALEAN DEFINITUTAKO LURRALDE EREDUAREN INPLIKAZIOAK (LPP)		
CMT. LPPn definitutako lurralde-ereduaren inplikazioak		CMT = 0
PLANGINTZALDIAREN BIZITEGI PREMIAK		
A. Etxebizitza nagusien beharra		
A1. Biztanleriaren aldaketagatik $A1 = (P29-P21) / TMF29 = (27.252-27.449) / 2,273$		A1 = -87
A2. Batez besteko familia tamaina aldatzeagatik (TMF) $A2 = P21 \times (1/TMF29-1/TMF21) = 27.449 \times (1/2,273-1/2,297)$		A2 = 126
B. Bigarren etxebizitzaren eskaera		
B1. Etxebizitza nagusien aldaketagatik (VP) $B1 = (A1+A2) \times (CVS29-1) = (-87+126) \times (1,02245-1)$		B1 = 1
B2. Bigarren etxebizitzaren koefizientearen aldaketagatik (CVS) $B2 = (P21/TMF21) \times (CVS29-CVS21)$		B2 = 0
C. Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena		
C1. Jenderik gabeko etxebizitzaren aldaketagatik (VD) $C1 = (A1+A2+B1+B2) \times (CVD \text{ Norm.}-1) = (-87+126+1) \times (1,04-1)$		C1 = 2
BIZITEGI PREMIAK GUZTIRA		
$NR = CMT+A1+A2+B1+B2+C1 = -87+126+1+2$		NR = 42
PLANGINTZAK ESKAINI BEHARREKO GEHIENENKO BIZITEGI AHALMENA		
NRE. Bizitegi premia harrotuak $NRe = NR \times ESP = 42 \times 2,2$		NRe = 92
C2. Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitza $C2 = \text{Egungo bizitegi parkearen } \%2$		C2 = 271
CR. Gehieneko bizitegi-ahalmena, mugarik gabe: $CR = (NR \times ESP) - C2 = 92 - 271$		CR = 0
MUGA GEHIGARRIAK		
Gehieneko bizitegi-educiera onargarria (Etxebizitzen %50)		$C_{\text{máx}} = 6.783$
Aurreikus daitekeen gutxieneko educiera (Etxebizitzen %10)		$C_{\text{min}} = 1.357$
Plangintzan aurreikusi beharreko gehieneko bizitegi-ahalmena (etxebizitza kop.):		CR = 1.357

G II. ERANSKINA. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7. artikulua 7. paragrafoan ezartzen duenez: “udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina ebaluatuko da, eta ebaluazio horretatik ondorioztatzen diren neurriak proposatuko dira”.

Eibarko HAPOrekin batera, **Eragin linguistikoari** buruzko txostena egingo da, fase guztietan. Legeak ez du zehazten txosten horrek nolakoa izan behar duen; hala ere, badira erreferentziako dokumentuak, hala nola ELE (Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko tresna), UEMAk (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) eginga, baina ez da nahitaez bete beharrekoa, Eibar ez baita UEMAk kide. Hala ere, dokumentu hau hizkuntza-ebaluazioa egiteko gida da.

ELE erreferentziatzen hartuta, **Hizkuntz Eraginaren Txostena** udalerrian dauden euskaldunen ehunekoaren eta azken urteetan izandako **migrazio-mugimenduen** ebaluazioan oinarrituko dela nagusiki zehaztu da, eta horietatik kalkulatu behar dela “migrazio-saldo euskaldun bat” (beste udalerrri batzuetatik datorren euskaldunen kopuruaren eta emigratzen duenaren arteko aldea). Horrela, euskararen erabileraren bilakaerari buruzko kalkuluak egin ahal izango dira, planeko proposamenei dagokienez.

Plan berriko proposamenei Eibarren euskararen erabileran izango duten eragina neurtuko duen **Hizkuntza Eraginaren Txostena** Hasierako Onarpenaren fasean idatziko da, Aurrerapenaren alternatibetako bat aukeratu eta harekin batera doan arau-testua zehazten den unean. Ordura arte, ez dago behar besteko zehaztapenik planak euskararen erabileran izango duen eragina baloratu ahal izateko.

Hala ere, Aurrerapen fase honetan Lurralde Ereduaren hipotesi bat planteatzen da, eta horren barruan sartzen diren hainbat Alternatiba ere bai, **Hizkuntz Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio** hau idazten den horretan oinarrituta, HAPOk udalerrian euskararen erabileran eraginik izan dezakeen eta eragin hori positiboa edo negatiboa izango dela aurreikusten den zehazteko.

1. ABIAPUNTUA

Eibarko Udalaren nahia da euskarak, bere biziraupenaz gain, herritarren ohiko eta eguneroko hizkuntza gisa garatzeko behar besteko lekua eta babesa izatea, kontserbazio hutsetik indartzera igarotzeko. Horrela, egunen batean posible izango da Eibarren euskara normaltasun osoz erabili ahal izatea, horren aldeko hautaketa egiten duen pertsona orok euskaraz modu naturalean eta oztoporik gabe bizitzeko aukera izango baitu.

Horregatik, euskararen bilakaerari buruzko hausnarketa egiteko beharra eta herritarrek eta zenbait gizarte-eragilek norabidea partekatu behar dutela ikusi ondoren, abian jarri du 2016-2025 eperako **Euskararen Plan Estrategikoa** diseinatzeko prozesua.

Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (aurrerantzean, ESEP) diseinatu zuen, 2013an Eusko Legebiltzarrak onartu zuen. Eibarko Udalak ESEPen jarraibideak jarraitu ditu udal mailako Euskararen Plan Estrategikoa zehazteko orduan.

Plan Estrategikoa partaidetza-prozesuaren ekarpenak eta Eibarko Udaleko Euskararen Aholku Batzordeko kideenak jasotzen ditu. Eibarko hainbat kolektibok parte hartzea ezinbestekoa izan da eta EMUN Hizkuntza Zerbitzuak eta Eibarko Udaleko Euskara Arloaren arteko lankidetzak.

2. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2016-2025

Jarraian, dokumentu honetako informazio garrantzitsuena ateratzen da, jasotako informazioak edo jasotako proposamenek udal-plangintzan izan dezaketen eragina kontuan hartuta. Eibarko euskararen oinarrizko azterketa eta aurreikusitako helburu estrategikoa jasotzen dira nagusiki.

2.1. EUSKARAREN OINARRIZKO ANALISIA EIBARREN

HIZTUNEN BILAKAERA

Eibar biztanleria galtzen, eta, ondorioz hiztunak galtzen. Hiztun gehien dituen adien tartea 35-65 bitartekoa da.

	2011	
2-14 urte	2.834	%11
15-34 urte	5.725	%22
35-64 urte	11.790	%44
>= 65 urte	6.210	%23
Hiztunak	26.559	%100

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

EUSKARA GAITASUNA ETA KALE ERABILERAREN BILAKAERA

Gaitasunak gora egin du

Azken 25 urteetan, elebidunen kopuruak gora egin du.

1986	2011
%44	%51

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Erdaldun elebazarren kopuruak behera egin du. 2 eta 35 urte bitartekoen artean hazi da gehien euskaldunen ehunekoa.

Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta ondoren gazteak.

Euskararen kaleko erabilera ez da aldatu, %22an mantendu da.

Eibarko euskararen kale erabileraren bilakaera adin-taldeka, 1989-2014.

	Umeak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
1989-2000	33,43	16,01	14,28	27,11	20,59
2001-2005	39,08	27,56	17,68	21,25	23,70
2006-2010	39,53	29,87	19,90	21,60	24,58
2011-2014	40,78	25,88	17,65	17,78	22,18

Iturria: Eta Kitto Euskara Elkartea

AURREKONTUAK

Euskara arloaren aurrekontuaren barruan euskara zerbitzuaren eta euskaltegiko pertsonal gastuak sartuta daude.

Udalak euskararekin zerikusia duten gaietarako Plana indarrean dagoen bitartean, Euskara Sailak euskara normalizatzeko ematen dituen diru-laguntzak izango dira. Kalkulatzen da 142.970€ batuko direla.

Euskara sustatzeko 2015eko partida 962.204€-koa izan zen. Aurrekontu horretan Euskara Zerbitzuaren aurrekontuan, Udal Euskaltegiarena eta Gazteriaren ekimenena sartzen dira.

Planaren urteko aurrekontuak: datu orokorrak.

	2012	2014
Eibarko Udala	28.707.923,39 €	30.816.301,64 €
Euskara zerbitzua	514.221 €	594.065 €
Euskaltegia	538.926 €	559.648 €
Euskara arloa. Guztira	1.053.147 €	1.153.713 €
	%3,66 aurrekontu osoarekiko	%3,74 aurrekontu osoarekiko

Iturria: Eibarko Euskara Zerbitzua

BALORAZIO KUALITATIBOA ESPARRUKA

Hona hemen euskarak gaur egun hainbat eremutan duen egoeraren balorazioa:

1. FAMILIA TRANSMISIOA

Etxeko erabilera: %20 euskaraz, antzeko joerarekin, aldaketarik gabe.

Jolas-lekuetan gaztelania da nagusi haur eta gazteen artean.

Aisialdia erabat euskalduna ez izatea, etxe gehienetan gaztelania nagusia izatea, eta herrian euskarak duen presentzia arlo guztietan gaztelaniarena baino ahulagoa izatea. Horren ondorioz, haur, gazte eta heldu elebidun gehienek, salbuespenak salbuespen, trebetasun eta ohitura handiagoa dute gaztelaniaz jarduteko.

2. IRAKASKUNTZA

D eredia nagusitzen ari da, eta B eta A ereduak murriztu egiten dira.

Haur-hezkuntzan, %100 D da; lehen hezkuntzan, %90; DBHn, %80; Batxilergoan, %61; Lanbide Heziketan, %27; Unibertsitatean, ez dago D ereduko aukerarik.

Lanbide Heziketan A eredia da nagusi (%70).

3. EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA

313 pertsona euskara ikasten ari dira. Diru-laguntzak gehitu diren arren, joera antzekoa da, aldaketarik gabe.

Udalerrian eskaintza zabala duten eta langile profesionalak dituzten bi euskaltegi daude. Jende askok parte hartzen du *Berbetan* programan, zubiak eraikitzen euskaltegien eta euskararen kaleko erabileraren artean.

XEDEA: Herritarrei. UEUko ikastaroetara joatearren.	- Euskarazko formazioa sustatzea UEUK eskainitako ikastaroak egiten dituztenei diru-laguntzak ematea	- Euskarazko formazioa jasotzea sustatzea eibartarren artean	1.500 €	Finantziario funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Ebaluazio bakoiztua
XEDEA: Juan San Martin beka.	- Euskarazko ikerketa sustatzea. Juan San Martinek bere bizitzan landu izan zituen gaien gaineko ikerketak laguntzea	- Juan San Martinen pertsona omentzea eta bere ikerketa arloetan euskarazko ikerketak sustatzea	9.000 €	Finantziario funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Norgehiagoka
GUZTIRA			142.970 €		

4. ARLO SOZIEKONOMIKOA

Euskararen erabilera erosketetan: %16. Euskararen erabilera murrizteko joera dago, 1991ko %19tik gaur egungo %16ra.

Gaztelania ohiko hizkuntza da, nahiz eta *Euskaraz Primeran* kanpaina abian jarri den, bezeroen eta merkatarien arteko harremana euskalduntzeko, eta dendariak eta ostalariak *Berbetan* programan parte hartzeko

5. GAZTEAK (16-30)

Euskararen erabilera: %25. Joera gorabeheratsua da, %29 eta %25 bitartekoa.

Euskararen erabilera gaitasuna baino askoz txikiagoa da. Gazte gehienek euskara ulertzeko gaitasuna dute (%82) eta D ereduan ikasten dute. Urtez urte, euskara ulertzeko gaitasuna handituz doa. Aldiz, lanbide-heziketan eta unibertsitatean gaztelaniazko ereduak dira nagusi.

6. CORPUSA

Eibarren proiektu asko garatu dira tokiko hizkuntza aniztasuna eta ahozko ondarea jaso eta herritarren artean zabaltzeko: Eibarko-euskara.com sortu eta mantentzea; Eibarko euskara hiztegia hobetu eta digitalizatzea; Juan San Martin Beka eta argitalpenak; Eibarko ahozko ondarea (Ahotsak proiektua); Eibartarren Ahotan proiektua.

2.2. PLAN ESTRATEGIKOA (2016-2025)

Plan Estrategikoak hainbat helburu estrategiko zehazten ditu eremuka, bai eta helburu horiek lortzeko ezarri beharreko jarduerak ere. Ez dira dokumentu/laburpen honetan jaso, hirigintzako inplikaziorik ez dutelako.

Bilatzen diren helburu orokorrak honako alderdi hauetan oinarritzen dira:

1. Jai eta gau giroan euskara gehiago *arnastea*.
2. Euskararen prestigioa handitzea Eibarren.
3. Euskararen erabileraren aurrean tolerantzia handitzea.
4. Euskararen galeraren aurrean taldeek eta norbanakoek erantzukizun handiagoa hartzea.
5. Eibarko euskalgintza indarberritzea, eta gogotsu eta kementsu aritzea.
6. Babes politikoa nabarmen handitzea.
7. Udal ordezkariak elebidunak izatea.

Helburuak lortzeko, gazte- eta haur-ingurune eragileekin sare bat osatzea planteatzen da, eta horiek eragile aktibo bihurtzea, Eibarko gazteen eta haurren eremua euskararen *arnasgune* izan dadin. Familiak, kirol-elkarteak, aisialdi-taldeak, ikastetxeak eta haur eta gazteak hartzen dira eragile gisa.



3. EUSKARAREN AZTERKETA OSAGARRIA EIBARREN

2016-2025 eperako Euskararen Plan Estrategikoa 1989tik (1991, zenbait alderditan) 2015era arte egindako euskararen erabileraren neurketari buruzko informazioari buruzkoa izan zen. Informazio hori atal honetan sartu da, eta Plan Estrategikoan egindako azterketa osatzeko balio digu, planean kontuan hartu beharreko ondorio berriei.

80ko hamarkadaren amaieran Euskarak lekua irabazi du Eibarren, 90eko hamarkadaren hasieran, izandako datuekin alderatuta; hala ere, bere egoerak okerrera egin du 2000-2010 aldian izandako goranzko ibilbidearekin alderatuta

3.1. EUSKARA AUZOZ AUZO

Nabarmentzekoa da **auzoka** egindako euskararen erabileraren neurketa, txostenean oharkabean pasatzen dena, eta, hala ere, euskara indartsuagoa izan daitekeen eta erabilera oso txikia duten eremuak kokatzeko balio duena. Honako alderdi hauek nabarmentzen dira:

- Ipurua Eibarko auzorik euskaldunena da (%37,26 euskaldunak).
- Distantzia handira jarraitzen diote Urkik (%23,08), erdialdeak (%22,38) eta Urkizuk (%21,35).
- Amaña da kokapen txarrena duen auzoa, euskaldunen %15,09 batez beste 2011-2015 aldian

Eibarren Euskararen erabilerak izan duen bilakaerari dagokionez, denboran nahiko egonkor mantendu da, nahiz eta azken urteetan apur bat okerrera egin duen, Urkizuko joerarekin bat eginez. Auzoen araberako bilakaera desberdina izan da:

- Ipurua eta Urki nabarmen hobetu dira.
- Erdialdeak okerrera egin du.
- Amaña denboran zehar mantendu da.

	AMAÑA	IPURUA	URKI	HERRI ARDA/zona centro	URKIZU
1991	7,8	23	6,8	14,3	21,6
1994	26,45	22,61	14,65	26,43	19,53
1995	16,76	28,8	11	24,3	21,5
1998	14,22	18,66	15,56	26,41	29,31
2000	12,7	30,97	17,3	39,43	22,4
BATEZ BESTE	15,59	24,81	13,06	26,17	22,87
2001	7,05	34,70	7,35	37,65	30,66
2002	10,20	26,40	11,40	27,20	22,70
2003	24,10	33,80	28,70	19,50	21,10
2004	23,80	35,70	27,80	17,30	15,70
2005	11,80	40,20	21,80	19,30	29,20
BATEZ BESTE	15,39	34,16	19,41	24,19	23,87
2006	10,00	32,50	26,60	21,40	21,20
2007	13,05	13,34	13,80	39,80	33,00
2008	12,20	32,20	14,50	28,60	34,00
2009	16,00	20,70	20,50	18,70	26,60
2010	16,00	27,20	13,30	34,60	11,70
BATEZ BESTE	13,45	25,19	17,74	28,62	25,30
2011	19,40	50,60	17,20	19,80	26,34
2012	19,50	29,30	26,30	27,80	20,50
2013	11,75	35,00	23,40	20,30	16,80
2014	10,30	29,30	24,50	20,70	17,40
2015	14,50	42,10	24,00	23,30	25,70
BATEZ BESTE	15,09	37,26	23,08	22,38	21,35

3.2. EUSKARA JARDUEREN ARABERA

Eibartarren eguneroko bizitzako **hainbat jardueratan** euskararen erabileraren ehunekoa aztertu da. Euskararen erabilera handienetik txikienera, honela ordenatzen dira: jolas-paseoa (%31,01), gazte-giroa (%26,76), txikiteoa (%21,05), familia (%20,70) eta erosketak (%16,69).

Bilakaerari dagokionez, honako hauek nabarmentzen dira:

- Gazte-giroan euskara nabarmen hobetu zen, baina behera egin du neurrian; gauza bera gertatu da, neurri txikiagoan, txikiteoarekin eta familiarekin.
- Euskara nahiko egonkor mantendu da paseo-jokoan, hobekuntza txiki batekin.
- Euskarak etengabe egin du okerrera erosketetan, baina badirudi egoera egonkortu egin dela.

3.3. EUSKARA ADIN-TARTEEN ARABERA

Alderdi hori 2016-2025 eperako Euskararen Plan Estrategikoan aztertu bada ere, informazio-oinarri gisa hartu den taula sartu da, azterlanean zehar euskararen erabilerak adin-tarte guztietan izan duen bilakaera azaltzeko.

2011-2015 aldirako kalkulaturako batez bestekoetan oinarrituta, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%41,04), eta ondoren gazteak daude (%26,18). Oso atzetik helduak daude (%18,04) eta, azkenik, helduak (%17,14).

Aipaturako adin-tarteetan euskararen erabilerak izan duen bilakaerari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Haurren euskararen erabilera, euskara gehien erabiltzen duen adin-tartea izanik, pixkanaka hobetzen joan da, eta une oro euskara gehien erabiltzen duen taldea izaten jarraitu du.
- Gazteen eta helduen artean, euskararen erabilera handiagoa izan da, eta, ondoren, hizkuntzaren egoerak okerrera egin du azken urteetan. Euskararen erabilera-indize okerrenak zituzten adin-taldeak izanik, gazteen arteko hobekuntza nabarmendu behar da, hizkuntza gehien erabiltzen duen bigarren taldea izatera igaro baitira.
- Adinekoek osatzen dute euskararen erabilerari dagokionez bilakaera okerrena izan duen gizarte-taldea. Euskaraz gehien hitz egiten zuen bigarren taldea izatetik euskara gutxien hitz egiten duena izatera igaro dira.

	JOLAS PASEO/ juego-paseo	EROSKETA/Compras	TXIKITEOA	GAZTEGIROA/ambiente juvenil	FAMILIA
1991	23,9	14,4	13,5	5,4	15,9
1994	23,22	18,46	16,88	14,69	23,68
1995	28,8	21,6	18,2	16,9	25,4
1998	30,68	22,11	18,06	37,89	19,18
2000	36,36	24,95	26,05	33,77	29,71
BATEZ BESTE	28,592	20,304	18,538	21,73	22,774
2001	30,50	23,36	32,43	33,90	31,40
2002	25,90	16,00	19,80	26,50	24,60
2003	35,00	24,20	13,20	32,00	22,10
2004	34,10	12,00	18,70	26,80	17,20
2005	32,16	20,50	20,50	30,10	24,70
BATEZ BESTE	31,53	19,21	20,93	29,86	24,00
2006	24,60	20,06	19,16	29,60	22,40
2007	32,60	19,67	33,90	29,60	36,76
2008	27,70	23,20	27,10	36,60	28,70
2009	32,00	10,10	14,60	18,60	17,60
2010	31,70	8,40	29,40	26,60	20,08
BATEZ BESTE	29,72	16,29	24,83	28,20	25,11
2011	30,67	15,86	23,37	30,60	20,32
2012	31,60	20,20	21,30	28,20	25,40
2013	26,30	16,60	21,10	23,00	19,30
2014	31,20	14,40	17,50	25,50	17,30
2015	35,30	16,40	22,00	26,50	21,20
BATEZ BESTE	31,01	16,69	21,05	26,76	20,70

	UMEAK/niñ@	GAZTEAK/jóvenes	HELDUAK/adultas	ZAHARRAK/mayores	GUZTIRA/total
1989	21,96	7,8	11,26	23,47	16,7
1991	28,02	5,6	9,01	21,7	14,4
1993					
1994	33,59	14,66	13,27	32,11	19,68
1995	38,6	13,7	14,7	32,6	21,6
1997					
1998	36,82	20,75	14,03	25,62	21,53
2000	41,56	33,56	23,43	27,17	29,6
BATEZ BESTE 1989-2000	33,43	16,01	14,28	27,11	20,59
2001	41,50	32,10	23,71	29,29	29,50
2002	43,60	24,30	13,50	19,90	22,00
2003	33,00	22,60	19,00	20,00	22,10
2004	37,70	29,40	12,90	17,10	20,80
2005	39,60	29,40	19,00	19,94	24,10
BATEZ BESTE 2001-2005	39,08	27,56	17,62	21,25	23,70
2006	35,81	25,60	15,84	21,68	21,57
2007	42,02	42,44	28,90	28,34	31,81
2008	34,20	32,80	20,05	28,80	27,00
2009	42,90	18,90	14,00	13,20	18,90
2010	42,70	29,60	20,70	16,00	23,60
BATEZ BESTE 2006-2010	39,53	29,87	19,90	21,60	24,58
2011	44,80	27,10	18,60	15,70	22,80
2012	39,40	28,90	20,50	21,70	25,30
2013	42,40	24,30	16,48	17,60	20,50
2014	36,50	23,20	15,00	16,10	20,10
2015	42,10	27,40	19,60	14,60	23,40

4. PLANAK EUSKARARENGAN DUEN ERAGINA

Jarraian, galdera estandarizatu batzuk planteatzen dira, UEMAK (UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA) euskararen erabileraren normalizazioan duen eraginari buruzko txostenak egiteko garatu duen metodotik jasotakoak.

Lortutako erantzunetan oinarrituta, ondorioztatuko da planak edo proiektuak ez duela eraginik euskararen erabileraren normalizazioan, edo ebatziko da planak edo proiektuak eragina duela euskararen erabileraren normalizazioan; kasu horretan, zenbait neurri hartu beharko dira ondorio horiek arintzeko.

Galdetegiaren arabera, planaren berrikuspenean jasotzen den antolamendua garatzeak euskararen erabileran eragina izango du.

Galde daiteke eragina positiboa edo negatiboa izango den, eta inpaktu horren intentsitatea ere bai. Hala ere, gai horiek antolamendu-proposamen jakina behar dute, hiri-ereduaren proposamenetik haratago doana, eta hori da Aurrerapenaren dokumentuak jasotzen duena. Hasierako Onarpenaren dokumentuak zehaztuko du proposatutako antolamenduak euskararen erabileran izan dezakeen eragina.

Aipatu da Aurrerapen dokumentu honek proposatzen duen hiri-ereduak, hasteko, eragin (positiboa edo negatiboa) izan dezakeela euskararen erabileran, honako alderdi hauei dagokienez:

1	Proiektuak/ planak eragina izango du zonaldeko biztanle kopuruan? (etxebizitzak sortzearen ondorioz, lanpostuak sortzearen ondorioz...)	BAI
2	Proiektuak/ planak eragina izango du zonaldeko bisitari kopuruan? (aisialdi-guneak eraikiko direlako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak biderkatuko direlako...)	BAI
3	Proiektuak/planak eragina izango du eskualdeko hizkuntza-politikan? (erakunde baten izaera aldatuko delako, eskola baten hizkuntza-eredua aldatuko delako...)	EZ
4	Proiektuak/planak eragina izango du inguruko hitzunen harreman-eremuan? (ludoteka berria irekiko delako, parkerik ez dagoelako, hiria eraikiko delako, eskola txiki bat irekiko delako...)	BAI

4.1. Etxebizitza berriak sortzea

Eredu berriak gaur egun hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dagoen lurzorian etxebizitza berriak eraikitzea proposatzen du, gaur egun bizitegi-garapenerako urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lurzoruak okupatu gabe, eraikitako hiriaren erremate txikiak izan daitezkeenak izan ezik. Gainera, gaur egun lurzoru urbanizagarriaren sailkapenarekin bat datozen lurzoruak batzuk desklasifikatzea planteatzen du.

Horrek berekin dakar hiri barruan etxebizitza berriak eraikitzea, ez periferian, eta horrek Eibarko biztanle berrien integrazioa erraztuko du, bai gizartearen ikuspegitik, bai hizkuntzaren ikuspegitik. Alde horretatik, desiragarriagoak dira bizitegi-eragiketa txikiak, eragin txikiagoa dutelako, garrantzi handiko bizitegi-eragiketak baino.

Plan berriak proposatutako eredia hiri-kirurgiako eragiketa txikietan oinarritzen da, eta horrek gutxieneko eragina izango du. Auzoetan, ordea, anbizio handiagoko bizitegi-operazioetat hartu dira, haien kalitatea hobetzeko funtsezko aldaketak behar baitituzte (gaur egun, zalantzan dago), eta auzo gisa nolabaiteko sendotzea lortzeko. Txonta eta Matxaria nabarmendu daitezke, baina baita Barrena ere, gaur egun kalearen alde bakarra hartzen baitu ia luzera osoan, eta gehienak hutsik dauden eraikinak eskaintzen baititu kalearen beste aldean.

Finkatutako ereduaren barruan proposamen horietako asko alternatibak dira, eta, aldi berean, etxebizitzaz bestelako erabilerak sustatzen dituzten beste aukera batzuk planteatzen dira.

4.2. Jarduera ekonomikoak bultzatzea

Jarduera ekonomikoak bultzatzeko har daitezkeen neurriek beste udalerrri batzuetako jendea erakarri ahal izango dute, eta euskararen erabileran eragin positiboak edo negatiboak sortu ahal izango dituzte.

Etxebizitzarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak hiri barruan edo hiri mugakidean ezartzeko proposamenak, eta poligono nagusietarako oinezkoentzako sarbideak hobetzeak ere bai, pertsonak erakarriko ditu hirigunera, eta eibartarren eta beste udalerrri batzuetatik datozen langileen arteko harremanak areagotuko ditu, bai espazio libreetan, bai lantokietatik gertu dauden establezimenduetan (dendak, tabernak, etab.).

Industrialdeei dagokienez, eraikitako hiriarekin lotura txikia duten, horietan egin daitezkeen jarduerak ez dute eragin nabarmenik izango euskararen erabileran.

Garrantzi berezia du, hirian kokatua eta jarduera ekonomikoetarako eremu zabala delako, Otaola. Eremua hobetzeko, oinezkoentzako komunikazioak eta garraio publikoa hobetzeko, oro har espazio publikoa hobetzeko eta lehendik zeudenak osatzeko zuzkidura, zerbitzu eta jarduera berriak ezartzeko, eremu horretako gizarte-harremanak nabarmenduko dira. Inpaktu posibleak kalkulatzeko orduan, kontuan hartuko da Otaolak, alde batean, Eibarko euskaldunena den Ipurua inguruarekin muga egiten duela, eta, bestean, euskaldun gutxien duen Amañarekin.

4.3. Bisitariak erakartzeko gune berriak

Beste udalerrri batzuetako jende asko erakartzen duten ekipamendu eta jarduerak euskaldun gehiago edo gutxiago dakarte berekin. Hori izan daiteke eskualdeko ekipamendu handien kasua, hala nola Epaitegia edo Ospitalea.

Pertsona horiek datozen udalerrriak eibartarrak baino euskaldun gehiago edo gutxiago diren aztertu behar da, jarduera horiek euskararen erabileran eragin positiboa edo negatiboa duten zehazteko.

Gauza bera gertatuko da Eibarren egin daitezkeen eskualdeko intereseko beste jarduera batzuekin. Eibar eskualde-buru bihurtzen laguntzen duten jarduerak Debabarreneko gainerako udalerrietan bizi diren pertsonak erakarriko dituzte nagusiki. Pertsona horien euskalduntze-mailaren araberakoa izango da euskararen erabileran izango duten eragina positiboa edo negatiboa izatea.

Erakarpeneremu horiei fisikoki lotutako gune eta jarduerak pertsonen arteko harremanak indartzeko balioko dute, eta horrek eibartarren euskara gehiago edo gutxiago erabiltzea bultzatuko du.

4.4. Harremanetarako espazio berriak

Bilatzen den hiri-ereduaren oinarria espazio publikoa hobetzea da, eta, batez ere, kalitatezko espazio publiko berriak lortzea, bai parkeak eta plazak, bai oinezkoentzako pasealekuak eta bizikletentzako pasealekuak, oinezkoen mugikortasuna erraztuko dutenak, mugikortasun-modu nagusi gisa.

Gune berri hauetan areagotu egiten dira elkarrekiko harremanak eta jarduerak, hala nola jolasa eta paseoa, horiek baitira gaur egun euskara gehien erabiltzen den jarduerak.

Espazio horien kualifikazioari eta hiriko ekipamenduekin duten harremanari dagokienez, ulertuko da harreman handiagoa dutela hurrekin, gazteekin, helduekin edo nagusiekin, edo belaunaldien arteko harremana sustatuko dutela. Horrek, bildutako datu estatistikoaren arabera, euskararen erabilera-maila desberdinak ekarriko ditu hainbat gunetan, eta hori, aldi berean, dagoen hiriko eremuarekin eta indartzen dituen jarduerekin erlazionatu ahal izango da.

Gune hauetariko batzuek euskararen erabilera indartu dezakete, euskararen erabilera bere kabuz bultzatu dezakeen ekipamendu edo jardueraren baten bidez, hirian arnagune bat sortzeko asmoz, Eibarren euskararen erabilera bultzatzeko foku izan dadin.

PLANOAK

INFORMAZIO PLANOAK EGUNGO HAPOn

PI-1. ESKUALDEKO ENKOADRAKETA_____	E. 1/50.000
PI-2. LURZORUAREN SAILKAPENA_____	E. 1/10.000
PI-3. LURZORU URBANIZAEZINEKO KATEGORIAK _____	E. 1/10.000
PI-4. KALIFIKAZIO GLOBALA_____	E. 1/4.000
PI-5. SISTEMA OROKORRAK_____	E. 1/4.000
PI-6. EREMUAK – GARAPEN MAILA _____	E. 1/10.000
PI-7a. INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK I_____	E. 1/10.000
PI-7b. INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK II_____	E. 1/10.000

ORDENAZIO PLANOAK

PO-1. LURZORUAREN SAILKAPENA_____	E. 1/10.000
PO-2. LURZORU URBANIZAEZINEKO KATEGORIAK_____	E. 1/10.000
PO-3. BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK_____	E. 1/10.000
PO-4. AZPIEGITURA BERDEA_____	E. 1/10.000
PO-5. PARTE-HARTZE EREMU NAGUSIENAK _____	E. 1/4.000
PO-6. MUGIKORTASUNA_____	E. 1/4.000